



EUSKO JAURLARITZAREN LANA ESKUALDEETAKO KOMITEAN

2013. URTEKO BALANTZEA



Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatza



AURKIBIDEA

HITZAURREA

3.orr

OSOKO BILKURAK

7.orr

- 99. Osoko Bilkura
- 100. Osoko Bilkura
- 101. Osoko Bilkura
- 102. Osoko Bilkura
- 103. Osoko Bilkura
- 104. Osoko Bilkura

AHOLKULARITZA-LANA

1. Iritzi-eskaerak jaso dituzten Eusko Jaurlaritzako sailen eta erakundeen zerrenda eta haien jarrera

23.orr

- 1.1. Sailak eta landutako gaiak
- 1.2. Kontsultatutako sailak eta haiek emandako erantzunak
- 1.3. Sailen erantzun-mota

2. Jarreraren defentsa: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak

26 .orr

- 2.1. Idatzitako, aurkeztutako eta onartutako zuzenketak

3. Beste eskualde batzuek egindako zuzenketen aurkezpen bateratua

27.orr

4. Gai nagusien inguruko kontsulta espezifikoak

31.orr

4.1. *Europa 2020 Estrategia* delakoarekin zerikusia duten galdetegiak:

- 4.1.1. Industria-politika bat globalizazioaren garairako
- 4.1.2. Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako plataforma
- 4.1.3. Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa
- 4.1.4. Batasuna berrikuntzaren alde
- 4.1.5. Europarako Agenda digitala
- 4.1.6. Jardunbide egokien kasuen aurkezpena

4.2. Beste gai batzuei buruzko galdetegi osoak

- 4.2.1. Itsasaldeko eta kostaldeko turismoa
- 4.2.2. Elkartzeko akordioak kohesio-politikaren alorrean
- 4.2.3. Barne Erregulazioaren berrikuspena

5. Subsidiariorotasunaren azterketa

44.orr



5.1. Sarrera

5.2. Subsidiarotasunaren alorreko aditu-taldea

5.3. REGPEX plataforma

5.4. Gai hauen inguruko kontsultak:

5.4.1. Lurralde-eraginaren ebaluazioa

5.4.2. Hondakinei buruzko EBko legedia

5.4.3. Portuei buruzko paketea

5.4.4. Kontratazio publikoaren alorreko fakturazio elektronikoa

5.5. Subsidiarotasunaren inguruko konferentzia

5.6. Subsidiarotasuna CdRko irizpenetan

6. Batasunaren erabakitze-prozesuan esku hartzeko beste tresna batzuk **57.orr**

6.1. Automobilgintzari buruzko eskualde arteko taldea

6.2. REGLEG-EELB eskualde arteko taldea

6.3. Osasunaren inguruko eskualde arteko taldea

6.4. Europako alderdi politikoak eta Espainiaren Ordezkaritza

PARTE-HARTZE BEREZIAK FOROETAN **68.orr**

- Garapenerako lankidetzaren deszentralizatuaren inguruko konferentzia
- Komunikazio Publikoaren inguruko konferentzia europarra (EUROPCOM)
- Batasuna berrikuntzaren aldeko Konferentzia
- Open Days: Eskualde eta Hirien XI Europako Astea

ONDORIOAK **74.orr**



SARRERA

Eskualdeetako Komitea (EK) da Europar Batasuneko eskualdeak eta udalerriak ordezkatzeko organo ofiziala. Maastrichteko Tratatuen ondorioz sortu zen, 1992an, eta handik bi urtera ekin zion ibilbideari. Harrezkero, gero eta kontsulta-botere eta eragin handiagoa du, bai Erkidegoko legediari buruzko kontsultak jasotzeko, bai Europako politikako gai-zerrendako arazo garrantzitsuenak ebazten laguntzeko.

Batasuneko 28 estatu kideetako 353 eskualde-presidente, alkate, zinegotzi, aholkulari eta abar dira bertako partaideak, eta horien zeregina da ordezkatzeko dituzten herritarren ikuspuntuak eta interesak Bruselan defendatzea. Horrenbestez, gaur egun, Batzordeak edo Kontseiluak duen betebeharra hau da: Eskualdeetako Komiteak zenbait jarduera-eremuri buruz duen iritzia biltzea, horiek eskualdeetako eta tokiko eskumenetan eragina baitute edo ondorioak baitakartzate.

Lisboako Tratua indarrean sartu zenetik, eremu hauek kontsultatu behar dira nahitaez: garraioa, enplegua, gizarte-politika, Europako Gizarte Funtza, hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola, kultura, osasun publikoa, Europa barneko sareak, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koherentsia, ingurumena eta energia. Hartara, EBko jardura gehienak hartzen dira aintzat. Nahitaezko kontsulta horiez gain, Kontseiluak, Batzordeak, eta Europako Parlamentuak kontsulta diezaiokete Komiteari, hala nahi izanez gero. Eskualdeetako Komiteak, halaber, iritzia eman dezake bere ekimenez, egoki irizten badiu.

Iritzi horiek irizpenen bidez ematen dira, eta, ondoren, Batzordera, Kontseilura eta Europako Parlamentura bidaltzen dira. Irizpenak emateaz gain, Eskualdeetako Komiteak txostenak egin eta ebazpenak ematen ditu. Bitarteko horiek guztiek hau dute helburu: Erkidegoko legediak udalerrietan eta eskualdeetan duten eragina adieraztea, EBko gai-zerrendan Eskualdeetako Komiteak gaiak eransteko aukera izatea, eta unean uneko arazo politikoei buruzko iritzia ezagutaraztea.

Denboraren joanean, hainbat tratatu hitzartu dira, eta horien bidez Eskualdeetako Komiteari gero eta garrantzi handiagoa eman zaio; hain zuzen ere, ondoko arazoi hauengatik: batetik, eskualdeek eta udalerriek dutelako ardura Erkidegoko legediaren hiru laurdenak aplikatzeko; eta, bestetik, ezinbestekoa delako herritarrak Erkidegoko proiektuan inplikatzeko, hurbilen dituzten ordezkarien bidez.

Eskualdeetako Komiteko kide guztiak beren eskualdean bizi dira, eta bertan lan egiten dute; hau da, dagozkien ardurak beren lurraldean betetzen dituzte, eskualdeko presidente izan zein alkate izan. Hori hala izanik, ordezkatzeko dituzten herritarren kezka zein diren jakiten jarrai dezakete. Horrenbestez, bi egiteko dituzte Komiteko



kideek. Bata, herritarren zuzeneko interesak defendatzea Bruselara joaten direnean; izan ere, han daudenean, parte hartzen dute Erkidegoko erabakiak hartzen. Eta, bestea, herritarrei EBn gertatzen den guztiaren berri ematea.

Euskadiri dagokionez, 2013. urtearen hasieran Eusko Jaurlaritzaren X. legegintzaldia hasi ondoren, kide titular eta ordezkoen izapide-prozesua jarri zen abian Europan, eta, beraz, Eskualdeetako Komitean aritzeko Euskal Autonomia Erkidegoko kide titularra eta ordezkoa aukeratu ziren. Hala, EBko Kontseiluak, 2013ko martxoaren 19ko eta 20ko bilkuran Iñigo Urkullu lehendakaria izendatu zuen kide titular, eta M. Angeles Elorza Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia, ordezko kide.


Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Komitean jardun ahal izateko, alde zuzenetik lan eginda egon behar du. Hau da, batez ere Jaurlaritzako sailen iritziak eta Europako legeak aldatzeko proposamen zehatzak bildu behar ditu, ondoren Bruselan defendatzeko.

Hau da Eusko Jaurlaritzaren barne-prozedura¹:

- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik (Lehendakaritza) irizpenak bidaltzea Jaurlaritzaren gainerako sailentara, beren organismo autonomoetara edo EUDELera.
- Sailen iritzia edo jarrera Komitearen irizpenei buruz.
- Zuzenketa konkretuak aurkeztea; horretarako, beste eskualdeen babesa jaso behar da.
- Lobby-lana eta zuzenketen defentsa Bruselan.

Europako arauetara zuzenketak aurkezteaz gain —horixe da parte hartzeko modu nagusia eta Euskadiren jarrera Erkidegoko erakundeetan ezagutarazteko bide nagusia—, Euskadik beste jarduerak garrantzitsu batzuk ere egin ditu Eskualdeetako Komitean. Txosten honetan bertan daude jasota horiek guztiak.

¹ Ikusi grafikoa hurrengo orrialdean.





OSOKO BILKURAK

99. Osoko Bilkuraren laburpena (urtarrilaren 31 eta otsailaren 1a)

2013ko lehen Osoko Bilkura Bruselan izan zen, eta eskualdeentzako interes handiko hainbat gai eztabaidatu ziren; besteak beste, hauek dira nabarmentzeko modukoak: estatuek eskualdeentzako ematen dituzten laguntzak, hazkundera eta enplegu-sorrera sustatzen eskualdeek eta hiriek duten zeregina, kohesio-politikari buruzko paketea, Europako Ikerketarako Eremua eta EBko herritartasuna.

Eskualdeetako Komitearen presidenteorde Mercedes BRESSO izan zen Osoko Bilkura horren buru, eta Europako Gaietarako Irlandako ministro Lucinda CREIGHTONEk eta Europako Batzordearen presidenteorde eta Lehiakortasun batzordeko buru Joaquín ALMUNIAk parte hartu zuten. Azken horrek, estatu-laguntzen erreforma eta araututako laguntzei buruzko zuzentzarauen berrikuspena azaltzeko hartu zuen parte Osoko Bilkuran.

Hau izan zen urteko lehen Osoko Bilkuraren berezitasuna: Irlandaren presidentziak dituen lehentasunak aurkeztu zituen EBko Kontseiluan. Zazpigarren aldia da Irlandak duena EBko presidentzia, eta gainera, berrogei urte beteko dira EBn sartu zela.

Lucinda CREIGHTON Irlandako ministroak datozen sei hilabeteko agintaldian Irlandaren presidentziak zer helburu dituen azaldu zituen, eta bere programaren lehentasunezko hiru alor hauek nabarmendu zituen: egonkortasuna ziurtatu, enplegu eta hazkunde jasangarrian inbertitu, eta Europa eta mundua.

Egonkortasuna lortzearen, garrantzitsutzat jo da banku-batasuna lortu ahal izateko oinarriak finkatzea -Seihileko Europarrerako prozesua- eta Ekonomia eta Moneta Batasuna finkatzen jarraitzea.

Hazkuntzan eta enpleguan inbertitzeko, presidentziak aparteko garrantzia emango dio merkatu bakarra gauzatzeari, merkatu digital bakarra barne, bai eta gazteen langabeziaren aurkako borrokari ere. Horretarako, funtsezkoa da 2014-2020 urte anitzeko finantza-esparruari buruzko akordioa lortzea.

Europa eta munduari dagokionez, hau azaldu zuen: batetik, kanpo-politika zorrotza sustatuko dela arazo globalei aurre egiteko, bai eta goseari, pobreziari eta klima-aldaketari aurre egiteko ere; eta bestetik, EB zabaltzeko prozesua aztertuko dela, eskualde- zein toki-ikuspegia barne hartuta.



Osoko Bilkuraren bigarren egunean, beste funtsezko gai hau izan zuten mintzagai: eskualdeentzako estatu-laguntzei buruzko zuzentarauak. Egun horretan, ALMUNIA komisarioak hartu zuen parte Osoko Bilkuran. Hasieran, azaldu zuen eskualdeentzako laguntzetarako zuzentarauak berrikustea funtsezkoa dela, estatu-laguntzen zuzentarauak modernizatzearen.

Adierazi zuen laguntza horiek direla bitarteko garrantzitsuenak finantziazioa eskualdeetara irits dadin. Gero, azaldu zuen zergatik ekin zitzaion estatu-laguntzen estrategia berrikusteari, eta besteak beste, arrazoi hauek eman zituen: eskualdeen arteko desberdintasunak murriztu egin dira European azken hamarkadan; finantza-krisia dela-eta aurrekontu publikoei presio handiagoa ezarri zaie; eta nahiz eta bi faktore horiek gailendu, estatu kideek enpresei laguntzeko dituzten bitarteko-kopurua oso desberdina da eremu batetik bestera. Eta azkenik, azaldu zuen zein diren erreformaren helburuak eta zer aldaketa jakin aurreikusi diren laguntza horietarako.

Osoko Bilkura horretan, Euskadik ez zuen parte-hartze politikorik izan, ordezkari bat Eskualdeetako Komiteko kide izendatzeko ezarrita dagoen prozedurak 2 hilabete inguruko denbora-tartea eskatzen baitu, eta Lehendakariak abenduaren hasieran hartu zuen kargua. Horrexegatik ezin izan ziren zuzenketak aurkeztu Euskadiren izenean, ezta beste eskualde batzuen zuzenketei babesia eman ere.

100. Osoko Bilkuraren laburpena (apirilaren 11 eta 12a)

Apirilean Eskualdeetako Komiteak beste Osoko Bilkura bat izan zuen Belgikako hiriburuan. Osoko Bilkura hartan, pobrezia desagerrarazteko eta munduari etorkizun jasagarria emateko etorkizuneko ikuspegi orokorrari buruz lau talde politikoek aurkeztutako ebazpen-proiektua eztabaidatu zen. Hainbat irizpen ere eztabaidatu zituzten; besteak beste, EBren aurrekontuarekin eta krisi ekonomikoarekin zerikusia dutenak, premia larriak dituztenentzako Europako Laguntzen Funtzarekin zerikusia dutenak, hazteko eta ekonomia suspertzeko Europako industria indartsuagoarekin zerikusia dutenak, eta krisian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko EBko zuzentarauak.

Osoko Bilkura hura berezia izan zen, Eskualdeetako Komitea 1994. urtean sortu zenetik 100.a baitzen eta Martin SCHULZ Europako Parlamentuaren presidentek parte hartu baitzuen. Presidenteak urte anitzeko finantza-esparruari buruzko negoziazioen berri eman zuen.

Ramón VALCÁRCEL Eskualdeetako Komitearen presidentek Parlamentuko presidenteari ongietorria adierazteko hitzaldian esan zuen, besteak beste, egungo fase politikoan ezinbestekoa dela EBren aurrekontuari buruzko (urte anitzeko finantza-esparrua) akordioa lortzea uda baino lehen, datozen urteetan eskualdeetako eta tokiko

inbertsioen plangintza behar bezalakoa izango dela ziurtatuko bada. Horrez gain, Valcárcel presidenteak esan zuen oso kezkatuta zegoela Europako Parlamentuko hainbat diputatuk emandako iritziagatik; izan ere, haien ustez, kohesio-politikak iraganean du oinarria. Presidenteak esan zuen ez zegoela ados haiekin, eta azaldu zuen kohesio-politikoak dela bitarteko indartsuena berrikuntza hedatzeko, energia-efizientzia sustatzeko eta gazteen langabeziaren eta pobreziaren aurka borroka egiteko.

Martin SCHULZ Europako Parlamentuaren presidenteak esan zuen, lehenik eta behin, Eskualdeetako Komiteak egiten duen lanak zuzenean eragiten diola Europako Parlamentuak ezartzen duen legediari. Gero, adierazi zuen Europako proiektua hainbat mehatxuren eraginpean dagoenetik, EBk lan handia egin behar izan duela herritarrek proiektu horrekiko konfiantza izan dezaten. Hori dela eta, SHULZ presidenteak erakunde eta gobernu-maila guztiei eskatu zien eragozteko zatiketa-mota oro. Gero, ekonomiaren alorreko gaiak izan zituen mintzagai. Berrito adierazi zuen oso garrantzitsua dela EBri behar besteko finantza-baliabideak ematea datozen zazpi urteetarako, eta adierazi zuen Europako Kontseiluarekin urte anitzeko finantza-esparruari buruzko akordioa lortzeko modua ikusten zuela.

Egun horretan, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi M. Ángeles Elorza Zubiriak ordezkatu zuen lehenengoz Euskadi Osoko Bilkuran, Eusko Jaurlaritzaren X. legegintzaldia hasi zenetik. Iñigo Urkullu Lehendakariak eta Kanpo Harremanetarako idazkariak bat egin dute Europaren aldeko Liberalen eta Demokratuen Aliantza Taldearekin (ALDE).



Komitearen presidentearen ongietorria, kide berriei.



Eusko Jaurlaritzak 2 zuzenketa aurkeztu zizkion Eskualdeetako Komiteari, eta biak onartu ziren Osoko Bilkuran, nahiz aldaketa txikiren bat egin. Hona hemen edukia:

Irizpena: Europar Batasunaren deszentralizazioa eta EBko politikak osatzerakoan eta gauzatzerakoan tokiko eta eskualdeko autogobernuak duen tokia.

- Tokiko autonomiaren oinarri demokratikoekiko errespetua eskatzea; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren ustez, oinarriok kalte larriak izan dituzte Europako zenbait herrialdetan, tartean Espainian, krisi ekonomikoa dela-eta tokiko administrazioa arrazionalizatzeko egindako erreformengatik.
- Tokiko administrazioaren etorkizuneko erreformatan Tokiko Autonomiaren Europako Gutuneko printzipioak aintzat har ditzatela gomendatzea legegile nazionaleri.

Merezi du aipatzea Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak oso ondo hartu zituztela; izan ere, Danimarkan, Holandan eta Erresuma Batuan, besteak beste, eskualde eta tokiko autonomian antzeko gutxitze kasuak hautematen dira.

Eusko Jaurlaritzari, gainera, 32 zuzenketa aurkeztu zizkioten beste eskualde batzuek, Euskadiren ordezkariaren babesa lortzeko eta batera aurkezteko. Haietako 26 onartu ziren, Gobernuko sailek emandako argibideei jarraikiz.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi M. Ángeles Elorzak ALDE taldearen eta Eskualdeetako Komiteko Espainiaren Ordezkaritzaren Osoko Bilkuraren aurreko bileretan ere parte hartu zuen.

101. Osoko Bilkuraren laburpena (2013ko maiatzaren 30a)

Maiatzeko 101. Osoko Bilkurak, ohi ez bezala, egun bat baino ez zuen hartu. Eskualdeetako Komitea Bruselan elkartu zen, eskualdeentzako interes handiko hainbat gai eztabaidatzeko; besteak beste, hauek dira nabarmentzeko modukoak: gazteen enplegua, ingurumena, esnea ekoizteko kuotak, Europako araudiaren egokitzapena eta genero-oreka enpresetan.

Osoko Bilkura horretan, Eskualdeetako Komitearen presidentek ohi bezala pate hartzeaz gain, Johannes HAHN Eskualde Politikako komisarioak ere parte hartu zuen, eta, hain zuzen, 2014-2020 eperako kohesio-politikoari buruz eztabaidatzeko eta Europako hainbat eskualdeetan Egitura Funtsek dituzten helburuak aztertzeke hartu zuen parte.

VALCÁRCEL presidentek Europako komisarioari ongietorria adierazteko hitzaldian esan zuen oso kezkatua zegoela, atzeratzen ari zelako urte anitzeko finantza-



esparruari buruzko akordioa eta 2014-2020 epealdiko kohesio-politikoari buruzko araudi-paketea. Berriro adierazi zituen Komiteak alor horretan egiten dituen eskaera nagusiak, eta komisarioari eskaera hau egin zion: estatu kideei eskatzeko, hain zuzen, eskualdeetako eta tokiko agintariak buru-belarri parte har dezaten, elkartzeko akordioak eta programa operatiboak prestatzen.

Urte anitzeko finantza-esparruaren alorrean eta elkartzeko akordioen alorrean estatu kideekin dituen negoziazioen nondik norakoak azaldu zituen **Johannes HAHN** komisarioak, eta berretsi zuen bi programazio-epeen artean desadostasunik eta ezustekorik gabeko epea ziurtatzeko konpromisoa duela Batzordeak. Azaldu zuen akordioa lortzeko negoziazioak ondo bideratuta zeudela, eta urte anitzeko finantza-esparruak zenbateko funtsa jasoko duen zehatz-mehatz behin betiko erabaki gabe badago ere, estatu kideek zeukaten informazioa nahikoa zela nork bere programa operatiboak abian jartzeko.

HAHN komisarioak adierazi zuen eskualdeetako eta tokiko agintariak gero eta gehiago hartzen dutela parte elkartzeko akordioak prestatzen, eta Europako Batzordearen asmoa dela eskualdeek eta udalerriek negoziazioetan zenbateraino parte hartzen duten jakiteko jarraipena egitea, hilean bi aldiz. Amaieran, HAHN komisarioak esan zuen eskualde bakoitzaren ardura dela norberaren indarguneak hautematea, bai eta erabakitzea ere nola sustatu beharreko inbertsioak.

Osoko Bilkura horretan, guztira, 8 irizpen-proiektu aurkeztu ziren. Guztira, **Eusko Jaurlaritzak 13 zuzenketa** egin zizkien bi irizpeni, eta haietatik, 10 onartu egin ziren. Hain zuzen, Europako araudiaren egokitzapenari buruzko irizpenari 9 zuzenketa egin zizkion, eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioaren (IEE) Zuzentarauaren Berrikuspenari 4 zuzenketa.

Idea nagusi hauek aldarrikatu zituen:

Irizpena: EBko arauen egokitzapena (REFIT programa):

- Eskualdeetako eta tokiko agintariak konpromisoa hartzea, Europako legedia prestatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko, eta horrek eskualdeetako agintarien lana gehitzea eragin gabe.
- Eskualdeen eta tokiko erakundeen autonomiaren alorrean atzerapena salatzea estatu kideetan; izan ere, tokiko administrazioak aitzakia ekonomikoak eta arrazionalizazio-aitzakiak jartzen ditu atzerapena justifikatzeko.
- Orain arte eskualdeek parte hartzen zuten eremuen birzentralizazioa salatzea, Estatu kide batzuetan gertatzen ari dena; adib., Europako Batzordearen zenbait batzordetan autonomia-erkidegoen parte hartzea birzentralizatzen ari da.



- Gutxiengoan hizkuntzak errespetatu daitezela eskatzea, Europako legedia guztiontzat argiagoa, eskuragarriagoa eta betetzen errazagoa izan dadin.
- Lurralde-eraginaren ebaluazioa egin dezaten bultzatzea Europako erakundeak, eta, horretarako, eskualdeetako zein tokiko administrazioekiko komunikazio-bide sendoak ezartzea.
- Europako Batzordeari ahalegin handiagoa eskatzea, lortutako aurrerapenei buruzko emaitzak kuantifikatzean eta ondorioak aurkeztean.
- Europako Batzordeari esatea eskualdeetako zein tokiko agintariak kontuan har ditzala, interesdunei eta kaltetuei egin beharreko kontsultak bideratzeko, bai eta erabiltzeko ere, ahal den neurrian, haien jaioterriko hizkuntzak.
- Eskualdeetako agintariak eskumena duten gaitan, Europako Batzordearen eta eskualdeetako gobernuen artean zuzeneko elkarrizketa eskatzea, nahiz aldi berean Europar Batasuneko eskualde eta udalerri guztiak beren baitan hartzen dituzten komunikazio-bide osagarriak egon.

Irizpena: Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari buruzko Zuzentarauaren Berrikuspena:

- Ebaluazioen kalitatea hobetzea eta prozedurak sinplifikatzea, alferrikako administrazio-lanak murriztearren.
- Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa egin behar zaien proiektuentzako jendaurreko informazioko izapidea derrigorrean egin behar izatea kentzea.
- Ingurumen-eraginaren ebaluazio-prozesua egin aurretik, eskudun agintaritzak derrigorrean esku-hartu behar izatea kentzea.
- Proiektuak energia-erabileraren jasangarritasunaren alorrean zer ondorio eragiten dituen ebaluatzea, bereziki mugikortasuna kontuan hartuta.

Eusko Jaurlaritzari, gainera, 57 zuzenketa aurkeztu zizkieten beste eskualde batzuek, Euskadiren ordezkariaren babesa lortzeko eta batera aurkezteko. Horietatik, Euskadik 36 zuzenketa babestu zituen, sailek emandako argibideen arabera.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi M. Ángeles Elorzak ALDE taldearen eta Eskualdeetako Komiteko Espainiaren Ordezkaritzaren Osoko Bilkuraren aurreko bileretan ere parte hartu zuen.



102. Osoko Bilkuraren laburpena (2013ko uztailaren 2a eta 3a)

Kroaziak bezperan EBko kide bilakatu zela eta, Eskualdeetako Komitearen 102. Osoko Bilkuran, uztailan Bruselan izan zenean, 9 kide titular gehiago izan zituen Komiteak, Kroaziako eskualdeetako eta tokiko ordezkariak guztiak ere. Merezi du aipatzea beste talde politiko bat sortu zela Eskualdeen Komitean; hain zuzen, Europako Kontserbadoreen eta Erreformisten Taldea. Hala, Komite horretako bosgarren talde politikoa izango da hauekin batera: Talde Popularra, Talde Sozialista, Liberalen eta Demokraten Taldea eta Europako Aliantzaren Taldea.

Bi egun horietan, eskualdeentzako interes handiko hainbat gai eztabaidatu ziren, eta, besteak beste, hauek dira nabarmentzeko modukoak: mugaz gaindiko langileen egoera, Batasunak hondakinekiko dituen helburuak, hiri eta erkidego adimendunak eta osasun elektronikoari buruzko 2012-2020 Ekintza Plana.

Osoko Bilkura horretan, gainera, bi parte-hartzaile berezi ere izan ziren; batetik, Lituaniako Kanpo Gaietarako ministroaren ordezeko Vytautas LESKEVICIUS, EBko Lituaniaren presidentziak dituen lehentasunak azaltzeko; eta bestetik, Dacian CIOLOS Nekazaritza eta Landa Garapeneko Europako komisarioa, Nekazaritza Politika Bateratuaren etorkizunari buruzko ildo nagusiak azaltzeko.

LESKEVICIUSek esan zuen lehentasuna duela agenda bat ezartzeak, ziurtatzeko Europa sinesgarria dela, hazten ari dela eta irekia dela. Sinesgarria izango bada, ezinbestekoa da finantza-sektore egonkorra edukitzea, herritarrak behar bezala informatzea eta Europaren gobernantzan parte-hartzaile egitea. Hazkundera lortzeko, beharrezkoa da finantza-esparru bateratu eta eraginkorra edukitzea eta 2015. urtearen amaierarako energia-merkatu bakarra edukitzea; horrez gain, gaineratu zuen presazkoa dela Nekazaritza Politika Bateratua lortzeko negoziazioak amaitzea. Irekia izan dadin, berriz, Europa bakearen eta egonkortasunaren eredu gisa sustatuko dute.

Dacian CIOLOS komisarioak adierazi zuen, lehenik eta behin, oso gustura zegoela lortutako konpromiso politikoagatik, EBko nekazariarentzat oso seinale positiboa delako. Agerian utzi zuen lehendabiziko aldia dela eskualde-ikuspegia berriaz integratzen dela Nekazaritza Politika Bateratuan, zuzeneko ordainketak barne, eta hala, eskualde-eta toki-ikuspegia aintzat hartzea lortu dela. Gero, etorkizuneko erreformaren funtsezko elementu berriak azaldu zituen komisarioak, eta bereziki adierazi zuen Nekazaritza Politika Bateratuaren finantziarioa Europako Kontseiluaren eta Parlamentuaren artean erabaki dela.



Osoko Bilkura horretan, guztira, 2 ebazpen eta 10 irizpen-proiektu aurkeztu ziren. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak, guztira, 17 zuzenketa egin dizkie 4 irizpen-proiekturi: 8 zuzenketa Europako araudiek duten lurralde-eraginaren azterketari buruzko irizpenari egindakoak dira, 5 zuzenketa garraioan energia garbiak erabiltzeari buruzko irizpenari egindakoak, 3 zuzenketa hondakinei buruzko Europako politikaren azterketaren gaineko irizpenari egindakoak, eta azkenik, zuzenketa 1 hiri eta erkidego adimendunak sustatzeari buruzko irizpenari egindakoa. 17 zuzenketa horietatik, 15 onartu ziren.

Idea nagusi hauek aldarrikatu ziren:

Irizpena: Lurralde-eraginaren ebaluazioa:

- Azpimarratzea oso garrantzitsua dela aztertzea Europako arauak eskualdeetan eta udalerrietan zer eragina duten, jakin ahal izateko Europako legediak eskualdeko eta tokiko politiketan zer finantza- eta administrazio-ondorio eragiten dituen.
- Proposatzea, arau orokor modura, Europako Batzordearen lege-ekimen oro lurralde-mailan ebaluatzea beti, eta ez lurralde jakin batzuetan eragiten duten ekimenak soilik, Batzordeak xedatutako moduan.
- Batzordeari eskatzea eskualdeekin elkarlanean aritzeko, erkidegoko arauak eragiten dieten pertsoneri eta interesa duteneri egin beharreko kontsultak bideratzeko, une egokian galdera zuzenak egiteko eta haiei, ahal den neurrian, jatorrizko hizkuntzetan zuzentzeko.
- Proposatzea Kontseiluari eta estatu kideei lurraldeetako eraginaren ebaluazioak ere egiteko, Europako Batzordeak eta Parlamentuak egiten dituzten moduan.
- Eskatzea Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aintzat har dezatela Eskualdeetako Komitea, eta kontuan har dezatela zer ondorio eragiten dituzten lurraldeetan Europako araudiari zuzenketak egiten dizkietenean.
- Sistematikoki bultzatzea EBren legediaren *ex post* ebakuazioak egin daitezzen, erregulazio adimentsuko bitarteko eraginkor gisa.

Irizpena: Europak hondakinen inguruan dituen helburuak berrikustea:

- Kontuan izanik egun ez direla betetzen European ezarritako birziklatze- eta balorizazio-helburuak, beste helburu batzuk ezarri aurretik, eskatzea azter dezatela zergatik ez diren betetzen.
- European harmonizatzea konpostaren kalitate-baldintzak eta ezartzea kalitatea bermatzeko sistemak, ingurumenaren babes-maila egokia bermatzearen.

Irizpena: Hiri eta erkidego adimendunak. Berrikuntzarako Europako Elkartea:

- Nabarmentzea energia-zerbitzuetako enpresek (ESCOS) duten funtsezko zeregina.

Irizpena: Energia garbia garraiorako:

- Bultzatzea eskualdeko eta tokiko politikak, garraioan ordezeko erregaiak gara daitezen.
- Akordioak lortzea gasolina-zerbitzuguneen tokiko operadoreekin, erregai horien erabilera sustatzeko.
- Hirugarren estatuen petrolioarekiko mendekotasuna eta gas naturalarekikoa maila berean jartzen dituen irizpenari aurka egitea.
- Azpimarratzea eskualdeek parte hartu behar dutela garraio-politikari buruzko estatu-estrategien definizioan zein Europako ekimenetan, energia jasangarriko ekintza-planak bultzatzearen.
- Gutxieneko mekanismoak aurreikustea, estatu kideen artean dauden desberdintasunen ondorioz sortzen den muga-efektua eragozteko edo arintzeko; esaterako, salgaien garraiorako erregai alternatiboak erabiltzen dituztenentzat igarobideak lehenestea, EBko funtsekin finantzatuko direnak.

Eusko Jaurlaritzari, gainera, 56 zuzenketa aurkeztu zizkioten beste eskualde batzuek, Euskadiren ordezkariaren babesa lortzeko eta batera aurkezteko. Horietatik, Euskadik 32 zuzenketa babestu zituen, Gobernuako sailek emandako argibideei jarraikiz.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi M. Ángeles Elorzak ALDE taldearen eta Eskualdeetako Komiteko Espainiaren Ordezkaritzaren Osoko Bilkuraren aurreko bileretan ere parte hartu zuen.



Elorza andrea Eskualdeetako Komitearen Osoko Bilkuran



103. Osoko Bilkuraren laburpena (urriaren 7tik 9ra)

Urriaren 7an, 8an eta 9an Bruselan izandako 103. Osoko Bilkuran, urtero urrian izaten diren osoko bilkuretan gertatu ohi den bezala, lehendabiziko egunean *Open Days* jardunaldia jarri zen abian; hau da, Ateak Zabaltzeko Jardunaldia hasi zen. Hau izan zen 2013ko leloa: «Europako eskualdeak eta hiriak 2020. urterantz». Gero, 2014-2020 eperako kohesio-politikako programak aplikatzeari buruzko eztabaidari ekin zioten.

OPEN DAYS jardunaldien egunetan, elkartzeko akordioei zein programa operatiboari buruz negoziatzen ari ziren, 2014-2020 programazio-epe berriaren azken prestakuntza-lanetan, hain zuzen. EBko ordezkari goren bertan zela, irekiera-saioaren bidez, etorkizuneko epe berrira bideratu zen eztabaida, eskualde-ikuspegia oinarri hartuta.

VALCÁRCEL presidentek eman zion hasiera *OPEN DAYS* jardunaldien 11. edizioari, eta ohartarazi zuen, halaber, presazkoa dela 2014-2020 eperako EBren aurrekontua onartzea, bai eta Egitura Funtsekin hazkunderako eta enplegurako oinarrizko eremuetan inbertitzeko arau berriak onartzea ere, Europa 2020 Estrategian adierazten den bezala.

Hahn komisarioak, *OPEN DAYS* jardunaldien antolatzaileetako bat den bezala, ongi etorria egin zien parte-hartzaileei Europako Batzordearen izenean. Gero, nabarmendu zuen beharrezkoa dela urte anitzeko finantza-esparruari buruzko akordioa ahalik eta lasterren lortzea Europako Parlamentuaren laguntzarekin, elkartzeko akordioak eta programa operatibo berriak 2014ko urtearen hasieran abian jartzeko.

Honako hauek egin zituzten mintzaldi nagusiak:

- José Manuel DURÃO BARROSO Europako Batzordeko presidentek
- Martin SCHUTZ Europako Parlamentuko presidentek (bideo bidezko mezua)

José Manuel DURÃO BARROSOk, inaugurazio-ekitaldian, bereziki adierazi zuen Europa denok elkar hartuta gobernatu behar dela; hau da, eskualdeek ere parte hartzen dutela bere etorkizunari buruzko eztabaidan. Gero, adierazi zuen beharrezkoa dela hurrengo urte anitzeko finantza-esparruaren gastu-planari buruzko erabakia berehala hartzea, inbertitzaileek konfiantza handiagoa izan dezaten Europako ekonomian, horrek eragingo baitu Europaren lehiakortasuna sustatzeko gehiago inbertitzea.

DURÃO BARROSOk amaieran esan zuen bateratasuna eta elkartasuna bultzatu behar dutela eskualdeek eta hiriek, etorkizun hobea eraikitzearen. Adierazi zuen, halaber, Europak beti izan duela xede gizarte-, ekonomia- eta lurralde-kohesioa, eta



Eskualdeen Komiteak 20. urteurrena beteko duenez 2014an, eskatu zuen ahaleginak egiten jarraitzeko Europako Komitearen eta eskualdeen artean lankidetzeta eta konplizitatea sustatzeko.

Martin SCHUTZ Europako Parlamentuko presidentek bideo bidezko mezu batean adierazi zuen bat egiten zuela tokiko eta eskualdeetako arduradunekin, aurre egin behar dietelako aurrekontuen murrizketari eta oztopoei, gero eta ugariagoak. Herritar batzuek EBrekiko konfiantza galtzen hasiak dira eta hainbat estatutako gobernu saiatu dira, egoera ekonomikoa latza delako, beren erantzukizunak Europari transferitzen, baina, hala ere, Europako Parlamentuak ahal duen guztia egiten du eskualdeei eta hiriei laguntzeko, globalizazioaren arazoei aurre egin diezaioten.

Halaber, SCHULZ presidentek adierazi du Europako Parlamentuak behin eta berriz esan duela aurrekontua erabiltzean malguago jokatu behar dela, eta zenbait gaitan lagundu duela; esaterako, eskualdeetako funtsen erabilera malguago egiten eta sinplifikatzen. Amaieran, nabarmendu du oso garrantzitsuak direla funtsezko politika batzuk; esaterako, gazteen enplegua, ikerketako politikak eta Erasmus programa guztiontzat. Horrez gain, enpresa txiki eta ertainei gehiago laguntzeko eskatu zuen.

Gero, 2014-2020 eperako kohesio-politikako programak aplikatzeari buruzko eztabaidari ekin zioten. Honako hauek hartu zuten parte eztabaidan:

- Ramón Luis VALCÁRCEL SISO Eskualdeetako Komitearen presidentek
- Johannes HAHN Eskualde Politikako Europako komisarioak

Ramón Luis VALCÁRCEL SISO Eskualdeetako Komitearen presidentek adierazi zuen tokiko erakundeak kezkatuta daudela, etorkizunean aplikatu beharko duten hurrengo kohesio-politikaren ziurgabetasuna dela eta. VALCÁRCEL presidentearen ustez, badira alde onak: egitura-funtsak eraginkorragoak dira eta hiri-ikuspegia sendotu egin da legediaren bidez. Eraginkortasunari dagokionez, eskualde berritzaileen jardura esperimentalak zer errendimendu izan duten neurtzera bideratutako neurriekin bat dator. Azken batean, eskualdeei hobeto gastatzen laguntzea da xedea.

Bestalde, esan du elkartzeko akordioak eta programa operatiboak aldatu egin daitezkeela, Europako Batzordeak makroekonomiari buruz ematen dituen gomendioen arabera. Gaineratu du, egonkortasun makroekonomikoa garrantzitsua dela, baina, hala ere, eskualdeak ezin litezkeela izan estatu kideek makroekonomia-baldintzak ez betetzearen erantzuleak. Amaieran esan du kohesio-politika ez dela iraganeko politika, baizik eta etorkizunean inbertitzeko politika eta Europa 2000 Estrategiak aurrera egiteko ezinbesteko bitarteko bat.



Johannes HAHN Eskualdeetako Politikarako Europako komisarioak esan du makroekonomiaren kontua ez dela oraindik argitu. Bere ustez, laster lortuko da akordioen bat, bai eta beste alor hauetan ere: finantziario-tasak, aurrerakinak eta errendimendu-erreserba. Adierazi du EBk harro egoteko moduko arrazoiak dituela, azken 7 urteetan finantza-esparru bera baitu, eta horrek esan nahi duela funtsak ziurra direla eta funts horiek nola erabiliko diren ere ziurra dela. Horrek inbertsio pribatua ekarriko luke datozen urteetan, Europako zein estatu kideetako eskualdeetan; eta argitu du, horren harira, horregatik nahi zuela ahalik eta lasterren sinatzea akordioa.

Urte anitzeko finantza-esparruari dagokionez, azkenik, HAHN presidentek esan du oraindik ez dagoela akordiorik, baina negoziazioak amaitu direla, eta, bere ustez, 2014ko urrirako lortuko dela.

Gai horrez gain, Osoko Bilkuran, eskualdeentzako interes handiko hainbat gai eztabaidatu ziren, zeinetan, besteak beste, hauek dira nabarmentzeko modukoak: gastua hobetzeko gomendioa, landa-eremuen garapen jasangarria, eskualdeetako zein tokiko erakundeek hidrokarburu ez-konbentzionaleri buruz duten ikuspegia, trenbideei buruzko 4. paketea, plastiko-hondakinak ingurumenean eta European automobilgintza lehiakorra eta jasangarria izateko ekintza-plana.

Eusko Jaurlaritzak, guztira, 15 zuzenketa egin zizkien 3 irizpeni eta haietako 4 onartu ziren. Ideia nagusi hauek aldarrikatu zituen:

Irizpena: Tokiko zein eskualdeetako erakundeek eskisto-gasari zein -petrolioari (hidrokarburu ez-konbentzionaleri) buruz duten ikuspegia

Eusko Jaurlaritzak:

- Azaldu du EBk energia eskuragarria, segurua eta baita lehiakorra behar duela. Bere ustez, hidrokarburu ez-konbentzionalak (gas ez-konbentzionala, batik bat) konbentzionalak bezain jasangarriak dira, eta gaitasuna dute energiak hornitzeko epe ertain-luzera, karbono-arrasto txikiagoko energiak modu seguruan eta ekonomikoki modu jasangarrian garatzen diren bitartean.
- Onartu du haustura hidraulikoa industria-prozesu bat dela, eta, giza jarduera askotan (industria-alorrekoak izan ala ez) gertatzen den bezala, kaltegabea izango bada, nahitaezkoa dela jarduera-jakin batzuk zorrotz errespetatzea (jardunbide egokiak); horrenbestez, administrazio publikoei eskatu die zaintzeko haustura hidraulikoko lanetan aritzen diren operadoreek betetzen dituztela beti jardunbide egokiak prozesu oso-osoan; hau da, zulatzean, hodiak jartzean, zementatzean eta haustean.



- Hidrokarbuero ez-konbentzionalen ustiapenean eta ekoizpenean aplikatzekoak diren administrazio-prozesuen esparruan tokiko zein eskualdeetako erakundeek ematen dituzten iritziak aztertzeke eskatu die administrazio-organo eskudunei.
- Nabarmen adierazi du ez dela arlo horretako ikerketa eten behar.
- Europari eskatu dio ikerketa egokia egiteko, jakin eta ebaluatu ahal izateko zer baliabide atera daitezkeen Europako herrialdeetako formazio geologiko bakoitzetik.
- Bere ustez, nahitaezkoa da zulaketa eta haustura hidraulikoaren prozesuak irauten duen denboran estatu kideetako agintariek industriaren alorreko jardunbide egokiak zorrotz errespetatzen direla zaindu egin beharko dute, aipatutako prozesuarekin zerikusia duten lan guztietan; izan ere, helburua da kutsadura-mota oro eragozte, putzuaren barruan zein lurrazalean. Eta horrez gain, zaindu egin beharko dute lanak bukatzen direnean, lurrak lehen zeuden bezala geratzen direla.
- Eskatu du behar bezala ebaluatzeke zer gaitasun izan lezakeen benetan gas ez-konbentzionalak Europan; izan ere, datu hori oso garrantzitsua izan liteke energiaren eta politikaren alorrean plangintzaren bat egin nahi izanez gero. Hau izango da aurrerantzean egingo diren plangintza guztien xede nagusia: ziurtatzea etorkizuneko energia-iturrietarako trantsizioa (energia-iturri ekonomikoki lehiakorrak, eta ahalik eta karbono-arrasto txikien dutenak) egitean EBk ez duela inoiz lehiakortasuna galduko beste eskualde geopolitikoekiko, eta, gainera, ziurtatzea orain baino lehiakorragoa izango dela.
- Zulaketa-eremuetatik hurbil bizi diren herritarren osasuna aztertzeari dagokionez, esan du bete egin behar dela estatu kide bakoitzak beste industria-jarduera batzuetarako ezarrita dagoena.

Irizpena: Trenbideei buruzko 4. paketea

- Eusko Jaurlaritzaren ustez, ezinbestekoa da tokiko zein eskualdeetako erakundeek parte hartzea koordinazio-komitean.



Irizpena: Gastua hobetzeko gomendioa

- Adierazi du eskualdeetako zein tokiko agintarien egitekoa ez dela soilik izan behar goragoko beste maila batzuetakoek planifikatutako eta programatutako esku-hartzeak behar bezala gauzatzea, eta parte hartu beharko luketela plangintza eta programazio horretan.
- Eskatu du gehiago sinplifikatzeko, eta, horrez gain, laguntza-erregimenek bete behar dituzten baldintzak -aurretik onartzea edo jakinaraztea- orokorrak izatea (edo Europako funtsak ez erabiltzea horretarako, funtsak beti publikoak baitira).

Eusko Jaurlaritzari, gainera, 193 zuzenketa aurkeztu zizkioten beste eskualde batzuek Euskadiren ordezkariaren babesa lortzeko eta batera aurkezteko. Haietako 85 onartu ziren, Gobernuko sailek emandako argibideei jarraikiz.

104. Osoko Bilkuraren laburpena (azaroaren 28tik 29ra)

Eskualdeetako Komitearen 104. Osoko Bilkura 2013ko azaroan izan zen Bruselan. Saioan interes handiko hainbat gai eztabaidatu ziren; besteak beste, hauek dira nabarmentzeko modukoak: enpleguko zerbitzu publikoen arteko lankidetzak, EBko elkartasun-funtsa; ijitoen integrazioarako estrategia, EBko etorkizuneko portu-politikarako esparrua, eta arrantzarako eta akuikulturarako estatu-laguntzak.

Urteko azken Osoko Bilkuran, nabarmentzeko moduko bi pertsona hauek hartu zuten parte:

- **Danuta HUBNER** Europako Parlamentuko diputatu eta Eskualde Garapenerako Batzordeko presidentea; 2014-2020 epeko kohesio-paketeari buruzko erakundeen arteko negoziazioei buruzko azalpenak eman zituen.
- **Maros SEFCOVIC** Batzordeko presidenteorde eta Erakundeen arteko Harremanen eta Administrazioaren komisarioak; Europako Batzordearen lan-egitasmoari buruz aritu zen, bai eta Batasunaren etorkizunaren eztabaidari buruz ere.

HUBNER andreak adierazi zuen kohesio-politikaren alorrean lehendabiziko aldia dela Europako Parlamentua legegile bilakatu dela, eta Kontseiluaren pareko dela. Lehendabizi, adierazi zuen oso emankorra izan zela Eskualdeetako Komitearekiko lankidetzak. Gero, kohesio-politikaren paketeari buruzko akordioaren emaitzak eta erreformaren alderdi nagusiak aurkeztu zituen. Azaldu zuen funts guztietarako erregelamendu-esparru bakarra ezartzea lortu izana izan dela iraultzaileena. Izan ere, horrela, presioa egiten da kohesio-bitarteko guztiak hobeto integratzeko eta sinergiak hobetzeko.



Makroekonomia-baldintzari buruzko gai eztabaidagarriari dagokionez -Europako Parlamentua haren kontra dagoela adierazi du-, azaldu zuen akordio berriak zehapen-mekanismo hori hartzen duela bere baitan, nazio-mailan gehiegizko defizita edo makroekonomia-desoreka dagoen kasuetarako, baina Batzordeak zehapenak proposatu aurretik, Europako Parlamentua hartu behar duela kontuan.

Amaieran, esan zuen elkartzeko akordioei esker, eskualdeei eta udalerriei egiteko pribilegiatua eman zaiela lehendabizikoz kohesio-politikaren alorrean, eta Europako Batzordeak epe laburrera jarrera-kode bat prestatzea espero duela, akordio horiek malgutasunez baliatu ahal izateko.

Eta **Maros SEFCOVIC** komisarioak, berriz, legegintza europarraren azken urterako, 2014rako, Batzordeak zer lehentasun dituen azaldu zuen. Adierazi zuen 2014an erakundeak berriro egingo direla, Europako hauteskunderen ondorioz; horrez gain, bereziki adierazi zuen ezinbestekoa dela EBrekiko konfiantza berreskuratzea, eta horretarako, hazkundera eragingo duten neurriak ezarri behar direla eta hiritartasun europarra garatu behar dela.

Komisarioak 2014. urterako bitarteko berria azaldu zuen: REFIT programa (Regulatory Fitness). Hau du xede programa horrek: ziurtatzea Europako legedia sistematikoki berrikusten dela eta kontrolatzea lurraldeetan zer eragin duen, gizartearen eta ekonomiaren alorrean zein ingurumenaren alorrean.

Gainera, esan zuen subsidiarotasuna behar bezala kontuan hartzen jarraitzeko konpromisoari eusten diola Komisioak; horrez gain, Eskualdeetako Komisioaren Jarraipen Sareak alor horretan egindako lana goraiatu zuen. Bestalde, legegintza-prozesuan Europako Parlamentuak eta estatuetakako parlamentuek indar handiagoa izatearen alde agertu zen, eta legegintza aurreko fasean gehiago par har dezaten eskatu zien.

Eusko Jaurlaritzak, guztira, 4 zuzenketa egin zizkien bi irizpeni eta haietatik³ onartu ziren. Ideia nagusi hauekaldarrikatu zituen:

Irizpena: Makroeskualde mailako estrategien balio erantsia

- Eusko Jaurlaritzak bereziki adierazi du makroeskualdearen kontzeptua eta itsas estrategia bateratuaren kontzeptua bat bera direla. Bata zein bestea Komisioak garatu ditu Europako Kontseiluaren aginduz, eta helburu berberak dituzte. Garrantzitsutzat jo da Eskualdeetako Komisioak gertaera hori aipatzea, makroeskualdeen balio erantsiari buruzko irizpenean.

Irizpena: Estatu-laguntzak aireportuei eta aire-konpainiei

- Proposatzen du berriazko esparru bat ezartzea aireportu txikiei edo mikroaireportuei egotz lekizkieken laguntzak ezartzeko, esparru bakarra eduki ahal izateko EBren baitan.
- Azpiegitura intermodalak susta daitezela bultzatzen du; hain zuzen, eskualde mailako egitura logistikoen baitan azpiegitura intermodalak sartzan dituzten eskualdeetako aireportuetakoak.
- Europako eskualde mugakideen arteko lankidetzaren politikoa proposatzen du, estatu bateko baino gehiagoko eskualdeak hartzen dituzten eskualde-izaerako aireportuak koordinatzea eta sortzea oinarri hartuta.

Eusko Jaurlaritzari, gainera, 120 zuzenketa aurkeztu zizkieten beste eskualde batzuek Euskadiren ordezkariaren babesa lortzeko eta batera aurkezteko. Horietako 68 baino ez ziren onartu, Gobernuak sailek emandako argibideei jarraikiz.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi M. Ángeles ELORZA ZUBIRIAK ALDE taldearen eta Eskualdeetako Komiteko Espainiaren Ordezkaritzaren Osoko Bilkuraren aurreko bileretan ere parte hartu zuen.



Eztabaida Osoko Bilkuran



AHOLKULARITZA-LANA

1. Iritzi-eskaerak jaso dituzten Eusko Jaurlaritzako sailen eta erakunde eta haien jarrera

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak **46 aldiz** eskatu du Eusko Jaurlaritzako sailen iritzia Europako denetarikoa arauak aztertzen dituzten edo Europako gaur egungo gaietara buruz eskualdeek jarrera politikoa ezartzen duten Eskualdeetako Komitearen **41 agiri diela eta**.

Taula honetan ikusten da iritzi-eskaeren **banaketa, Osoko Bilkuren arabera**:

Osoko Bilkuraren zk.	Data		Iritzi-eskaeren kopurua
99	2013/01/31	2013/02/01	---
100	2013/04/11	2013/04/12	8
101	2013/05/30	2013/05/31	6
102	2013/07/03	2013/07/04	9
103	2013/10/08	2013/10/09	12
104	2013/11/28	2013/11/29	11

Datu horiek eta aurreko urteko (2012) datuak alderatuta, agerian dago 2013an iritzi-eskaera gutxiago egin zitzazkiela Eusko Jaurlaritzako sailei: 2012.urtean, guztira, 54 iritzi-eskaera jaso zituzten, eta 2013an, berriz, 46. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak zirela eta, Eusko Jaurlaritza berriko ordezkariak ezin izan zuten parte hartu Eskualdeetako Komitearen urtarrileko Osoko Bilkuran, Eskualdeetako Komiteko kide izendatzeko izapideak 2 hilabete baino gehiagoko denbora-tartea eskatzen baitu.

1.1. Sailak eta landutako gaiak

Irizpenetan askotariko gaiak biltzen direnez, zehatz-mehatz adierazi behar da Eusko Jaurlaritzako zer saili dagokion gai bakoitza. Taula honetan, kontsulta egin zaien sailak eta 2013an landutako gaiak ageri dira.



Erakundeak / Sailak	Gaiak
Lehendakaritza	Europako integrazioa eta erakundeak, Lurraldeen arteko lankidetzak
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	Energia, Lehiakortasuna eta Industria-politika, Berrikuntza, Nekazaritza, Enpresa-politika, laguntza publikoak, Telekomunikazioak
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	Hezkuntza, Kirola
Administrazio publikoa eta Justizia	Europaren integrazioa eta erakundeak, kontrola eta kalitatea
Ingurumena eta Lurralde Politika	Garraioa, Ingurumena, Portuak, Laguntza publikoak, Lurralde-antolamendua
Ogasuna eta Finantzak	Eskualde-politika, Kontratazio publikoa
Segurtasuna	Barne-arazoak
Enplegua eta Gizarte Politikak	Enplegua, gutxiengoak
EMAKUNDE	Gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna

1.2. Kontsultatutako sailak eta haiek emandako erantzunak

2013an, guztira, 46 iritzi-eskaera egin zaizkie sailei eta 41 erantzun jaso dira. Horrenbestez, sailen erantzun-maila oso ona izan da (% 89) eta aurreko urtekoa baino hobea (% 81); izan ere, 54 iritzi-eskaera egin eta 44 erantzun jaso ziren.

Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Komitean duen partaidetza xeheago aztertzeko, hona hemen kontsultatutako sailen eta haien erantzunen zerrenda.

Erakundeak / Sailak	Bidalitako eskaerak	Jasotako erantzunak
Lehendakaritza	8	8
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	17	14
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	2	1
Administrazio publikoa eta Justizia	3	3



Ingurumena eta Lurralde Politika	7	7
Ogasuna eta Finantzak	3	2
Segurtasuna	1	1
Enplegua eta Gizarte Politikak	4	4
EMAKUNDE	1	1
Guztira	46	41


1.3. Sailek emandako erantzun-motak

Iritzi-eskaerari erantzuteko orduan, sailek bi erantzun-mota eman ditzakete: irizpenarekiko adostasuna, edo irizpenari zuzenketak aurkeztea. Jasotako 41 erantzunak honelakoak izan dira:

- **Adostasuneko 28** erantzun; hau da, jasotako erantzun guztien % **68**.
- **13** erantzun **zuzenketekin**; hau da, sailek bidalitako erantzun guztien % **32**.

Sailek emandako erantzun-motaren bilakaera 2012. eta 2013. urteetan

Sailek emandako erantzun-motaren bilakaera 2012. eta 2013. urteetan



Argi eta garbi ikusten denez, gehiago dira Eusko Jaurlaritzaren sailen adostasuneko erantzunak, zuzenketak proposatzen dituzten erantzunak baino. Aurreko urteko (2012) datuekin alderatuta, adostasuneko erantzunen kopurua nabarmen handiagoa da (2012an % 44 eta 2013an % 68); hala ere, gero ikusiko dugunez, zuzenketen kopurua handixeagoa da. Horrek esan nahi du 2013. urtean, gure autonomia-erkidegoak proposamena aurkezteko premia eragin duten gai gutxiago izan direla; hala ere, parte hartu duenean, zuzenketa-kopurua handiagoa izan da.



2. Jarreraren defentsa: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak

2.1. Idatzitako, aurkeztutako eta onartutako zuzenketak

2013an, Eusko Jaurlaritzako sailek **guztira 76 zuzenketa** egin dizkiete Eskualdeetako Komitearen irizpen-proiektuei. 76 zuzenketa horietatik, **51 zuzenketak** aurkezteko behar adina babes lortu zituzten **eta 34 onartu egin ziren**.


Ondoko grafikoan ageri denez, denbora-tarte honetan egindako zuzenketa-kopurua txikiagoa da aurreko denbora-tartean egindakoa baino; hala ere, aurkeztutako zuzenketa-kopurua handiagoa da. Horrek esan nahi du Eskualdeetako Komiteko kide diren beste eskualde batzuen babes gehiago lortu direla.

Gogoan izan behar da Osoko Bilkuran zuzenketa bat aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa dela Eskualdeetako Komiteko 6 eskualderen edo udalerriren sinadura edukitzea.

Bestalde, Osoko Bilkuran onartutako zuzenketa-kopurua txikiagoa da, aurreko denbora-tartean onartutakoen aldean. 2012an % 43 onartu ziren eta 2013an, berriz, % 34.

Grafiko honek xehe erakusten du 2012an eta 2013an izandako zuzenketen kopurua.

2012an eta 2013an idatzi, aurkeztu eta onartutako zuzenketen kopuruaren bilakaera





3. Beste eskualdeek egindako zuzenketen aurkezpen bateratua

Eusko Jaurlaritzak bere zuzenketak beste eskualde batzuei helarazi dizkien moduan babesa eskuratzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak aurkezteko babes bila dabiltzan beste eskualde batzuen zuzenketak jasotzen ditu, taula honetan ikusten denez.

Zuzenketa bat aurkezteko, ezinbestekoa da Eskualdeetako Komitearen kide diren 5 eskualde edo udalerriren sinadura lortzea. 2013. urtean, eskualdeek eta udalerriek, guztira, **458 zuzenketa** bidali zizkiguten, gure babesa lortzeko eta elkarrekin aurkezteko. Haietako **247 babestu zituen Eusko Jaurlaritzak**. Hau da, jasotako zuzenketen % **54 ingururi eman ziela babesa Eusko Jaurlaritzak**.

Orain zehaztuko ditugu beste lurraldeengatik jasotako eta sustatutako zuzenketak:

Babesa eskatu zuen eskualdea	Jasotako zuzenketen kopurua	Euskadik babesa emandako zuzenketen kopurua
Andaluzia Esnea ekoizteko kuotak, 2; genero-oreka enpresetan, 9; tabakoa, 7; desgaitasunak dituztenen kirola eta aisia, 4	22	15
Aragoi. Ingurumenaren alorreko ekintza-programa, 5; ingurumen-eraginaren ebaluazioa, 1; gazteen enplegua, 2; genero-oreka enpresetan, 1; hiri eta erkidego adimendunak, 4; energia garbia, 7; mugaz gaindiko langileak, 1; hidrokarburu ez-konbentzionalak, 17	38	27
Asturias Lurralde-eraginaren ebaluazioa, 2; hiri eta erkidego adimendunak, 2; gizarte-alorreko inbertsioa, 5; arrantzarako eta akuikulturarako laguntzak, 1; makroeskualdeen estrategiak, 1; itsas plangintza, 3; Batzordearen legegintza-arloko programa, 1	15	10
Balear Uharteak Energia garbia, 1; energiaren barne-merkatua, 5; hidrokarburu ez-konbentzionalak, 1; automobilgintza, 2; makroeskualdeen estrategiak, 1	10	7



<p>Kanariak</p> <p>Ikerketa eta berrikuntza indartzea, 1; hezkuntzaren alorreko kontzeptu berria, 2; Europako industria sendoagoa, 2; energia garbia, 1; energiaren barne-merkatua, 4; tabakoa, 7; elkartasun-funtsa, 1; portuen alorreko politika 2; aireportuentzako laguntzak, 5</p>	25	17
<p>Gaztela eta Leon</p> <p>Ikerketa eta berrikuntza indartzea, 2; premia handia dutenentzako laguntza-funtsa, 2; esnea ekoizteko kuotak, 2; ingurumen-eraginaren ebaluazioa, 4; energia garbia, 2; energiaren barne-merkatua, 4; EBren aurrekontua, 1; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 2; makroeskualdeen estrategia, 5; Batzordearen legegintza-arloko programa, 1</p>	25	16
<p>Gaztela-Mantxa</p> <p>Premia handia dutenentzako laguntza-funtsa, 2; hezkuntzaren alorreko kontzeptu berria, 2; Europako industria sendoagoa, 1; ingurumen-eraginaren ebaluazioa, 1; gazteen enplegua, 6; genero-oreka enpresetan, 2; lurralde-eraginaren ebaluazioa, 2; energiaren barne-merkatua, 1; plastiko-hondakinak, 2; gastua hobetzeko politika, 1; hidrokarburu ez-konbentzionalak, 1; Europa barneko telekomunikazio-sarea, 2; pentsuen gaineko kontrol ofizialak, 2; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 4; elkartasun-funtsa, 1; hondakinei buruzko politikaren berrikuspena, 1</p>	31	21
<p>Katalunia</p> <p>Landa-eremuen garapena, 1; aireportuetarako estatu-laguntzak, 1; makroeskualdeen estrategiak, 3</p>	5	3
<p>Extremadura</p> <p>Interneteko datuen biltegia, 2; araudiaren egokitzapena, 5; banda zabala, 2; energia garbia, 1; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 9; industria siderurgikoa, 3; Batzordearen legegintza-arloko programa, 4</p>	26	8
<p>Galizia</p> <p>Esnea ekoizteko kuotak, 1; gazteen enplegua, 1; hondakinei buruzko politikaren berrikuspena, 2; automobilgintza, 8; gizarte-alorreko inbertsioa, 6; plastiko-hondakinak, 3; gastua hobetzeko politika, 1; nekazaritzaren garapen jasangarriari buruzko zuzentarauak, 10; arrantzarako eta</p>	53	40



akuikulturarako laguntzak, 6; pentsuen gaineko kontrol ofizialak, 8; makroeskualdeen estrategia, 1; elkartasun-funtsa, 1; trenbideei buruzko paketea, 5		
Errioxa Hezkuntzaren alorreko kontzeptu berria, 10; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 6; ijitoen integrazioa, 1.	17	8
Madril Hezkuntzaren alorreko kontzeptu berria, 2; gazteen enplegua, 1; genero-oreka enpreetan, 5; plastiko-hondakinak, 2; arrantzarako eta akuikulturarako laguntzak, 3; pentsuen gaineko kontrol ofizialak, 2; gizarte-alorreko inbertsioa, 2	17	3
Valentziako Erkidegoa Ingurumen-eraginaren ebaluazioa, 2; azpiegitura berdea, 15; landa-eremuen garapena, 3; Batzordearen legegintza-arloko programa, 1	21	3
Hospitales de Llobregat Ingurumen-eraginaren ebaluazioa, 7	7	0
BESTE ESKUALDE BATZUK		
- Madeira: Aieroportuetarako laguntzak, 3; arrantzar eta akuikultura, 1; elkartasun-funtsa, 2; portuen alorreko politika, 2	9	0
- Eskozia: EBren deszentralizazioa, 4	4	4
- Houten hiria (NL): Plastiko-hondakinak, 8	8	0
- Harguita County Council (PL): Epe luzerako finantzaketa, 4	4	0
- Pomorskie eskualdea (PL): Hidrokarburo ez-konbentzionalak, 50	50	49
ALDE talde politikoa osatzen duten eskualdeak Gizarte-alorreko paketeko inbertsioa, 13; ekintzailtzako ekintza-plana, 11; Europako ekonomiaren finantzaketa, 8; tren-eremu bakarra, 1; Europa barneko telekomunikazio-sarea, 17; aireportuetarako laguntzak, 2; kirola, aisia eta desgaitasunak dituzten pertsonak, 3; EBren elkartasun-funtsa, 2; industria siderurgiko jasangarria, 1; ijitoen integrazioa, 13	71	16
Guztira	458	247




Zuzenketa horiei babeserik emateko orduan, Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak sailletako zuzendarien eta teknikari espezializatuen laguntza izan du, bai eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko teknikarien laguntza ere. Horiek guztiek beren iritzi arrazoitua eman dute, Eusko Jaurlaritzak gaiari buruz duen politika kontuan hartuta, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak balorazio hori helarazten die Eskualdeetako Komiteko euskal ordezkariaren sinadura eskatu diguten eskualdeei.

Kontuan hartuta beste eskualdeek egindako zuzenketa-kopurua handia dela, lan handia eskatzen dute bai azterketa prozesua egiteak, bai hala badagokio, babeserik emateak. Eginkizun hori ezinbestekoa da, zuzenketa bateratuak aurkezteko aukera ematen duelako eta Euskadiren interesak Europan ezagutaraztea eta aintzat hartzea sustatzen duelako.

Taulan ikustenenez, beste eskualde batzuetako zenbait zuzenketari ez diogu babeserik eman, eta horren arrazoia azaldu nahi dugu. Arrazoi nagusiak oinarrizko gaiekin du zerikusia: Jaurlaritzako sailek emandako irizpideekin eta argibideekin ez zetozen bat babeserik eman ez diegun zuzenketak. Zuzenketa-mota horiek babestea inkoherentzia bat izango litzateke Eusko Jaurlaritzako politiken aplikazioari eta Euskadiko interesen defentsari dagokienez. Beste zenbait kasutan, aldaketa garrantzitsurik eragiten ez zuten hizkuntzaren ñabardurak baino ez zirelako ez zaie babeserik eman zuzenketari. Termino batzuen ordezkari beste batzuk erabiltzea nahi zen eta batzuetan itzulpen-arazoekin lotuta zeuden. Eta azkenik, beste zuzenketa batzuk ez ziren babestu epe kanpo aurkeztu zirelako edo epea amaitzen zen egun berean jaso genituelako, epe barruan aztertzeke eta erantzuteke denborarik izan gabe.

Beste eskualde batzuen zuzenketari emandako babesaren bilakaera 2012. eta 2013. urteetan



Aurreko grafikoari erreparatuz gero, agerian dago 2013an beste eskualde batzuek helarazitako zuzenketa-kopurua txikiagoa dela 2012an jasotakoan aldean; eta Eusko Jaurlaritzak babestutakoak, berriz, proportzioan, handiagoa dela.

2013. urtean, % 45 babestu da, eta 2012an, berriz, % 41.



4. Gai nagusien inguruko kontsulta espezifikoak

2009an Eskualdeetako Komiteak onartutako "Eginkizunen Adierazpenak" dioen moduan, Komitearen eginkizuna eskualdeetako eta tokietako agintaritzak Erkidegoko prozesu erabakitzailean inplikatzeko da, bai eta gure herritarren partaidetza hobetzea ere.

Horregatik, irizpenak egiteaz gain, Komiteak kontsultak antolatzen ditu, gehienetan Europako Batzordearekin elkarlanean arituz, eskualdeek eta udalerriek EBko ekimen politiko garrantzitsuenei buruzko iritzia eta EBko lurraldeetan abian dauden neurrien garapenari buruzko informazioa biltzeko.

Galdetegiak baliagarriak dira, gainera, Europako hainbat tokitan abian dauden egoera praktikoen adibide jakinak aztertzeko. Hori oso erabilgarria da EBko araudi berriak zer ikuspegi izan behar duen zehazteko, bai eta araudi horrek Europako Batasuneko lurraldeetan nola eragin dezakeen jakiteko ere.

2012ko udazkenean, EKak 2020 Estrategiaren eta horren ekimen enblematikoen ebaluazio integralerako prozesua ezagutarazi zuen, ekimen enblematiko bakoitzerako biltzar zehatz batzuen eta EBko tokietako zein eskualdeetako agintariei egindako kontsulten bidez, tokietako eta eskualdeetako erakundeen iritzia biltzeko. Horrekin, eskualdeetako zein tokietako ikuspuntutik, gaur egun, ekimenak Europa 2020ren helburuak betetzeko oraindik baliozkoak ote diren, zein inplementazio mailan dauden eskualdeetan, kudeaketa- eta banaketa-hutsuneak non dauden eta hainbat ekimen finantzatzeko erabilgarri dauden funtsak zeintzuk diren aztertzea da helburua.

Horrela, ekimen enblematiko bakoitzari eskainitako biltzar bakoitza Europako Batzordeko eta Europako Parlamentuko ordezkariak zein bestelako interesdun garrantzitsuek euren sailen inguruko azken aurrerapenak aurkezteko aukera izan zen. Ekitaldi horietako programek kontsulten emaitza orokorrak "bizitza errealeko" adibideekin islatzeko aukera eman zuten lan saioak eta eztabaidak hartu zituzten barne.

Prozesu horren ondorioz, 2013an, EKak aktiboki lagundu du Europa 2020 Estrategiaren berrazterketan, eskualdeko ikuspuntutik, Adierazpen Politikoaren bidez, 2014ko martxoan, Atenasen Europako Hirien eta Eskualdeen Gailurrean aurkeztutako Estrategiaren erdiko berrazterketaren Txostenarekin batera. Bi dokumentuak 2014 Udaberriko Europako Kontseiluari zein EBko Parlamentu eta Batzorde berriei zuzenduko ziren.

ldo horretan, eta Europako Batzordeak 2014rako duen lan programaren inguruan, Batzordeko presidente José Manuel Barrosok adierazi zuen Europa 2020 Estrategiaren esperientziaren inguruan hausnartzen jarraituko dutela orain arte, eta hazkundera bizkortzeko eta lanpostu berriak sortzeko beharrezko aldaketak sustatzeko egokitzapenak behar ote diren kontuan izango dutela.



2013an, Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Komiteak antolatutako 8 kontsultatan parte hartu du; horietako 5 Europa 2020 Estrategiaren inguruan izan ziren. Honako hauek, hain zuzen ere: Globalizazioaren garairako industria-politika, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako plataforma, baliabideak modu eraginkorrean erabiliko dituen Europa, berrikuntzaren aldeko batasuna eta Europarako agenda digitala. Beste aldetik, honako gaien inguruko beste 3 kontsultari erantzun dio: itsas eta kosta-turismoa, kohesio politikaren esparruko elkarte-hitzarmenak eta EKko Barne Araudiaren berrazterketa.

4.1- Europa 2020 Estrategiarekin zerikusia duten galdetegiak:

4.1.1. Industria-politika bat globalizazioaren garairako (2013ko martxoa)

Europa 2020 Estrategiaren "Industria politika bat globalizazioaren garairako" ekimen enblematikoa ebaluatzeko eta toki- zein eskualde-erakundeen ikuspuntua izateko, Eskualdeetako Komiteak kontsulta antolatu zuen 2013ko apirilean, gai horren inguruko Biltzarra prestatu ondoren.

Eusko Jaurlaritzak Nazioararteratzerako Zuzendaritzaren bidez parte hartu zuen, EKra euren kontsultak bidali zituzten 36 parte-hartzaileetako bat izanda.

Galdetegia lau atal nagusitan dago banatuta: egungo erronka politikoak eta eskualde zein toki mailan emandako erantzunak, Globalizazioaren garairako Europako industria-politika hartzeak eskualdeetan izandako inpaktua, horrek eskualderako aurreikusitako politiken egokitasuna, eta kudeaketaren eta finantzaketaren inguruko azken atal bat.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, zehazki, Euskadiko industriak aurrean dituen erronkei buruzko lehen atalaren inguruan, horrek honako hauek direla dio, besteak beste: berrikuntza sektore estrategikoetan bultzatzea, bere giza baliabideen nazioararteratze eta mugikortasun maila handitzea, elkarlan publiko-pribatuko ekimenetan sakontzea eta sektore ekonomiko sorberrietan dibertsifikazioa bultzatzea.

Erronka horiei nola erantzuten zaien galdetuta, Eusko Jaurlaritzak adierazi du Euskadik ikuspegi proaktiboa hautatu duela, hazkunde-potentzial handia duten sektoreetan estrategiak eta ekintzak martxan jarrita. Adibidez: ekonomia berdea, energia, "hiri adimendunak" edo "S3"ak (Especializazio Adimenduneko Estrategiak).

"Industria-politika bat globalizazioaren garairako" ekimen enblematikoak Euskadiri eragiten dion mailaren inguruko bigarren atalari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak adierazi du hori inspirazio-iturria izan dela politikak diseinatzeko, ekintzak ezartzeko eta helburu handizaleagoak identifikatzeko. Nolanahi ere, Estrategiaren formulazio zein aplikazio prozesuetan, eskualdeetako eta tokietako erakundeak sartu, deitu eta mugitu behar direla nabarmentzen du.



Egungo Espainiako Erreforma Programa Nazionalean ezarritako lehiakortasun-industriarako politiken egokitasunaren inguruan galdetuta, Eusko Jaurlaritzak neurri handi batean Euskadiren beharrei erantzuten dietela deritzo.

Politiken egokitasunari eta, zehazki, industria-lehiakortasunerako politikaren esparruan epe laburrera erabilgarriagoak izan litezkeen neurriei buruzko hirugarren atalari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak honako hauek izango liratekeela dio:

- Finantzaketaren indartzea
- Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren berrantolatzea
- Sektore berrietarantz dibertsifikatzea
- Jarduera-kate osoak bultzatzea
- Euskadi enpresa-proiektuak erakartzeko lurralde bezala egituratzea

Azkenik, industria-lehiakortasun politikak Euskadin finantzaketa egokia jasotzen ote duenaren gaiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren arabera, EBk Batzarrak bere 2014-2020 Etorkizun Finantzarioen inguruko Komunikatuak proposatutako baliabide ekonomikoak izan behar ditu, gutxienez. Era berean, EBk onartu berri den transakzio finantzarioen gaineko tasa bezalako berariazko baliabide gehiago dituen diru-sarreraren sistemaren ezarpenean aurrera agin behar duela nabarmentzen du; izan ere, horrek Europaren industria-lehiakortasunaren handitzea eragingo luke.

4.1.2. Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako plataforma (2013ko maiatza)

Martxan jarri eta bi urte beranduago, EKak "Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako Plataforma" ekimen enblematikoa ebaluatzea erabaki zuen, 2013ko maiatzean Bruselan egindako biltzarrean. Horretarako, EBko Eskualdeetako Komiteak galdetegia betetzeko eta Euskadin gauzatutako jardunbide egokien adibidea aurkezteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari.

"Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako plataformaren" helburua ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheresia bermatzea da, kontzientzia handitzeko eta pobrezia eta gizarte-bazterkeria jasaten dituzten pertsonen oinarritzko eskubideak aitortzeko, duintasunez bizitzeko eta gizartean aktiboki parte hartzeko aukera emanda. Bereziki, 2020ra arte Estatu kideei pobrezia eta gizarte-bazterkeria hogeit hamar milioitan murrizteko EBren helburua betetzen laguntzeko neurriak proposatzen ditu ekimenak.

Eusko Jaurlaritzak kontsulta horretan eta jardunbide egokien aurkezpenean parte hartu zuen Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren bidez, horrela, gainontzeko Estatu kideetan kontsultatutako eskualdeetako eta tokietako erakundeetara gehituta.



Eusko Jaurlaritzak gauzatutako ekarpenei dagokienez eta, bereziki, haurren pobrezia saihesteko, etxebizitza-baldintza duinak bermatzeko eta talde sentikorren gizarte-bazterkeria eragozteko aurre egin behar dien erronkei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren arabera, bere helburu nagusiak honako hauek dira: krisiak irauten duen bitartean, pobrezia tasen hazkundera saihestea; haurren pobreziaren eta pobrezia orokorraren mailen arteko desfasea murrizteko politikak mugatzea eta familien zorpetze arriskua geldiaraztea.

Beste aldetik, pobreziaren aurkako gatazkaren ekintza nagusia honako hauek osatzen dute: Diru Sarreren Berme Errentaren prestazio sistema (DSBE), Etxebizitza Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte Larrialdi Laguntzak (GLL). Horiek Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia- eta bazterkeriatasak EBko batez besteko kopuruen azpitik mantentzen laguntzen dute, Euskadi Europako desberdintasun maila txikienetako gizarte gisa bermatuta. Ekintza horiek Foru Aldundien eta Udalerrien laguntzarekin garatzen ari dira. Era berean, aipatzekoa da bi GKEen lana: Cáritas eta Gurutze Gorria. Prestazio horiez gain, euskal erakunde publikoek 69,03 milioi euro eman zituzten gizarteratzeko programa publikoetarako.

Kultura- eta sortze-jardueretan parte hartzea pertsoneri eta komunitateei pobrezia eta gizarte-bazterkeria gainditzeko tresna izan daiteke; izan ere, gizabanakoaren garapen pertsonala eta horrek gizarte-bizitzan aktiboki parte hartzea faboratu dezakete, bai eta isolamendu egoeran dauden taldeen gizarteratzea, informazioa eskuratzea eta sortze-potentziala garatzea ere. Euskadin garatutako ekimenen artean, honako hauek nabarmentzen dira: Topaleku, Goiztiri, Kalé Dor Kayikó eta IV Factoría Creativa “Arte para la inclusión y la transformación social”.

Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Plataformak Euskadiri nola eragiten dion eta plataforma horren helburu nagusien inguruan galdetuta, Eusko Jaurlaritzak dio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren helburuetako bat Euskal Enplegu Zerbitzuaren (Lanbide) rola berriz zehaztea dela, produkzio sisteman sartzeko arazoak dituzten kolektiboen gizarteratze aktibora zuzendutako ekintzen motor gisa duen rola berriz bultzatzeko. Gainera, Sail bera Euskal Autonomia Erkidegoan dauden haurren pobrezia-egoeren inpaktuari eta jatorriari buruzko egoera-diagnosia egiten ari da. Beste aldetik, esparru horretan, populazioak etxebizitza lortzera, diskriminazioa saihesteko politikak sustatzera, etxegabetze kasuetan batera eta modu eraginkorrean ekiteko erakundeen arteko laguntza-protokoloa bideratzera edo ijitoen sustapen integralerako eta horien gizarteratzea bultzatzera zuzendutako bestelako ekintzak daude.

Beste aldetik, gizarte-inbertsio paketeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak adierazi du Pakete horrek nabarmen eragiten diela Euskadiko politikei, bai eta helburu politiko berriak ezartzeko eragingarri gisa funtzionatu ere. Alde horretatik, ezinbestekoa deritzo gizarte-babeserako euskal ereduaren alde egitea, bai eta herritarren trebakuntzan eta prestakuntzan inbertitzea ere.

Pobreziari eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko EBko politiken indarguneei eta ahulguneei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren arabera, eremu horretako Erkidegoko politiken ahulguneen artean, azkenaldian, gizarte-bazterkeria gai zehatzagoek ordezkatu dutela nabarmentzen da; hala nola, lan



merkatuko bazterkeriak. Nolanahi ere, Europako Plataformaren indargune gisa nabarmentzen da horrek pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren dimentsioen areagotzea kontuan izan duela, horiei aurre egiterakoan.

Estatuaren jokaerari dagokionez, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzaren ustez, Espainiak ezarritako helburuak ez direla Estatuaren bilakaera-errealitatera egokitzen; izan ere, ezarritako gizarte-helburuak lortezinak dira. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren arabera, 2012ko Erreforma Programa Nazionalak ez die Euskadiren beharrei aurre egiten; izan ere, pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren gaiak kanpo uzten ditu, Erkidegoaren gomendioak alboratuta.

Azkenik, eta Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Plataformaren esparruko ekintzak gauzatzeko finantzaketa-iturrien inguruan galdetuta, Eusko Jaurlaritzak Europako Gizarte Funtzaren laguntzak jasotzen ditu; horrek aipatutako zenbait ekintza finantzatzen laguntzen du.

4.1.3. Europarako Agenda Digitala (2013ko maiatza)

2013ko bigarren hiru hilekoan, Europa 2020 Estrategiaren Jarraipenerako Plataformaren bidez, EKak "**Europarako Agenda Digitala**" ekimen enblematikoaren egoerari buruzko inkesta egin zuen, tokietako eta eskualdeetako ikuspuntutik eta, beranduago, egindako kontsultaren emaitzak aurkeztu ziren, EKak 2013ko uztailan antolatutako biltzarrean.

Europarako Agenda Digitala 2010ean sartu zuten, Europa 2020 Estrategiaren parte osagarri gisa, ekonomia digitala bultzatzeko eta gizarte erronkei informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez (IKT) aurre egiteko. Ekimen enblematiko horren **helburua abiadura handiko Interneten hedapena** bizkortzea eta **merkatu digital bakarrak** Europako familientzako eta enpresentzako dituen abantailak aprobetxatzea da. Agenda Digitalak **101 ekintza** ditu **zazpi oinarritan** banatuta, EBren ekonomia berpizten laguntzeko helburuarekin, eta horiek teknologia digitalak ahal bezain beste aprobetxatzeko aukera emango diete herritarrei eta Europako enpresei.

Eusko Jaurlaritzak Ekintzailtzaren, Berrikuntzaren eta Informazioaren Gizartearen bidez hartu zuen parte kontsulta horretan, horrela, 20 Estatu kidek eta Turkiak emandako 55 erantzunetara gehituta.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, horren arabera, Internet eskuratzeko Euskadin izandako erronka nagusiak abiadura handiko Internet baldintza berdinetan eskuratzen dela bermatzea eta banda zabal ultraazkarraren erabilera prezio lehiakorren ezarpenaren bidez bultzatzea izan dira. Beste aldetik, administrazio elektronikoaren barnean, erronka handienak Administrazioa eta herritarrak zerbitzu digitalen bidez gerturatzea eta IKTetan oinarritutako estrategiak garatzea izan dira. Azkenik, alfabetatze digitalerako erronkak eskumen digitaleko maila txikiena duten kolektiboen gaitasunak hobetzea eta bazterkeria-arrisku handiena duten kolektiboen gizareratze digitala bermatzea izan dira.



Euskadiren erronketara gehien egokitzen diren Europarako Agenda Digitalaren helburuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren arabera, helburu horiek honako hauek dira: konfiantza eta segurtasuna; Interneterako sarbide azkarra eta ultraazkarra; ikerkuntza eta berrikuntza; alfabetatzea sustatzea, trebakuntza eta gizarteratze digitalak, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak ahalbidetzen dituzten onurak. Gainera, zehazki, nabarmentzen du esparru horretan gauzatzen ari diren programak/ekintza politikoak honako hauek direla:

- Interneteko sarbide azkarraren eta ultraazkarraren helburua lortzeko: Banda Zabala + Proiektua: horren helburua belaunaldi berriko banda zabal ultraazkarreko sareak bultzatzea da.
- Ikerkuntzaren eta berrikuntzaren helbururako: GAITEK bezalako laguntza finantzarioen programak, besteak beste.
- Alfabetatze, trebakuntza eta gizarteratze digitalak sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak herritarrentzako zein enpresa txikietarako eta autonomoentzako ikastaroak antolatzen ditu.
- IKTek Batasuneko herritarrentzako ahalbidetzen dituzten onuren artean, ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko IKT berrikuntza (Etxe digitala) eta IKTetan oinarritutako Sistema Soziosanitarioak (eHealthcare) nabarmentzen dira.

EKko txosten ezberdinek ezarritako tokiko agenda digitalak sortzeko, elkarreragingarritasuna eta administrazio elektronikoa hobetzeko, banda zabalerako bidezko sarbide merkea bermatzeko eta datu pertsonalen pribatutasuna eta babesa bermatzeko behararen inguruko politika zehatzen inguruan galdetuta, eremu guzti horietan ekintzak bultzatu direla dio Eusko Jaurlaritzak.

2013-2014rako "Agenda Digitalaren Azterketan" ezarritako ekintza eraldatzaileei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren ustez, Euskadiren ikuspuntutik, egokienak honako hauek dira: IKTen eta enpleguaren aldeko Koalizio Handia martxan jartzea; hodei konputazioa bizkortzea, sektorea publikoaren erosahalmenaz baliatuta, eta elektronikarako industria-estrategia berria martxan jartzea. Aldiz, eta Euskadik esparru horietan duen eskumen falta dela eta, lortzen zailen diren ekintzak banda zabalerako esparru erregulatzailer berria eta egonkorra sortzea eta, "Europa Konektatu" mekanismoaren bidez, zerbitzu digitalen azpiegitura berriak sortzea dira.

Euskadiren ikuspuntutik, Europarako Agenda Digitalaren indarguneak eta ahulguneak zeintzuk diren erantzunda, honek indarguneak hodei konputazioaren azelerazioa eta elektronikarako industria-estrategia liratekeela eta ahulgunea ahultasun ekonomikoaren egoera litzatekeela dio.

Estatuaren jokoerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak adierazi du ez zuela 2012ko Erreformatarako Programa Nazionalan esku hartzeko aukerarik izan; izan ere, Erreformatarako Plan Nazionalak estatu mailan prestatu dira eta Eusko Jaurlaritzak horrek Euskadin izandako inpaktuaren jarraipena egin du bakarrik.



Politika eta finantzaketa inguruko azken atalean, Eusko Jaurlaritzak adierazi du, Europarako Agenda Digitalaren esparruan, Euskadin gauzatzen diren ekintzetarako finantzaketa-iturriak euskal Administrazioaren funtsetatik soilik datozela, eta zerga-finkapen politikek eta ondoriozko zailtasun ekonomikoek Europarako Agenda Digitalaren esparruan zehaztutako helburuen lorpena arriskuan jarri dutela.

4.1.4. Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa (2013ko ekaina)

Europa 2020 Estrategiaren uneko ebaluazioan laguntzeko, 2013ko ekainean, Europa 2020ren Jarraipen Plataformak "Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa" ekimen enblematikoari buruzko kontsulta jarri zuen martxan, tokietako eta eskualdeetako erakundeentzat, bai eta jardunbide egokien aurkezpenarako deialdia ere. Horiek gaiaren inguruko biltzar espezifikoa egiteko atze-oihala izango dira.

Ekimen enblematikoaren helburuak hazkunde ekonomikoaren eta bitartekoen erabileraren arteko korrelazioa hausten laguntzea, karbonoaren isurpen maila txikia duen ekonomia baterantz aldaketa bultzatzea, energia iturri berriztagarrien erabilera gehitzea, gure garraio sektorea modernizatzea eta eraginkortasun energetikoa sustatzea dira.

Eusko Jaurlaritzak Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren bidez hartu zuen parte kontsulta horretan, horrela, 20 Estatu kidek eta Turkiak emandako 55 erantzunetara gehituta.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, horren ustez, Euskadik aurre egin beharreko **erronka nagusiak** baliabideen erabilera eraginkorragoa eta ekonomia hipokarbonikoranzko trantsizioa dira eta, <Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa> ekimen enblematikoan ezarritako helburuen inguruan, Eusko Jaurlaritzak dio lehentasunezkotzat jotzen duela emaitza ekonomikoak hobetzea, baliabideen erabilera murrizten den bitartean, bai eta klima-aldaketari aurre egitea eta baliabideen erabileraren ingurumen inpaktuak mugatzea ere.

Horretarako, gai horri buruzko Txostenean, EKak karbono isuri txikia duten eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituzten garraio eta energia sistemei; kontsumo eta ekoizpen iraunkorrei; hondakinik gabeko ekonomiari; lehengaien erabilera eraginkorari; eta biodibertsitateari, ekosistema-zerbitzuei eta zoruaren ustiapenari ematen die lehentasuna. Horren inguruan, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak politikak ezarri dituela aipatutako esparru guztietan eta, gainera, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-politiken arteko interdependentzia sustatzen duen Ingurumen Esparru Plana hartu duela.

Europa 2020 Estrategiak energiaren eta klima-aldaketaren inguruan zehaztutako **helburuen bideragarritasunari** dagokionez, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du, Euskadin, % 20tik beherako negutegi efektuko gasen isuria lortzea bideraezina dela. Aldiz, iturri berriztagarrietatik datorren energian zein energia eraginkortasunean, % 20 lortzea bideragarritzat jotzen da.



Era berean, Eusko Jaurlaritzaren ustez, Europako 4500 alkate baino gehiago elkartzen dituen “**Alkateen Ituna**” plataforma erabilgarria da CO2 isuriaren murrizketan aurrera egiteko; izan ere, horiek eskumenak dituzte arlo horretan. Aldi berean, Alkateen Itunaren esparruaren ikuspegia ekimenaren beste funtsezko eremu batzuetara zabaltzeko adostasuna adierazi du; hala nola, biodibertsitatea eta zoruaren erabilera, edota hondakinen kudeaketa. Uraren kudeaketa edota atmosferaren kutsadura.

Baliabideen erabileran eraginkorra izango den Europaranzko 2020ra arteko **ibilbide-orrian** ezarritako mugarren inguruan, Eusko Jaurlaritzak adierazi du egokienak eraikinen eta mugikortasunaren inguruan ezarritako helburuak liratekeela. Aldiz, elikagaietzako ezarritakoak desegokiak lirateke. Era berean, gehien eragiten diguten ibilbide-orrian ezarritako politikak honako hauek dira:

- Kontsumo eta produkzio iraunkorrak sustatzea
- Baliabideen eraginkortasunaren arloan, ikerkuntza eta berrikuntza gehiago bermatzea
- Kapital naturala eta ekosistema-zerbitzuak hobe baloratzea
- Biodibertsitatearen galera eta ekosistema-zerbitzuen degradazioa geldiaraztea
- Ur baliabideen kudeaketa hobe sustatzea
- Airearen kalitate-mailak hobetzea
- Zoruaren erabilera, zoruak eta itsas-urak hobe kudeatzea

Ekimen enblematikoaren **indarguneei eta ahulguneei** dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren arabera, lehenak gizarte sentsibilizazioa, erabilera eraginkorra sustatuko duten araudien eta ekimenen sorrera edo koordinazio beharra dira; aldiz, bigarrenak eskumenen sakabanatzea, krisi ekonomikoa eta derrigortasun falta lirateke. Era berean, Eusko Jaurlaritzak erantsi du Euskadin gauzatzen zailenak diren ekimenaren ekintzak diru-laguntzak; produktuak eta zerbitzuak eta politiken integrazioa direla.

Erreforma Programa Nazionalen egokitasunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren ustez, 2013ko Erreforma Programa Nazionalak ez die behar bezala erantzuten Euskadik dituen beharrei, ekimen enblematikoak barne hartutako esparru politikoetan.

Politikaren eta finantzaketaren inguruko azken atalean, Eusko Jaurlaritzak adierazi du ekimenari dagozkion ekintzetarako finantzaketa-iturriak EEGF, Kohesio Funtsa, Europako Gizarte Funtsa eta LIFE programa direla. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak adierazi du beste sail batzuekin lan egiten duela, bai eta probintzietako eta tokietako gobernuekin ere, baina komunikazio eta parte-hartze sareen arteko harremana gehiago sustatzea komeni dela.

4.1.5 . Berrikuntzaren aldeko batasuna (2013ko urria – azaroa)

Europa 2020 Estrategiaren uneko ebaluazioan laguntzeko, 2013ko azaroan, Europa 2020ren Jarraipen Plataformak "Berrikuntzaren aldeko batasuna" ekimen enblematikoari buruzko inkesta jarri zuen martxan, tokietako eta eskualdeetako erakundeentzat, bai eta jardunbide egokien aurkezpenarako deialdia ere. Horiek gaiaren inguruko biltzar espezifikoak egiteko atze-oihala dira.



Ekimen enblematiko horren helburu nagusia ikerkuntza eta garapena (I+G) zein berrikuntza-politika gure gizarteak aurrez aurre dituen erronketan zentratzea da; hala nola, klima-aldaketan, energian, osasunean eta aldaketa demografikoan.

Eusko Jaurlaritzak kontsulta horretan parte hartu zuen Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzaren bidez, horrela, gainontzeko Estatu kideetan kontsultatutako eskualdeetako eta tokietako erakundeetara gehituta.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, horrek adierazi du, Euskadin, Batasunaren berrikuntzaren aldeko helburu politikoak bermatzeko programak/ekintza politikoak aplikatzen ari direla hurrengo esparruetan:

- I+Gn, berrikuntzan eta IKTetan inbertitzea
- Izan litezkeen onuradunei laguntzea, EBko funtsak eskuratu eta ikerkuntzaren zein berrikuntzaren arloko Europako ekimenetan parte hartu ahal izan dezaten
- Ikerkuntza-proiektuen emaitzen erabilera produktu zein zerbitzu berritzaileetan sustatzea
- Berrikuntzarekiko oztopoak kentzea; hala nola, jabetasun intelektualaren eskubide garestiak eta finantzaketarekiko sarbide mugatua kentzea
- Gizarteko berrikuntza sustatzea
- Ikerkuntza eta berrikuntza arloan, nazioarteko kideekin lan egitea
- Sektore publikoan, berrikuntza sustatzea

I+Gren inbertsioa EBko BPGren % 3raino handitzea lortzeko azkarren heldu behar diren **erronken** inguruan galdetuta, Eusko Jaurlaritzaren ustez, horiek proiektuen eta programen zatiketa eta bikoizketa garestia; estatu mailako berrikuntzaranzko ikuspegi estrategikoaren falta; ikerkuntzaren eta industriaren arteko lankidetzaren falta eta merkatura egindako ideien ekarpen mugatua dira.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak adierazi du espezializazio azkarreko estrategia duela, Euskadi bere helburu handiei eta hainbat jardueri denboran zehar emandako jarraipenarengatik nabarmentzen dela azpimarratuta. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak bereziki landu ditu klusterren politikaren aukerak, ETEen berrikuntza faboratzeko inguruneen sorrera eta ikerkuntza-azpiegituren zein eskualdeetako eskumen-zentro erakargarrien sorrera. Aldiz, Euskadin, kultura- eta sortze-ekimenak ez dira garapen ekonomikoko estrategian sartzen.

EBk hainbat esparrutan egindako aurrerapenen inguruan galdetuta, Eusko Jaurlaritzak EBko finantzaketa-tresnak ekimenaren lehentasunetan zentratzearen inguruan izandako aurrerapen garrantzitsuak nabarmendu ditu. Era berean, zenbait aurrerapen eta ikuspegi on nabarmentzen ditu hezkuntzaren bikaintasuna sustatzeari dagokionez eta eskumenen garapenean, Europako Ikerkuntza Eremua 2014 baino lehen amaitzeko neurriak hartzean, Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutua eta horren ezagutza- eta berrikuntza-komunitateak Europako berrikuntzaren gobernantza-eredu gisa sustatzean, berrikuntzaren onurak EB osoan zabaltzean eta euskal politikak kanpoan esplotatzean. Nolanahi ere, enpresa berritzaileen finantzaketarekiko sarbidea hobetzeko dagokionez,



berrikuntzaren merkatu bakarra sortzeak, irekitasuna sustatzeak eta Europaren sortze-potentziala esplotatzeak, gizarte-onurak eta Europako berrikuntza-lankidetzak handitzeak, eta EBko ikerkuntza-eta berrikuntza-sistemak eraberritzeak ez dute aurrerapen nabaririk izan; ondorioz, beharrezkoa da ahalegin handiagoa egitea.

Ekimen enblematikoaren **indarguneei eta ahulguneei** dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren arabera, indargunea ekimena Euskadiren

lehiakortasun politiketan aztertutako eremuekin bat datorrela da; aldiz, ahulgunea ariketa teorikoagoa dela da, praktikoa baino. Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzak berrikuntzaren aldeko Batasuna lortzeko ekimen zehatzagoak ezartzea proposatzen du.

Politikaren eta finantzaketaren inguruko azken atalean, Eusko Jaurlaritzak adierazi du ekimenari dagozkion ekintzetarako finantzaketa-iturriak Ikerkuntza eta garapen teknologikoko zazpigarren esparru programa, Berrikuntzarako eta lehiakortasunerako esparru programa eta Europako Eskualde Garapenerako Funtsa direla.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak adierazi du, zientzia eta teknologia arloko plangintza estrategikoa eskumena duten eskualdeko gobernuaren sail ezberdinen eta foru administrazioen artean adosten dela eta, aldi berean, alderdi interesdunen parte-hartzea sustatzen da baliabide ezberdinen bitartez (Eusko Jaurlaritzako pertsonak eta hainbat kanpo zein barne eragilek osatutako Aditu Batzordearen parte-hartzea, Bultzada Foruaren bidezko 150 pertsona baino gehiagoren ekarpenak edo Openideiak plataforma, IREKIAko lantaldeen bidez).

4.1.6. Jardunbide egokien kasuen aurkezpena

2012ko abendutik, Estrategiaren Ekimen Enblematikoak ebaluatzeko balio izan duten EKak egindako kontsultek Europako eskualdeetako hainbat jardunbide egokiren aurkezpenen bermea izan dute; Euskadik rol nabarmena izan du horien artean.

Helburua Europako beste eskualde batzuentzako eredu gisa balio izan dezaketen ekimen bakoitzari buruzko jardunbide egokiak biltzea zen. Euskadi jardunbide egokien 4 eredu aurkeztu dizkio EKri 2013an:

- Informazioaren gizartean eta *Europarako agenda digitala* ekimen enblematikoaren inguruan:
 - o Euskadiko 2015 Agenda Digitala. Ekimen hori jardunbide egokien adibide gisa hautatu zen 2013ko urriko Europa 2020 Estrategiari buruzko EKren 4. Jarraipen Txostenean.
- *Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako plataformaren* inguruan:
 - o SENDOTU proiektua (EAE-EGF programa eragilea)
 - o BZI – Baliabide Zentro Integrala (Berrikuntza minusbaliotasunaren eta enpleguaren zerbitzura)



- *Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa* ekimenari dagokionez:
 - o Tokiko iraunkortasuneko jardunbide egokiak IHOBEko EAE 2012n
- *Berrikuntzaren aldeko Batasuna* ekimenaren inguruan:
 - o Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sarea eta aipatutako jardunbide egokia proiektatu zuen Standa.

4.2 Euskadirako interesgarriak diren beste gai batzuetako galdetegi osoak

4.2.1. Barne Araudiaren Berrazterketa (2013ko otsaila)

Eskualdeetako Komitearen Osoko Bilkura Barne Araudia berraztertzeke hamaika kidez osatutako *ad hoc* batzordea sortzearen alde agertu zen 2012ko urriaren 10ean. Barne Araudiaren aldaketa berri horren helburu nagusiak artikulu jakin batzuk berraztertzeke beharrean oinarritzen dira, alde batetik, Kroaziaren atxikipen berria prestatzeke eta, bestetik, indarrean dagoen Barne Araudiari zenbait aldaketa tekniko egiteke, EKren funtzionamenduaren prozeduren eraginkortasuna hobetzeke.

Barne Araudia berraztertzeke *ad hoc* Batzordeak 2013ko urtarrilean izan zuen lehen bilera. Lehen bilera horretan, besteak beste, Ordezkaritza Nazionalei kontribuzioak eskatzea adostu zen. Ondorioz, Extremadurako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion gaiari buruzko ekarpen egokiak egiteke, Espainiako Ordezkaritzak gai horren inguruan duen jarrera finkatzeko eta, horrela, jarrera hori *ad hoc* Batzordeko presidente Helmut Max Jahn jaunari jakinarazteke.

Eusko Jaurlaritzak kontsulta horretan parte hartu zuen Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bidez, horrela, gainontzeke Estatu kideetan kontsultatutako eskualdeetako eta tokietako erakundeetara gehituta.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, horrek dio ados dagoela txostenak zein zuzenketak aldi berean Komiteko hizkuntza ofizial guztietara itzultzearekin. Hori hala ez balitz, ingelesa edo frantsesa nahikoa ez dakiten horien parte-hartzearen aurka joango litzatekeela uste du.

Beste aldetik, Txostenaren proiektuak aztertzeke nahikoa denbora izatearen beharra azpimarratzea funtsezkoa dela dio, zuzenketak aurkeztu ahal izateke. Horren inguruan:

- EKko Idazkaritzak kideei zuzenketak aurkezteke epea murriztea proposatu du, Idazkaritzari eta txostengileari transakzio zuzenketak kudeatzeko epea luzatzeko.
- Hori horrela izanda, ados dago txostenak aztertzeke denbora zabaltzeke proposamenarekin; izan ere, bestela, zuzenketak kudeatzeko makineria perfektuaren sorrerari emango litzaioke lehenetasuna, horiek sortzearen kalterako.



- Gainera, iraganean, Araudiaren 15.2 artikuluko hori ez dela bete behin baino gehiagotan erantsi du.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak nabarmendu du hori gertatu ohi dela txosten garrantzitsuenekin; izan ere, edozer arrazoi dela eta, ez dira garaian iristen eskualdeetara eta, ondorioz, ezin dira aztertu.

Beste aldetik, zuzenketak aurkezteko epeari dagokionez, zentzuzkoa deritzo dagokion eguneko 15.00etako muga jartzeko proposamena; izan ere, egungo Araudiak jasotzen duen ordua gaueko 24.00ak dira eta ez da eraginkorra.

Azkenik, txostengilearen zuzenketak zuzentzaileari Komiteko Idazkaritzara bidali aurretik jakinaraztearen garrantzia nabarmendu du, bi alderdien arteko benetako konpromisozko zuzenketa lortzeko eta txostengilearen zuzenketaren gehienezko garrantzia saihesteko.

4.2.2. Itsas- eta kosta-turismoa Europan (2013ko apirila)

Europako Batzordearen Europako itsas- eta kosta-turismoari buruzko Komunikatuaren argitalpena dela eta, EKak gai horren inguruko mintegia eta kontsulta antolatu zituen Europako Batzordearekin batera (DG Empresa eta DG Mare), eskualdeen iritzia ezagutzeko, horiek lekuan bertan izandako esperientzian oinarrituta. Mintegia 2013ko apirilaren 29an izan zen.

Eusko Jaurlaritzak mintegian zein kontsulta horretan parte hartu zuen Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren bidez, horrela, gainontzeko Estatu kideetan kontsultatutako eskualdeetako eta tokietako erakundeetara gehituta.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, eta itsas- zein kosta-turismoaren erronka nagusien inguruan, horrek presio antropikoa identifikatzen du Europako kosta-espazioen erronka gisa, eta presio hori turismo garaian handitzen dela nabarmentzen du, dagoen urtarokotasun handia dela eta. Gainera, itsas-kulturaren babesa eta zaintza nabarmentzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren helburu nagusietako bat bezala, tokiko komunitateen ingurumen kalitatea eta osotasuna gordetzeko beharrari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzak tokiko agintarien arteko lankidetzak hobetzeko eskualdeko klusterretan parte hartzen duen galdetuta, horrek gure lurralde-garapenerako politikaren ardatza Eusko Kostaldearen Turismo Gida-Plana esparru-dokumentua dela adierazi du. Hori kudeaketaren, ezagutzaren, helburuaren, eskaintzaren, produktuaren eta sustapenaren arloetako lan ardatzak antolatzen sortu zen. Eragile publikoen, pribatuen eta publiko-pribatuen arteko lankidetzak sustatzeaz gain, Planaren helburua bestelako helmuga turistikoekin lankidetzak erraztea izan da. Horrela, lankidetzarako ekintza zehatzak aurreikusi zituzten, Pirinio Atlantikoetako departamenduko eragile frantsesekin eta, 2012an, harremanetarako esparru-hitzarmenaren diseinua hasi zuten Frantziako turismo-agintariekin.

Erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak adierazi du azken urteetan gauzatutako ia politika guztia lankidetzak publiko-pribatuaren inguruan izan dela eta



Euskal Kostaldearen Turismo Gida-Plana lankidetzan publiko-pribatuaren eredu gisa erabiltzen ari direla. Era berean, Euskadin prestatutako Kudeaketa Ereduan, maila politikoko, maila teknikoko, enpresa-mailako eta maila guztietako ordezkariak biltzen dituzten mahaiak daude.

Turismoaren sektoreko nazioarteko lehiakortasun handiari eta globalizazioak zentzu horretan egiten duen presioari aurre egiteko ekimenei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak adierazi du, eremu horretan bere programak garatzeko, eskaintzara egokitutako, ekonomikoki errentagarriak diren, ingurumenarekin eta tokiko nortasunarekin bat datozen eta ahalik eta gizarte-ongizate handiena sortzen duten kalitatezko turismo-produktu eta zerbitzu bereziek osatu beharko luketela helmuga.

Eusko Jaurlaritzak kostako zein itsasoko baliabideen iraunkortasuna bermatzeko zer neurri hartzen dituen galdetuta, horrek adierazi du, hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren eremua lantzea bide egokia bada ere, askotan, oso ekintza garestiak dira eta, horregatik, sarbideak eta jarduerak mugatzen dituzten inguruneen erabilerak arautzeko aspektuak lantzen ari dira.

Babestutako Itsas Eremuei dagokienez, aipatzekoa da Euskadin ez dagoela zehaztutakorik, Eusko Jaurlaritzak eremu horiek arrantza iraunkorra gordetzeko, kostako biodibersitatea babesteko eta arrantza-jardueraren deslokalizazioa saihesteko tresnatzat jotzen ditu. Aldi berean, portu-azpiegiturei dagokienez, turismo-azpiesektore horren garapena mugatuta dago, turistei zuzendutako atrakalekurik ia ez dagoela, ingurumen-araudiak asko babestutako kosta dagoela eta atrakatzeko lekuen eskari handia dagoela dela eta.

4.2.3. Elkartzeko akordioak kohesio-politikaren alorrean (2013ko apirila)

2013ko apirilean, Eskualdeetako Komiteak kontsulta deitu zuen, eskualdeetako eta tokietako erakundeak Elkartzeko Akordioaren prestaketetan nola sartzten ari diren jakiteko. Kontsulta hori EKak Estatu kideek eskualdeetako eta tokietako erakundeak elkartzeko akordioaren prestakuntzan sartzten ari diren neurriaren inguruan duen ziurgabetasunaren ondorioz sortu zen.

Eusko Jaurlaritzak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren bidez parte hartu zuen galdetegi horretan, eta horren ekarpenak Espainiako Ordezkaritzaren baterako iritzia prestatzeko erabili ziren, parte hartu zuten beste Autonomia Erkidegokoekin batera –Aragoi, Gaztela eta Leon, Katalunia, Valentziako Erkidegoa, Extremadura eta Murtzia.

Orokorrean, galdetegiak Eusko Jaurlaritzaren iritzia azaltzen du, eta parte hartutako gainontzeko Erkidegoena bat dator. Ez dago iritzi-ezberdintasunik, Autonomia Erkidego bakoitzak bere behaketak oinarritzeko adibide ezberdinak ekartzen ditu.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, elkartzeko akordioaren prestaketaren egoera zein den galdetuta, Elkartzeko Akordioaren Espainiako proposamena prestatzeko lanak 2012ko amaieran garatzen hasi zirela adierazi du. Zehazki, ex ante baldintzatasunen gai nagusia nahiko aurreratua dagoela adierazi du. Nolanahi ere, beste gai batzuk (adibidez: ezberdintasunen azterketa, garapenerako lankidetzan, gobernantza eta, batez ere, kontzentrazio tematikoa) hein desberdinean



doaz aurrera; izan ere, azken finean, esleitutako laguntzen zehazketaren eta etorkizunean proposatutako Programen menpe daude.

Eskualdeen parte-hartzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du Europako Batzordearekin batera eta modu informalean gauzatutako bileren bidez egin dela. Aipatutako bileretan gastu gaiak (I+G+b; ETE, energia,...) eta bestelako gaiak lantzen dira (finantza-ingeniaritza, tokiko edota hiriko gaiak, etab). Gainera, Ogasun ministroak Autonomia Erkidegoekin eta inplikaturako bestelako eragileekin adostasuna lortu arte proposamenik ez duela bidali nahi erantsi du.

Azkenik, Elkartzeko Akordioetan aurrera egiteko, behin betiko esleipenen falta oztopo handia da baina, nolana ere, ezin da gauzatu Hainbat Urtetarako Finantza Esparrua itxi arte.

Batera egindako ekarpenei dagokienez, Espainiako Ordezkaritzak adierazi du Autonomia Erkidegoen iritzia kontuan hartzen ari direla, eta Estatuko Gobernuak euren iritzia galdetu diela eskualdeei, euren eskumena diren politiken inguruan.

Beste aldetik, Autonomia Erkidegoen ustez, Elkartzeko Akordioa zabala da bestelako eskualdeek dituzten lehentasuna biltzeko.

Beste aldetik, dauden oztopoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako aipatutakoaz gain, –behin betiko esleipenaren falta– Txostenen eta bestelako funtsezko dokumentuen behin betiko bertsioak ezartzeko atzerapena ere aipatu da. Era berean, aipatu dute, Autonomia Erkidegoak Estatuko Gobernuarekin eta Batzordearekin parte hartzen ari badira ere, une honetan ez daudela Elkartzeko Akordioa osa dezaketen datu zehatzik eskaini. Neurri batean, zenbait eskualdeetan gauzatzen ari diren 2014-2020 Eskualde Garapeneko Plan Estrategikoak direla-eta eta, bestetik, Hainbat Urtetarako Finantza Esparrua onartzeko atzerapena dela-eta.

Azkenik, Espainiako Ordezkaritzak uste du Europako erakundeek eremu horretan izan behar duten rola eskualde mailan zehaztutako programa eragileak erabiltzearen egokitasuna sustatzearena dela (hainbat eskualdeetako Programen ordez), bai eta eskualdeetako Gobernuak administrazio- eta ordainketa-agintariak izatea baimendu behar dutela ere.

5. Subsidiarotasunaren azterketa

5.1. Sarrera

2009ko abenduan indarrean sartutako Lisboako Itunak erantzukizun berriak eman zizkion Eskualdeetako Komiteari, Subsidiarotasun Printzipioarekiko errespetuaren zaintzari dagokionez.

Horren ondorioz, EKren Barne Araudiak "Komiteko irizpenek subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioen aplikazioari berriazko erreferentzia egitea" eskatzen du. Ideia hori EKak gobernu maila ezberdinen arteko eskumenen arteko orekarekiko errespetua zaintzeko duen



erantzukizun berriaren adierazpen zuzena da. Horrek etorkizunena Europako Justizia Auzitegian helegiteak jartzea justifikatu dezake, Subsidiariorotasuna ez betetzeagatik.

José Manuel Barroso Europako Batzordeko presidentek berak adierazi zuen, 2013rako Batasunaren Egoerari buruzko hitzaldian, Europar Batasuna "handia izan behar dela gauza handietan, eta txikia, txikietan", subsidiariorotasunaren garrantzia azpimarratuta eta "subsidiariorotasuna kontzeptu teknikoa ez dela" adierazita. Funtsezko printzipio demokratikoa da. Europako herritarren arteko batasun estuagoak erabakiak ahalik eta irekien eta herritarrengandik ahalik eta hurbilen hartzea eskatzen du.

2012ko erdialdean, EKak Plan estrategikoa hartu zuen subsidiariorotasunaren arloan; horrek printzipio horren kontrol egonkorreko tresna eta prozedura berriak hartzen dituen barne. Ondorioz, 2013an jarri ziren elementu berri horiek praktikan lehen aldiz.

Berritasun nagusia **Subsidiariorotasunari buruzko lehen Lan Programaren ezarpena eta aplikazioa izan zen**; hori 2013ko urtarrilaren 30ean onartu zen eta, bertan, Subsidiariorotasun kontrol sakonagoa behar duten Europar Batzordeko lege-programaren lehentasunezko 5 ekimenak hautatzen dira: EBk hondakinen inguruan duen politikaren eta legeriaren berrikuspena, portu-paketea, fakturazio elektronikoa kontratazio publikoan, hiri mugikortasuna eta ezohiko hidrokarburoak (azkeneko biak 2014ra arte atzeratu ziren, argitalpenaren atzerapenaren ondorioz).

Horretarako, 2012an hartutako gobernantza politikorako tresna berriez eta zaharrez baliatu ziren; hala nola, **Subsidiariorotasuneko Aditu Taldea** –, horrek Batzordearen lan programaren ekimenak sakonki aztertu zituen-, **REGPEX Plataforma** edo Lege Eskumenak dituzten Eskualdeei zuzendutako informazioa trukatzeko foroa, **Subsidiariorotasunaren Jarraipenerako Sarearen** ekimen zehatzen inguruko **kontsultak**, eta **harreman** estuagoa **Europako erakundeekin**, EKak Batzordearen lan programaren prestakuntzan izandako parte-hartze handiagoan, subsidiariorotasunak prozesu legegilean izandako jarraipenean eta inpaktu-ebaluazioen prestakuntzan oinarrituta.

Era berean, abenduaren 18an Alemaniako Senatuan (Berlin) egindako **Subsidiariorotasunaren inguruko urteko Biltzarraren** antolakuntza aukera ona izan zen, beste kide instituzionalekin batera, Subsidiariorotasun Printzipioak Lisboaren ondorengo erabaki prozesuan izandako rola aztertzeke.

Egoera horretan, EKak 2007an sortutako *Subsidiariorotasunaren Jarraipen Sarearen* rola sendotzen joan da, Subsidiariorotasunaren eremuan, EKren jarduera politikoak bermatzeko kontsulta-plataforma gisa. Aipatzekoa da Plataforma hori EBko eskualdeetako eta tokietako agintariek osatzen dutela, EKko kideak izan ala ez. 2013an, Sare horretako kide kopurua handitzen joan da, EBko eskualdeetako eta tokietako gobernuetako 146 kideetara iritsita. Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Parlamentuak ere bertan parte hartzen dute.

Plataformaz gain, EKko kideek ere subsidiariorotasunaren konplimendua aztertzen dute, osoko bilkuretan onartzen diren txostenen bidez. Anlisi horiek azaldu zuten, 2013an, bik bakarrik izan zituztela arazoak subsidiariorotasunaren konplimenduari dagokionez: *Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio*



Zuzentaruaren Azterketari buruzko Txostena eta "Itsas-eremuaren antolakuntzarako eta kosten kudeaketa integraturako esparrua ezartzen duen Zuzentaru Proposamena". Beste aldetik, *Animalien pentsuen kontrol ofizialen inguruko Araudi Proposamenari* buruzko Txostenean eta *Tabako produktuen eta antzekoen fabrikazioaren, aurkezpenaren eta salmentaren eremuko Zuzentaru Proposamenar*² buruzko Txostenean, EKak ekintza delegatuen erabilerak sortzen dion kezka adierazten du.

5.2. Subsidiarotasunaren alorreko aditu-taldea

Eusko Jaurlaritza 2012an sortutako Subsidiarotasuneko Aditu Teknikoen Taldea osatzeko hautatutako 16 eskualdeetako bat izan zen, arloan duen esperientzia eta Europako testu legegile guztien subsidiarotasuna aztertzerakoan izandako parte-hartze aktiboa dela eta. 2013an aditu gisa joandako euskal ordezkaria Mikel ANTON ZARRAGOITIA izan da, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendaria, hain zuzen ere.

Talde hori Subsidiarotasunaren arloan edozer erabaki hartzeko aditu tekniko pribilegiatuen taldea da EKrentzat. Zehazki, Taldea Subsidiarotasunaren Jarraipen Sarearen, maila politikoko aditu taldearen jarduerak eta EKren kontsulta-lana bermatzeko sortu zen.

Taldearen ardura nagusiak honako hauek dira:

1. Subsidiarotasuna lantzeko, EKak Europako Batzordearen zer txosten aztertu behar dituen identifikatzea.
2. EKren funtsezko txostenetan, Subsidiarotasunaren konplimenduari buruzko iritzia ematea.
3. EKren beste edozer behar, Subsidiarotasunaren arloan.

Taldea EBko tokietako eta eskualdeetako agintaritzen 16 aditu ordezkari osatzen dute, eta bitan bildu zen 2013an: ekainean eta irailean.

Ekaineko bileran, adituen taldeak hiri-mugikortasun jasangarriari buruzko Europako etorkizuneko araudia eta eskualdeetan duen eragina eztabaidatu zuen, Europako Batzordearekin batera (2014rako aurreikusita zegoen argitaratzea), baita hondakinen politikari buruzko Europako araudia ere; bi gaiok interes handia dute Euskadirentzat. Era berean, hurrengo Europako bestelako araudiak aztertu ziren hainbat arlotan; horien jarraipena garrantzitsua izango da, eskualdeetan eta, bereziki, Euskadin izan dezaketen eragina aztertzeko.

Europako Batzordeak denbora darama garraioaren plangintza integratuaren kontzeptua sustatzen eta, alde horretatik, Batzordeak hiri-mugikortasun plan iraunkorretarako, hiri-garraioaren erabilerarengatik kargetarako eta estatu edo lurralde mailan ezartzen diren sarbide-murrizketetarako Europako esparruaren prestakuntza iragarri zuen.

Horren inguruan, Euskadiko aditu Mikel ANTONek adierazi zuen Eusko Jaurlaritza hiri-

²

CdR 2062/2013.



mugikortasunari buruzko estrategia partekatua sustatzen ari dela lurralde osorako eta, horretarako, Gobernuak Euskadi 2020rako mugikortasun iraunkorreko Plana onartu du, gaiaren inguruko legea prestatzen duten bitartean. ANTONek adierazi zion Europako Batzordeari Europa mailako sarbide-murrizketen bateratzea funtsezko urratsa dela hiriko garraioari eragiten dioten eragiketen kalitatea eta funtzionalitatea hobetzeko eta, horregatik, Europako esparruaren sorrera bermatzen duela.

Ondoren, adituek hondakinen politika azertu zuten. 2013an, Europako Batzordeak adierazi zuen hondakinen inguruko Europako legeria azertu behar zuela, Europa mailako funtsezko helburuak identifikatzeko, isurien, edukiontzien eta edukiontzien hondakinen politika aztertzeke, bai eta zabortegetako hondakinen prebentzioaren, berrerabilpenaren, birziklapenaren, berreskurapenaren eta desbiderakuntzaren inguruko helburuak aztertzeke ere, berrerabilpenean eta birziklapenean oinarritutako ekonomiaranzko bidea hasteko, (2014ean) zerotik gertu dauden hondakinekin.

Arlo horretan, Mikel ANTONek adierazi zuen Eusko Jaurlaritza hondakinen inguruko Esparru Zuzentarauaren eta edukiontzien eta edukiontzien hondakinen inguruko Esparru Zuzentarauaren helburuak indartzearen aurka dagoela; izan ere, herrialde gehienek ez dituzte betetzen EBn jadanik ezarritako helburuak. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaio, lehenik eta behin, jadanik existitzen diren helburuak ez betetzeko arrazoiak aztertzea.

Nolanahi ere, prebentzioaren arloan, ANTONek adierazi zuen beharrezkoa dela hondakin-fluxu bakoitzerako prebentzio-helburu bereziak zein politika horien ebaluazioa islatuko duten adierazleak ezartzea. Era berean, garrantzitsutzat jo zuen korronte, jakin batzuetarako, hondakinen bizi-amaierako irizpideak ezartzea, hondakinetatik abiatutako bigarren mailako material objektiboen erabilera sustatzeko neurri gisa.

2013ko abenduko bileran, adituen taldeak 2014rako lehentasunak eztabaidatu eta hautatu zituen, Europako Batzordeko programa legegilearen subsidiarotasunaren arloan.

Horretarako, lehentasunaren hautaketa jadanik aurreko urtean ezarritako 3 irizpideetan oinarritu zen::

1. Ekimeneke eskualdeetako eta tokietako agintarientzako interes politiko argia izatea
2. Ekimeneke eskualdeetako eta tokietako eskumenetan eragitea
3. Subsidiarotasun potentzialeko dimentsioa izatea

Eta gainera, adituen taldeak beste irizpide berri batzuk ezartzea erabaki zuen:

- Proposamen legegileei lehentasuna ematea eta, batez ere, EKak Txostena prestatu behar dien proposamenei
- Aurretik jadanik argitaratutako baina 2013an oraindik eztabaidatzen ari diren ekimen garrantzitsuak sartzea
- REFIT deitutako ekimenak kontuan izatea (Europako Batzordeak horiek kendu behar ditu, zaharkituak egoteagatik edo zentzurik ez izateagatik) eta, bereziki, moldatu behar direnak



- Legegileak ez diren proposamenak ezohiko kasuetan soilik aztertzea, horien helburua ondoren proposamen legegileak hartzeko eremua prestatzean denean
- Legegileak ez izateaz gain, tokietako edo eskualdeetako eskumenen erabilera oztopatzen duten proposamenen kasua izango litzateke azken arau horren salbuespena; adibidez, zerga-koordinazioaren eta ekonomiaren politika sendotutik ondorioztatutakoak

Ondorioz, lehentasunezko lau ekimen eta beste lau ekimen gehigarri ezarri ziren. Horiek 2014rako subsidiariorotasunari buruzko lan Programa osatzen dute eta jarraipena izango dute, subsidiariorotasunaren ikuspegitik.

Lehentasunezko funtsezko ekimenak 4 hauek dira: Hondakinak eta eraginkortasuna baliabideen erabileran, 2030era arteko energia- eta klima-politiketarako Esparrua, Europako irisgarritasunaren legea eta EBko legeriaren berrazterketa, airearen kalitateari dagokionez.

Txosten gehigarriak honako hauek dira: Ekoizpen ekologikorako EBko esparru politikoaren eta juridikoaren berrazterketa, ezohiko hidrokarburoen erauzketarako esparrua, informazioaren eta langileen kontsultaren arloko hiru zuzentarauen moldaketa eta hiri-mugikortasuna

Lehentasunen zerrendak aldaketak izan ditzake Batzordearen agenda politikoaren eta instituzionalaren arabera, eta ekimen bakoitzaren edukia benetan ezagutu ondoren.

Gainera, garrantzitsua da aipatzea 2014 trantsizio-urtea izango dela, egungo Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen agintaldiaren amaiera, 2014ko maiatzeko Europako Parlamenturako hauteskundeak eta 2014ko udazkeneko Europako Batzorde berriaren izendapena direla eta. Horregatik, baliteke programak aldaketak izatea, nahikoa aurrera egingo ez duten edota argirik ikusiko ez duten Batzordearen ekimenak egon daitezkeelako.

5.3. REGPEX plataforma

REGPEX Plataforma (Regional Parliamentary Exchange-Eskualde Parlamentuen Trukea) EBko prozesu legegilearen hasierako fasean, hau da, Alerta Garaiko Sistemak dauden Eskumen Legegileak dituzten Eskualdeen parte-hartzea bermatzeko sortu zen. Fase horretan egiaztatzen da Batzordeko proposamen legegileek Subsidiariorotasunaren Printzipioarekin betetzen duten ala ez.

Gogora dezagun, Lisboako Itunari jarraiki, estatuetakoa Parlamentuek eskualdeetako Parlamentuak kontsultatu ditzaketela fase honetan, Subsidiariorotasunaren Printzipioaren konplimenduaren inguruan. Beste aldetik, EKak errekurtsioa jarri dezake Europako Justizia Auzitegiaren aurrean, Subsidiariorotasun Printzipioa hautsi dela uste denean.

Europar Batasunean, erakundeetako eta Parlamentu nazionalakoko informazio-iturri garrantzitsuenekiko (hala nola, PreLex edo IPEX) sarbide erraza eskaintzeaz gain, REGPEX



eskualdeetako Parlamentuen arteko informazio- eta lankidetzeta-plataforma garrantzitsua da, subsidiarotasunaren analisisen prestakuntzan.

2013an, guztira, 66 ekarpen kargatu ziren REGPEX Plataforman. Kide aktiboenen artean Turingiako eta Emilia Romagnako Parlamentuak, Austriako Senatua, Austriako presidenteen Biltzarra eta Baden-Württembergeko Parlamentua ditugu. Egun, REGPEX Plataforma Eskumen Legegileak dituzten 74 Eskualdeetako 42 parlamentuk eta 29 gobernuk osatzen dute.

2013an, EKak bere REGPEX orria hobetu du, eskumen legegileak dituzten eskualdeen mapa interaktiboa eta eskualde-parlamentu bakoitzaren profil zehatzak sartuta. Gainera, inprimaki estandarra du ingelesez, subsidiarotasun analisiak laburtzeko.

Azkenik, alerta goiztiarreko esperientziak aztertzeko eta jardunbide egokien adibideak zabaltzeko, EKak honako ikerlan hau argitaratu zuen: "Lisboak Itunak ezarritako subsidiarotasuneko alerta goiztiarraren mekanismoa: eskumen legegileak dituzten eskualde-parlamentuen eta bestelako agintaritzaz azpizionalen rola". Bertan, eskualde-mota horiek alerta goiztiarreko prozesuan subsidiarotasun analisiak gauzatzeko erabiltzen dituzten prozedurak deskribatzen dira.

5.4. Kotsultak

5.4.1. Lurralde inpaktuaren ebaluazioa (2013ko martxoa)

2013an, Eskualdeetako Komiteak EBko eskualdeentzako eta udalerrientzako kontsulta antolatu zuen, Europako Batzordearen zerbitzuen lan dokumentua eztabaidatzeko, "**Lurralde-inpaktua ebaluatzea: eskualdeko eta tokiko inpaktua ebaluatzeko orientabide eragileak, Batzordearen inpaktu ebaluazio-sistemaren esparruan**" gaiaren inguruan.

Helburua lurralde-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Txostenaren proiektuaren prestakuntzan laguntzea zen.

Eusko Jaurlaritzak kontsulta honetan parte hartu zuen Subsidiarotasunaren Jarraipen Plataformako kide den Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren bidez.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, eta Europako Batzordeak argitaratutako dokumentuak 2008ko lurralde-kohesioari buruzko Liburu Berdearen argitalpenaren ondoren proposatutako eztabaida politikoan adierazitako itxaropenei eta ideiei erantzuten dienari buruzko kontsultaren inguruan, Euskadiren ustez, aipatutako Liburu Berdeak funtsezko kontzeptuak proposatzen zituen kohesiorako. Nolanahi ere, ordudanik 5 urte pasatu ondoren, lan dokumentu berri hori lurralde-inpaktuan soilik ardatzen denez, ez dio erantzuten Liburu Berdearen argitalpenaren ondoren proposatutako eztabaida politikoan adierazitako itxaropenei eta ideiei.

Alde horretatik, beharrezkotzat jotzen da lurralde-kohesioari buruzko eztabaidaren jarraipen eta garapen handiagoa egitea, zehazki, gobernantza-sistemari eta, erabakiak hartzean, gobernu-eskalak



sistematikoki elkartzeko beharrari dagokionez. Hitz batez, lurralde-kohesioak arreta handiagoa behar du; izan ere, ezinbestekoak badira ere, inpaktu-analisiak ez dira nahikoa lurralde-kohesioaren arloan aurrera egiteko.

Beste aldetik, EBko Kohesio Politikaren Europako lurralde-lankidetzaren helburua da, argi eta garbi, gehien zuzentzen dena lurralde-kohesioaren sustapenerantz, mugaz bestaldeko lankidetzaren proiektuen, proiektu transnazionalen eta eskualdeen arteko proiektuen finantzaketaren bidez. Alde horretatik, helburu horrek Hainbat Urtetarako Finantza Esparruari buruzko otsaileko Europako Batzordearen ondorioetan izandako beherapen finantzarioa penatzea baino ez zaigu gelditzen; izan ere, % 25 beheratu du Batzordearen 2012ko uztaileko hasierako proposamena.

Lurralde-inpaktua duten EBko sektore-politiken arteko koordinazioa hobetzeko hainbat *tresna* adierazten dituzten Europako Batzordearen *proposamenei* dagokionez, EAEn ustez, koordinazioa zein politika horien emaitzak hobetzeko erabilgarriak izan daitezke.

Ildo horretan izan daitekeen aurrerapen gisa, Eusko Jaurlaritzaren ustez, beharrezkoa litzateke autonomietako agintaritzen parte-hartzea arintzea eta areagotzea, Europako politiken diseinuan. Horretarako, dauden kanal guztiak sendotu beharko lirateke: Eskualdeetako Komitearen bidezko komunikazioa, parlamentu nazionalen parte-hartetik pasatuta (horiek erkidegoetako parlamentuak izan behar dituzte kontuan euren jarrerak zehazterakoan), zein Batzordearen eta autonomia-erkidegoen arteko kontsulta-kanal zuzenen bidezko komunikazioa (komitologia mailan zein beste maila batzuetan).

Era berean, asko gelditzen da egiteko analisi-tresna mota horren sarrerari dagokionez, ez bakarrik Europako politiken diseinuan, baizik eta baita estatu zein eskualde politiken mailan ere, gobernu maila ezberdinek praktikan jarritako politiken elkarrekiko inpaktuak eta interakzioak kontuan izateko.

Lurralde inpaktua duten sektore-politiken *ebaluazioen derrigortasunari* dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren arabera, analisi hori saihestezina izan beharko litzateke. Beti da hobe lurralde mailan desorekatutako emaitzak prebenitzea, zuzentzea baino; horregatik, salbuespen handietan soilik izan beharko litzateke posible eskakizun hori malgutzea edo zehaztea. Adibidez, larrialdia dela eta, aipatutako politika berehala bideratzea eta hartzea ezinbestekoa den kasuetan, hortaz, hori berehala hartzea horren diseinu hobea bermatzea baino garrantzitsuagoa izan dadin. Nolanahi ere, larrialdi hori nahikoa justifikatu beharko litzateke, eta aurretiko ebaluaziorik gabeko hartutako neurria aztergarria eta birplanteagarria izan beharrezkoa litzateke, larrialdia pasatu ondoren.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak nabarmendu du ebaluazio hori funtsezkoa izango litzatekeela lan dokumentuaren terminoetan zehaztutako lurralde-inpaktu nabarmena edo asimetrikoa duten sektore-politiken kasuan. Era berean, adierazi du, kasu batzuetan, inpaktu hori nabarmena dela hasieratik

baina dokumentuak ere aurrerapen interesgarriak adierazten ditu, lurralde-inpaktua hasieran detektatzea zailagoa den kasuetan identifikatzeko; ildo hori sakondu eta zehaztu egin beharko litzateke.



Ebaluazio horiek finkatzeko lan dokumentuan proposatutako *informazioari, metodologiari eta tresnei* dagokienez, Euskadik lurralde-ikuspegia eta lurraldeen iritziak kontuan izango dituen deszentralizatutako sistema hautatu du. Era berean, gaiaren konplexutasuna dela eta, egokia litzateke lurralde-inpaktuko analisi horietan aholkua emango duen eta lagunduko duen espezializatutako erakundearen laguntza izatea, dagozkien lurralde-agintaritzen ondoko azterketa jasango duten behin-behineko analisiak proposatzera iritsita. Erakunde espezializatu horrek lurralde-agintaritzen ebaluazio-lana erraztu beharko luke, baina ez ordezkatu.

Amaitzeko, Euskadik nabarmendu du eskualdeetako zein tokietako erakundeen mobilizazio eta inplikazio handiagoa egon beharko litzatekeela Europa 2020 Estrategiaren formulazioan zein aplikazioan.

Euskadiren zein gaitasun legegilea duten Europako beste eskualdeen kasuan, Europa 2020 Estrategia zabaltzeko funtsezko eskumen gehienak estatu mailari soilik dagozkie, edota hainbat administrazio mailaren artean daude partekatuta. Horregatik, ezin bestekoa litzateke ziklo politikoaren lurralde-dimentsioa izatea. Gainera, lurralde-inpaktuaren ebaluazioa sartu beharko litzateke Hazkundeari buruzko Urteko Txostenean.

Era berean eta azkeneko adierazpen gisa, lurralde-inpaktuko ebaluazioak egin beharko lirateke Estatu kideen mailan, barne neurriak hartzerakoan, Estatu kideak Erkidegoko zuzenbidea ezartzen ari denean (kasu horretan, Europa mailan jadanik gauzatu den lurralde-inpaktuko ebaluazioa aprobeztatu eta horren gainean eraiki beharko du), zein berariazko ekimenak hartzen direnean.

5.4.2. Hondakinei buruzko EBko legeria (2013ko maiatza)

Europa 2020 Estrategiaren esparruan, Europako Batzordeak kontsulta antolatu zuen Subsidiarotasunari buruzko Aditu Taldearekin, hondakinen inguruko EBren politika eta legeria aztertzeko. Hondakinei buruzko txostena EKren 2013ko subsidiarotasunari buruzko lan Programaren gaietako bat da.

Helburua hondakinen inguruko EBren funtsezko helburuen azterketari buruzko EKren ekimen Txostenaren prestakuntzan laguntzea litzateke, ondoren, 2013ko uztaileko osoko bilkuran onartzeko.

Eusko Jaurlaritzak Ingurumen eta Lurralde Politikoko Sailaren bidez parte hartu zen kontsulta honetan, horrela, kontsultatutako gainontzeko Estatu Kideetako eskualdeetako eta tokietako erakundeetara gehituta.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, eta hondakinen inguruko EBren legeriaren aplikazioari dagokionez, Euskadik ez su parte hartzen legeria nazionalaren gaineko ezarpenean, baina bai horren aplikazioan zein ondoko konplimenduan.



Eremu horretan, Euskadik hondakinen autonomia-planak egiteko eskumena du, bai eta hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-jardueren baimena emateko, zaintzeko, ikuskatzeko eta berresteko ere. Tokiko Erakundeei edo Foru Aldundiei (egokia denean) dagokie, derrigorrezko zerbitzu gisa, etxeetan, saltokietan eta zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea, euren ordenantzek ezarritako moduan.

Etxeko hondakinei zein eraikuntzatik eta eraispenetatik etorritako hondakin ez arriskutsuei buruzko EBren helburuak sendotzeko beharrari dagokionez, Euskadi ez dela egokia deritzo.

Estatu mailan, herrialde gehienek ez dituzte egun ezarritako helburuak betetzen. EAEk ere ez du pisuaren % 50eko ezarritako helburu globala betetzen, % 31 lortuta. Zehazki eta banakako korrontek aztertuta, paperaren, kartoiaren eta beiraren helburuak betetzen dira, baina ez dira metaletarako, plastikoetarako eta biohondakinetarako hitzartutako ehunekoak lortzen.

5 urtero ebaluatuko den *edukiontzien berreskurapenari eta birziklapenari* dagokionez, Euskadiren jarrerak ildo bera jarraitzen du; hau da, ez lirateke Europa mailan helburu gehiago ezarri beharko. Helburu handizaleagoak ezartzea ez da irtenbidea; aldiz, irtenbidea egungo helburuak betetzea zailtzen duten arazoak aztertzea eta birziklapen hori are gehiago handitzeko informazioa trukatzeko zein pizgarriak edo errazteko tresnak garatzea litzateke. Garrantzitsuena eskualdeko birziklapen tasak handitzen lagunduko duten neurriak hartzea da.

Aldiz, *prebentzio politiken* eremuan, Europaren rola garrantzitsuagoa dela ulertzen da. Horiek eraginkorrak izan zaitezten, prebentzio-helburu bereziak ezarri behar dira, hondakin-fluxu bakoitzerako. GEEHtarako (Gailu Elektrikoen eta Elektronikoen Hondakinak) bezala ezarritako helburu kolektiboak fretoa dira berrerabilpenerako prestaketa-jarduerak ezartzeko.

Ondorioz, erabilgarritzat jotzen da prebentzioari, birziklapenari, balorizazioari eta biodegradazioari buruzko arau teknikoak izatea, jarraipen-adierazleak ezartzeko. Halaxe gertatzen da edukiontzien Zuzentarautik ateratako Arau Teknikoekin, eta horiek beste hondakin fluxuetarako erreferentzia gisa har litezke (GEEHtarako, besteak beste). Eremu horretan potentzial handien duten korrontek edukiontzia eta GEEHak dira, eta horien kontsumoek merkatuaren baldintzekin dute zerikusia.

Gainera, beharrezkoa litzateke prebentzio-politiken ebaluazioa islatuko duten adierazleak ezartzea, birziklapenekoekin eta bereizketakoekin konbinatuta.

Erabilgarri dauden jardunbide egokietatik abiatuta eta subsidiarotasun printzipioa errespetatuta, EBk neurri horiek ezartzea homogeneotasun handiagoa erraztuko luke printzipio horiek merkatu globalean aplikatzerakoan; izan ere, zaila da ekoizpen zein kontsumo jarraibideak herrialdeetatik edo eskualdeetatik aldatzea.

Neurriak kontsumitzailearentzat zein enpresarentzat ekonomikoki errentagarriak izatera zuzendu beharko lirateke; adibidez, edukiontzi eta gailu elektriko eta elektroniko berri gutxiago merkaturatzea, horiek konpontzearen eta, ondoren, berrerabiltearen zein produktuen bizitza erabilgarria luzatzearen aurrean (programatutako zahartzapenaren joeraren aurka).



Era berean, Euskadirentzako garrantzitsua da EBk ezarritako hondakinen bizitzaren amaieraren irizpideen ezarpenean sakontzea, hondakinetatik lortutako bigarren mailako materialen erabilpena sustatzeko neurri gisa.

Beste aldetik, *industria-, merkataritza- edo bestelakoak bezalako beste hondakin mota batzuetarako* helburuak ezartzeko aukeraren inguruan, Euskadiren ustez, EBren ekintza hori ez da beharrezkoa; izan ere, EAEn, industria- zein merkataritza-hondakin asimilagarrien sorrera pixka bat txikitu da, eta gaikako bilketaren ehunekoa handitu egin da, masako bilketaren aurrean. Kopuru handienetan sortzen diren korronteak papera, industria-nahasketak, beira eta inausketako hondakinak dira, baina ia guztien sorrera denbora pasatu ahala murrizten da.

Nolanahi ere, nabarmen handitu den korrontea dago: beira-hondakinak (gehienak ostalaritzaren sektoretik datoz); hori 15 bider handitu da 5 urtetan. Problematika hori EBn zabalduetako arazoa balitz, interesgarria litzateke sektore horretarako, kontsumo jakin batzuetatik abiatuta, ontziratatu gabeko likidoen kontsumoa sustatzeko neurriak edota beirazko edukiontzien berrerabilpen sistemen erabilera errentagarri egingo duten neurriak ezarri ahal izatea.

Gainera, kopuru txikixeagoan ekoizten badira ere, nabarmenezkoa da ehunen, material organiko konpostagarrien eta etxetresna elektrikoan ildoan izandako kopuruaren gehikuntza (seguruenik, geroz eta handiagoa den bereizketa dela eta).

Horrez gain, alderatu behar ez diren beste korronte batzuk daude, baina problematika pixka bat aldatu daiteke eskualde edo herrialde ezberdinetan; ondorioz, garrantzitsutzat jotzen da herrialde edo eskualde horiek kasu horietarako birziklapen tasa zehatzak ezartzea.

Biohondakinen kudeaketari buruzko ebaluazioa aurkezteari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren ustez, oso egokia litzateke biohondakinen kudeaketarako gutxieneko baldintzak eta biohondakinetatik ateratako konpostarentzako eta digestatoarentzako kalitate-irizpideak ezartzea, giza osasunaren eta ingurumenaren babes maila handia bermatzeko. Irizpide horiek Europa mailan islatu beharko lirateke, konpostaren Europako merkatuaren garapena sustatzeko.

Azkenik eta *hondakinen isurien inguruko helburuen* azterketari dagokionez, Euskadiren ustez, beharrezkoa da EBk horiek murrizteko neurriak martxan jartzea; izan ere, 2009an, EAEn zabortegetan utzitako hondakin biodegradagarrien helburu nagusia bete bazen ere, oraindik ez da lortu 2016rako ezarritako helburua betetzea, lortzea espero bada ere.

Amaitzeko, hondakin fluxu jakin batzuetarako *isuri-debekuei* dagokienez (adibidez, hondakin birziklagarriak, bero-ahalmena dutenak edo bestelakoak), berak ezar litezke EB mailan; era berean, teknikoki edo ekonomikoki arrazoitutako kasu berezietan, eskualde/estatu mailan, salbuespenak onartuta.



5.4.3. Portuei buruzko paketea (2013ko uztaila)

2013ko maiatzean, Europako Batzordeak "Portu zerbitzuen merkaturako sarbidea eta portuen gardentasun finantzarioa" izeneko Araudi berria onartu zuen, portu-eragiketak eta Europako kostako portuetan izango diren garraio konexioak hobetzeko.

Portuei buruzko paketea Eskualdeetako Komitearen lehentasunezko gaietako bat denez, 2013ko uztailan, horrek kontsulta antolatu zuen, Erkidegoko Araudi berriak Subsidiarotasun Printzipioa errespetatzen zuen ala ez jakiteko.

2013ko uztailan, Eusko Jaurlaritzak kontsulta horretan parte hartu zuen Garraioaren Azpiegituraren Zuzendaritzaren bidez, horrela, Estatu Kideetako kontsultatutako gainontzeko eskualdeetako eta tokietako erakundeetara gehituta. Era berean, aipatzekoa da Gipuzkoako Portuen Lurralde Zerbitzuko arduradun Idoia Ortubiak eremuko adituen lantaldean parte hartu zuela, Euskadi foro horretan parte hartzeko hautatutako 8 eskualdeetako bat izanda.

Aipatutako mintegian, Europako Batzordeak bere ESPON programa azaldu zuen; hori Europako arau bakoitzak eskualdeei eta probintziei nola eragiten dien aztertzea helburu duen tresna informatiko oso bisuala da. Adibide gisa, portuei buruzko araudi berriak bertako lurraldeei nola eragiten dien proiektatu zuten ("Portu paketea" deitutakoa). Bertan, adituek programa informatikoak ematen duen informazioaren egokitzapena eztabaidatu zuten Batzordeko ordezkariekin, bai eta berak kontuan izan beharko lituzkeen elementuak ere, araua prestatzerakoan eta lurraldeetako inpaktua aztertzerakoan.

5.4.4. Kontratazio publikoaren alorreko fakturazio elektronikoa (2013ko iraila)

2013ko ekainaren 26an, Europako Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari zuzendutako kontratazio publikoaren alorreko fakturazio elektronikoari buruzko Zuzentarau berria onartu zuen, kontratazio publikoa modernizatzeko.

Eskualdeetako Komitearen Subsidiarotasunaren arloko lehentasunezko 5 gaietako bat izanda, horrek kontsulta antolatu zuen 2013ko irailean, Erkidegoko Zuzentarau berriak Subsidiarotasun Printzipioa errespetatzen duen ala ez jakiteko; izan ere, horren arabera, erabakiak herritarrarengandik gertuen dagoen gobernu maila eraginkorrean hartu behar dira.

Eusko Jaurlaritzak kontsulta horretan parte hartu zuen Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren bidez, horrela, gainontzeko Estatu kideetan kontsultatutako eskualdeetako eta tokietako erakundeetara gehituta. Era berean, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritza Eskualdeetako Komiteko Subsidiarotasun Plataformako kide aktiboa dela eta Adituen Taldeko kidea dela.

Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenei dagokienez, horrek jakinarazten du ez diola oztoporik jarriko aipatutako zuzentaruaren izateari, Batasuneko herrialde guztien araudi uniformeak lortzeko.

Era berean, eta hobekuntza legegileari dagokionez, adierazi du tokietako eta eskualdeetako aspektuak ez direla behar bezala kontuan hartzen; izan ere, ez dira behar bezala kontsultatu Batasunak ekimena erabakitzekeo prozesuan.

Azkenik, erantsi du Batzordeak proposatutako ekintzaren inplementazioak gehiegizko karga finantzarioak edota administratiboak eta lotutako kostuak izan ditzakeela.

5.5. Subsidiarotasunari buruzko Biltzarra Berlinen (2013ko abenduak 18)

2013ko abenduaren 18an, Subsidiarotasunari buruzko Europako VI Gailurra egin zuten Berlineko *Bundesraten* (Alemaniako erakunde konstituzional federatiboa eta legegilea da). Bi urtez behingo foroaren helburua subsidiarotasunaren kontrolaren erakundeen arteko dinamika sendotzea da.

Subsidiarotasunaren helburua erabakiak herritarrarengandik gertuen dagoen maila eraginkorrean eta gobernu maila egokienean hartzen direla bermatzea da, EBren eskumen eksklusiboa ez diren politiketan.



Bundesrat-en egindako subsidiarotasunari buruzko Europako VI. Gailurra (Berlin)

Subsidiarotasunaren inguruko urteko ekitaldi nagusitzat jotako subsidiarotasunari buruzko 6. Biltzarrak 22 herrialdeko 200 pertsona inguru hartu zituen, eta EKak eta Alemaniako Bundesratek antolatu zuten. Bertan, EBko erakundeetako ordezkari nabarmenek, estatuetako eta eskualdeetako parlamentuek eta eremu akademikoko ordezkariak parte hartu zuten, subsidiarotasun printzipioaren egoera eta horrek EBko legeriaren prestakuntzan duen eragina ebaluatzekeo, Lisboako Ituna indarrean sartu ondoren.



Aipatzekoa da ekitaldia bere benetako izaera instituzionalarengatik nabarmendu zela eta aurrekaria sortu zuela etorkizuneko ekitaldietarako eta lankidetzetarako. Biltzarraren ondorioetatik bost ideia nagusi atera daitezke:

- Subsidiariorotasun printzipioa EBko legeriaren legitimotasun demokratikoa ebaluatzeko irizpidea izan behar da. Subsidiariorotasuna funtsezko tresna da gobernu maila ezberdinek duten rola aztertzeko eta argitzeko, EBko herritar guztien mesederako, politikei forma ematea helburu duela.
- Subsidiariorotasunaren Alerta Goiztiarraren Sistema tresna baliotsua da subsidiariorotasun eraginkorragoaren jarraipenerako eta, ondorioz, kontrol demokratiko handiagorako; eskumen legegileak dituzten eskualdeetako parlamentuek rol garrantzitsua izan behar dute bertan.
- Subsidiariorotasunaren jarraipenaren arloko erakundeen arteko lankidetzak balio erantsi argia eskaintzen du eta handitu egin behar da, subsidiariorotasun printzipioa ahalik eta modu eraginkorrean aplikatzeko.
- Subsidiariorotasunaren kultura sustatu egin behar da eta hainbat mailletako gobernantzarekiko harreman argia egon behar da.
- Europar Batasuneko politikek lehentasuna eman behar diete herritarrari, bai eta Europako gobernu ona bermatzen duen mekanismo nagusia (subsidiariorotasunaren printzipioa) erabili ere. Eta hori jende normalak uler dezakeen hizkuntzan adierazi behar da.

Kanpo Ekintzako idazkari nagusi Maria Ángeles ELORZA ekitaldira joan zen, Eusko Jaurlaritzako ordezkari gisa. Bere hitzaldian, autonomia-erkidegoak Erkidegoko instantzietara eramatea ahalbidetuko duen bidea artikulatzearen beharra defendatu zuen; izan ere, bere ustez, egun, Eusko Jaurlaritzak ez ditu nahikoa tresna subsidiariorotasunaren konplimendua behar bezala kontrolatzeko.

ELORZAren arabera, 24/2009 Legeari jarriki, Espainiako Parlamentuak ez ditu erkidegoetako parlamentuetako subsidiariorotasun txostenak kontuan hartzen, Kongresu-Senatu Batzorde Mixtoak subsidiariorotasunaren haustea jakinarazten duen txosten justifikatua onartzea erabakitzen ez badu. Horregatik, Batzorde Mixtoak arau-hausterik ez dagoela baderitzo, autonomietako parlamentuek kontrakoa badiote ere, ez dago txostena egin beharrik, ez eta Bruselari autonomia-erkidegoen jarrerak jakinarazi beharrik ere. Ondorioz, autonomietako parlamentuek gaur egun duten kontrol boterea mugatua da; izan ere, eskualdeetako txostenen erabilgarritasuna jarrera politikoaren eta estatuko Parlamentuaren borondatearen menpe gelditzen da.

Eusko Jaurlaritzak EBko 100 ekimen legegileri buruzko subsidiariorotasunaren inguruko 100 txosten inguru egiten ditu, Erkidegoko instantzietara bidali gabe eta, gainera, azkeneko hiru urteetan, Batzorde Mixtoak autonomietako Parlamentuetara bidalitako ekintza legegileen % 20 inguru landu du.

Azkenik, Idazkaritza Nagusiak subsidiariorotasun printzipioaren kontrol eraginkorra hobetzeko bideak bilatzeko beharra adierazi zuen, eskualdeetako gobernuen zein parlamentuen eta Europako



Batzordearen zein Eskualdeetako Komitearen arteko harreman zuzenagoa eta subsidiariotasunaren arloko lehentasunezko ekimenen aurretiatzko identifikazioa proposatuta (EKak ekimenak aurretik identifikatuta), eta erakunde azpiestataletako parlamentuek eskumen-kuotak dituztela gogoratu zuen, zenbait kasutan, estatu parlamentuen maila berean.

5.6. Subsidiariotasuna EKko irizpenetan

Subsidiariotasuna EKak txostenetako erreferentziazko puntuetako bat da. 2012ko subsidiariotasunari buruzko EKren urteko txostenak adierazi zuen EKraiko derrigorrezko kontsulta eremuetako proposamen legegileei buruzko txosten guztiek subsidiariotasunari buruzko konplimenduaren analisi sistematikoa hartu beharko luketela barne. Ondorioz, jarraian ikusiko dugu ezaugarri horiek dituen txosten batek soilik ez zuela subsidiariotasunaren gaia landu; horrek EK subsidiariotasunaren tratamenduan urrats kualitatibo handia ematen ari dela berresten du.

2013an, EKak 72 txosten onartu zituen guztira; horietako 52k subsidiariotasunaren printzipioaren aplikazioarekiko erreferentzia esplizitua hartu zuten barne. Hori guztizkoaren % 72 da. 52 txosten horietatik, 26k (% 36) jarrera argia ezarri zuten subsidiariotasun printzipioaren konplimenduaren inguruan.

Subsidiariotasunari buruzko erreferentziarik sartu ez zuten 20 txostenei dagokienez, honako gai hauen inguruko iritziak eman zituzten: Batzordearen ekimen ez legegileak, Europako erakundeetako dokumenturik ez zuten gaiak edo subsidiariotasun printzipioa aplikatzen ez duten EBren eskumen eskusiboko dokumentuak.

Subsidiariotasunaren ikuspuntutik, txosten garrantzitsuenak jarraian izendatuko ditugunak dira: ingurumen Inpaktu Ebaluazioari buruzko Zuzentarauaren azterketa; tabakoaren eta produktu deribatuen fabrikazioa, aurkezpena eta salmenta; hondakinen inguruko esparru Zuzentaraua, isurien inguruko Zuzentaraua eta edukiontzien politikari buruzko Paketea; lurralde inpaktuaren ebaluazioak; itsas-eremuaren antolakuntza eta kosten kudeaketa integratua; portu-paketea; fakturazio elektronikoa kontratazio publikoan; eta animalien pentsuen kontrol ofizialei buruzko Araudia.

6. Batasunaren erabakitze-prozesuak esku hartzeko beste tresna batzuk

6.1. Automobilgintzari buruzko eskualde-arteko taldea

Talde edo "Intertalde" hori 2009an sortu zen, automobilgintzaren sektorean inpaktu negatiboa eta autoen salmenten beherakada azkarra eragin zuen ekonomia-krisi globalaren ondorioz. Komeni da gogoratzea sektore horrek, zuzenean edo zeharka, hamabi milioi baino gehiagoko herritarrei ematen diela lana, hau da, EBko langileen % 10ari.

Taldearen helburua erkidegoko erakundeekin elkarrikketa-plataforma faboratzea, hori osatzen duten eskualdeen arteko esperientzien trukea laguntzea eta bere automobilgintzako klusterren arteko kontaktua sustatzea da.



Presidentea Gaztela eta Leongo Juntako presidente Juan Vicente HERRERA CAMPO da eta, egun, Alemaniako, Austriako, Belgikako, Eslovakiako, Espainiako, Estoniako, Finlandiako, Frantziako, Irlandako, Italiako, Poloniako, Portugaleko eta Erresuma Batuko eskualdeetako eta udalerrietako ordezkariak diren 54 kidek osatzen dute.

Intertaldeko eskualde kideak urtean bitan biltzen dira, eta bilera horiek lankideen topaketa teknikoak izan ohi dituzte aurretik. 2013an, Intertaldeko bilerak apirilean eta azaroan izan ziren, eta 3 bilera tekniko ere izan ziren.

Apirileko bilera honela izendatutako mintegia izan zen: "Mugikortasun elektrikoa: konexioak lagunduz". Ekitaldiak Europako Batzordeko bi ordezkariaren parte-hartzea izan zuen. Batetik, Automobilgintzako Unitatearen alboko buru Bonvissuto andreak EBko automobilgintzaren egoera ekonomikoaren ezaugarri nagusiak azaldu zituen eta CARS 2020 aditu talde sortu berriaren aurkezpena egin zuen, honen helburua CARS 2020 Ekintza Planaren neurrien aplikazioa kontrolatzea izanik. Arlo horretan, "CARS2020 Ekintza Plana" lan dokumentua eztabaidatu zen, eta Eskualdeetako Komiteak horri buruzko Txostena egingo du.

Europako Batzordeko Garraioko Zuzendaritza Nagusiko beste ordezkari Van Honackerek Batzordeak 2013ko urtarrilaren 24an onartutako garraiorako energia garbiei buruzko neurri pakete aurkeztu zuen. Paketeak ordezeko erregaien arloko Europako estrategia hartzen du barne, bai eta ordezeko erregaietarako azpiegitura sortzeko proposamena ere. Eztabaidan, ibilgailu elektrikoaren kargakudeaketan jarduten duen IBIL enpresako zuzendari nagusi Enrique Monasteriok hartu zuen parte.

Mugikortasun elektrikoari buruzko atalean, Europako eskualdeetako, klusterretako eta Nissan zein Renault bezalako enpresetako ordezkariak azpiegiturretan, industrian eta merkatu-neurrietan e-mugikortasun konexioak sortzeko moduari buruzko euren ikuspegiak azaldu zituzten, ahaleginak batzeko eta baterako ekintzak bilatzeko.

Enrique MONASTERIOk IBILen kasua aurkeztu zuen 2009an hasi zen Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta REPSOL konpainiaren arteko baterako proiektu gisa, lankidetzan publiko-pribatuaren eremuko jardunbide egokien adibide bezala.

Era berean, mugikortasun elektrikorako Europako bi plataformaren parte-hartzea izan zen: HYER, hidrogenorako eta mugikortasun elektrikorako eskualdeen Europako elkarte, eta lur garraioaren elektrifikaziorako Plataforma.

Azaroan egindako bigarren bilerari dagokionez, eztabaidaren gai nagusia automobilgintzaren ikerkuntzarako, berrikuntzarako eta networkingerako finantzaketa izan zen, 2014-2020 eperako. Intertaldeko kideek hurrengo finantza-aldirako Horizon 2020ren, COSMEren, Egitura Funtsen eta automobilgintzarako EIBren tresnen bidez finantzatzeko aukerak aztertu zituzten. Era berean, Europako eskualdeek euren baliabideak automobilgintzarekin zerikusia duten proiektuak finantzatzeko erabiltzeko moduari buruzko jardunbide egokien adibideak aurkeztu ziren.

Mintegia Automobilgintzaren Industriaren webgunearen aurkezpenarekin hasi zen, eta CARS 2020ren prozesu legegileari buruzko eguneraketa eman zien entzuleei. Programa horren helburua Europako automobilgintzari bultzada berritzailea ematea da.

Jarraian, hiru panelen azalpen xehatua egin zuten. Lehena automobilgintzaren sektorearen berrikuntzan eta kontaktu-sareen sorrera finantzatzeko aukeretan oinarritu zen. Azalpenean Industria Garapen Teknologikorako Zentroko ordezkariak eta EBren aurreko Euskadiko ordezkari Marta MARINek hartu zuten parte. Bigarren panela automobilgintzaren ikerkuntza eta azpiegiturak finantzatzeko aukerei buruzkoa izan zen. Eztabaida horretan Europako Batzordeko DG REGIOko I+G programen kudeatzaile batek eta Valentziako Komunitateko ordezkariak hartu zuten parte. Azkenik, Toskanako ordezkariak ere Italiak sektorean izandako esperientzia azaldu zuten.



Marta Marin bere parte-hartzean

Ekitaldi horretan, EBren aurreko Euskadiko ordezkari Marta MARINek Euskadik automobilgintzaren berrikuntzarako egitura-funtsen kudeaketan izandako esperientzia azaldu zuen eta, bereziki, Boroan, Bizkaian, egoitza duen AAZ Automobilgintza Zentroak egindako lana. Bere parte-hartzea jarraian zerrendatzen diren hurrengo 3 puntuetan laburbildu daiteke:

Lehenik eta behin, EGEF Funtsaren sektorekako banaketa zehaztu zuen 2007-2013 aldirako, Euskadin. Aipatzekoa da, Euskadik ekarpen horren % 74,8 berrikuntzaren, ekonomiaren eta enpresa-sektorearen garapenerako erabili zuela.

Bestetik, Marta MARÍNEK Automobilgintza Adimenduneko Zentroak (AAZ) Euskadin egindako lana azaldu zuen; hori gobernantza onaren eta, automobilgintzaren sektorean, Europako funtsak berrikuntzaren alde erabiltzearen adibidea da.

AAZ industria-sektoreak bultzatutako ekimena da, aldi berean, Bizkaiko Aldundiak, Zornotzako Udalak, Ermuako Udalak eta EGEFek lagunduta. Haren helburuak honako hauek dira:

- Industria-sektorean ezagutza sustatzea;
- Sektorearekin zerikusia duen oinarrizko ikerkuntza eta ikerkuntza aplikatua handitzea;
- Eremu profesional guztietan, automobilgintzaren inguruko trebakuntza bultzatzea;



- Tokiko enpresek sortutako balio erantsi handiko proiektu berriak sustatzea;
- Proiektu berritzaileak erakartzea;

Azkenik, automobilgintzak Euskadin duen garrantziari buruzko zenbait datu objektibo azaldu ziren. Zehazki, sektore horrek Euskadiko BPGren % 17 adierazten du, eta 75000 pertsonari ematen die lan mundu osoan (horien erdia Euskadin). Beste datu garrantzitsu bat Euskadin ezarpena duten multinazionalen kopurua izan zen. Zehazki, 33 enpresa handik dute euren egoitza gure lurraldean; besteak beste: Mercedes Benz, Alois Kober, AKT AG, Arcelor, Fiat Auto edo Tenecco. Gainera, hainbat tokiko talde, ETE eta kooperatiba ditu. Era berean, hartzaile nagusiak EBko herrialdeak direla nabarmendu zen, Euskadiko kapitala munduko 300 enpresatan badago ere.

6.2. REGLEG-EELB eskualde-arteko taldea

Talde honek botere legegileak dituzten eta, aldi berean, EKko kideak diren eskualdeetako gobernuak eta parlamentuak biltzen ditu. 2007an sortua, horren helburua eskualde horien interesak defendatzea da, mota guztietako egitura azpiestatataz osatutako Komitearen bidez: udalak, probintziak, eskualde administratiboak, etab. Zehazki, bere zereginak honako hauek dira:

- Gobernantzaren eta legegintza hobearen inguruko ekimenak erabakitzea
- Subsidiarotasunaren aplikazioan, maila azpinazionalen eskubideetan sakontzea
- ELko kideei eskumen legegileak dituzten eskualde gisa izandako esperientzia eskaintzea
- Europako gobernantza anitzean eta subsidiarotasun zein proportzionaltasun printzipioen aplikazioan zentratzea
- Subsidiarotasunaren kontrol mekanismoetako jardunbide egokien adibideak elkarri ematea

23 kidek osatzen dute Intertaldea, eta presidentea 2013ko urrira arte Bavariako Parlamentuko diputatu izandako Ursula MÄNNLE izan zen. Data horretatik aurrera, Belgikako Frantziako Erkidegoko Parlamentuko kide Jean François ISTASSEk ordezkatu zuen.

2013an, taldea bitan bildu zen: uztailan eta urrian.

Lehen bileraren helburu nagusia EELBren (Eskualdeetako Legebiltzarrak), REGLEGen (Eskumen Legegileak dituzten Gobernuen Sarea) eta eskumen legegileak dituzten parlamentuek eta gobernuak osatutako Intertaldearen arteko lankidetzaz aztertzea izan zen.

EELBko presidente Istasse jaunak 2013ko bere programari buruzko aurkezpena egin zuen, eta EELBk bere helburuak berrikusi behar dituela adierazi zuen. Zenbait kidek adierazi zuten REGLEGeko, EELBko eta Intertaldeko ordezkariak besteen bileretan parte hartu behar dutela, koherentzia bermatzeko eta EBko Barne Araudiaren berrazterketa bezalako elkarren arteko intereseko gaiak hautatzeko.



Gainera, Intertaldeko presidente Ursula MÄNNLEk EKak Subsidiarotasunaren arloan gauzatutako jardueren inguruko laburpena egin zuen, Aditu Taldearen lana eta 2013ko abenduan Berlinen egingo den Subsidiarotasunari buruzko Biltzarra nabarmenduta.

Euskal ordezkari Marian ELORZAK adi egotearen, koordinazioa hobetzearen eta Europar Batasuneko politiketan eskumen legegileak dituzten gobernuak eta eskualdeetako parlamentuek izan behar duten rol garrantzitsua sustatzearen garrantzia nabarmendu zuen.

Urriko bileran, eskumen legegileak dituzten eskualdeak eta parlamentuak Intertaldean parte hartzea nola erakartzea eztabaidatu zuten. EELBko presidentek EKren barnean REGLEGeko eta EELBko kideei oinarria emango dien egitura sortzea proposatu du, lanak indartzeko eta parte-hartze handiagoa lortzeko. Era berean, REGLEGek eta EELBk EKko osoko bilkuretan toki iraunkorra izatea proposatu da. Hori guztia 2014an aztertuko da, 20. urteurrena dela eta egingo duten EKren etorkizunari buruzko eztabaidaren eremuan.

Ondoren, Berlinen, Alemaniako Senatuan, 2013ko abenduaren 18an egindako Subsidiarotasunaren Gailurraren agenda aurkeztu zuten, eta ekitaldi horretan parte-hartzearen garrantzia jakinarazi zitzaizen eskumen legegileak dituzten parlamentuei eta eskualdeei, eskualde horiek subsidiarotasun printzipioaren zaintzan izan behar duten rol pribilegiatua dela eta.

Azkenik, aipatzekoa da Intertaldearearen jarduera gero eta eskasagoa dela, Eskualdeetako Komitetik kanpo REGLEG (botere legegilea duten eskualdeetako gobernuak) eta EELB (eskualdeetako legebiltzarrak) elkarteak daudenez gero. Horregatik saiatzen da Intertaldea sare horiek EKko

bileretan hartutako jarrerak ahalik eta gehien defendatzen, baina gero eta parte-hartzaile gutxiago ditu bere bileretan.

6.3 Eskualde-arteke Osasun Taldea

Azken urteetan, Eskualdeetako Komiteko kideek osasunari eta erlazionatutako gaiari buruzko zenbait txosten ezarri dituzte; horrek osasun politikek EB mailan duten garrantzi gero eta handiagoa eta eskualdeetako eta tokietako agintaritzek herritarrentzako osasun zerbitzuen prestazioan duten rol garrantzitsua islatzen du.

Hori kontuan hartuta, osasun arloko eskualde-arteke taldea 2010eko abenduan ezarri zen, EKko batzordeetako kide guztiek modu irekian eta informalean eztabaidatu zezaten eta tokietako zein eskualdeetako erakundeentzako garrantzitsuak diren osasun publikoari eta bestelako gaiari buruzko ikuspuntuak trukatu zitzaizen (osasunean eragiten duten gizarte-faktoreen ezagutzarekin eta beste sektoreek osasun emaitzetan eragiteko hartzen duten rolaekin zerikusia duten gaiak).

Eskualde-arteke Taldearen presidentea Dave Wilcox Derbyshire County Council-eko kidea da (UK) eta 50 kide ditu. Bere helburua ezagutzak eta jardunbide egokiak elkarri emateko foro gisa balio izatea da, eskualde-politikak osasun emaitzen ezberdintasun orokortuak murriztera egindako



ekarpena bermatuta eta osasun sistemen erreformari buruzko egungo eztabaidak sustatuta. Gainera, taldeak elkarrizketa hobetu nahi du EBko beste erakundeekin eta alderdi interesdun nagusiekin, osasun gaiez arduratzen den EKko sektore batzordearen eskumenetan sartu gabe.

2013an, Eskualde-arteko Osasun Taldea hirutan bildu zen guztira. Apirilean egindako **urteko lehen bileran**, bi gai garrantzitsu eztabaidatu ziren: e-osasunari buruzko Ekintza Plana eta tabako-produktuei buruzko Zuzentaraua. Ondoren, OMErekin garatutako harreman berria nabarmentzen duen Intertaldearen 2011-2013 Jarduera Txostena aurkeztu zuten. Azkenik, "Osasuna hazkuntzarako faktore erabakitzaile gisa: osasun arloan eskualdeen arteko ezberdintasunei aurre egiteko Egitura Funtsez baliatzea" ekitaldiari buruzko informazio eguneratua eskaini zuten. Hori taldeak babestu zuen eta, osasun arloko ezberdintasunei aurre egiteko, Equity Action (Bidezko Ekintza) baterako ekintzaren alderdi gisa gauzaturako Egitura Funtsen azterketa nabarmentzen du. Era berean, Egitura Funtsen erabilera hobea sustatzeko sortutako lineako orientabide tresnaren funtzionamendua azaldu zuten; horrek osasun arloko zuzentasuna handitzea ahalbidetuko luke.

Bigarren bilera 2013ko maiatzean izan zen. Bileraren gaia 2012ko irailean Europako Batzordeak prestatutako eta eHealth 2012-2020 Ekintza Planari erantzuteko sortuko den mHealth-ari buruzko Liburu Berdea izan zen. Horretarako, ekimen horrek bi helburu ditu: osasunean konexio mugikorren bidez aplikatu daitezkeen lege-esparrua argitzea, eta pazientearen ongizaterako esparrua ezartzea, bai eta kanpo alderdi interesdunei gai horietarako aukeren inguruko euren ikuspuntua galdetzea, Gailu Medikuen Zuzentzaratik kanpo.

Era berean, mHealth baliotsuagoa lortzeko, datuen artxibo zentralizatua eta hodei sistema bezalako datuak partekatzeko modua egon behar direla adierazi zuten, mota horretako sisteman, datuen babesa oso zabala izan beharko litzatekeela kontuan izanda.

2013ko urrian egindako **hirugarren bileran**, Taldeko presidente Dave Wilcox-ek EKren eta Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arteko Akordio Memoranduma sinatzea litekeela esanez ireki zuen saioa. Zehazki, OMEk 53 Estatu kide ditu European eta, aldi berean, horiek ezberdintasun handiak dituzte euren bizi-itxaropenari dagokionez, bai eta osasun sorospenen eremuan ere.

Egoera horren aurrean, OMEko ordezkariak adierazi zuen bere erakundeak Osasunari buruzko 2020 Estrategia hartu zuela; hori OME ko Europako Eskualdeko herrialdeen errealitate ezberdinetara egokitu daitezkeen eta baloreetan oinarritutako ekintzara zuzendutako politikak biltzen dituen esparrua da. Bere helburua populazioaren osasuna eta ongizatea nabarmen hobetzea da, ezberdintasunak murrizteko eta pertsonetan oinarritutako osasun sistema iraunkorrak bermatzeko.

Akordio Memorandumari dagokionez, eta aipatutako ituna eskualdeentzako onuraduna izango litzatekeela erakusteko, OMEren eta Eskualde-arteko Taldearen arteko proiektu pilotua garatu dela adierazi da. Aipatutako proiektuaren arabera, eskualdeek euren herritarrek batez beste pertsona bakoitzeko 5 k kentzea izango dute helburu, eta bileran, helburu hori lortzeko bideak eta adibideak azaldu zituzten.



Pisua galtzeari buruzko proiektu pilotu horretatik emaitza positiboak espero dira tokietako komunitateetarako; hala nola, dieta hobetua, alkohol kontsumo txikiagoa, azukrearen kontsumoaren beherakada eta jarduera fisiko gehiago.

6.4. Europako alderdi politikoak eta Espainiaren Ordezkaritza

Europako alderdi politikoak

2013ko apirilaren 10etik aurrera, EKak Batzordeko 353 kideetako gehienak barne dituen bost talde politiko ditu: Europaren aldeko Demokraten eta Liberalen Itunaren Taldea (EDLI), Europako Alderdi Popularraren Taldea (EAP), Europako Alderdi Sozialistaren Taldea (EAS), Europako Aliantza (EA) eta sortu berri den Europako Talde Kontserbadore eta Erreformista (ETKE).

Talde politikoetako kideak bildu egiten dira aurretik, batzordean edo osoko bilkuran aztertuko diren gaietan jarrera komunak izateko. Gainera, aparteko bi bilera egiten dituzte Europako hirietan, talde politikoaren interesekoak diren gaiak eztabaidatzeko.

Talde bakoitzak idazkaritza baten babes du, Eskualdeetako Komiteko lanetan kideen partaidetza errazteko ardura duena. Euren eginkizuna Eskualdeetako Komiteak organo politiko gisa duen papera indartzea da, kideen lana bistaratzea, Batasuneko erakundeekin duen lankidetzaren indartzea eta Eskualdeetako Komiteko barne-kudeaketa sustatzea.

Euskadiri dagokionez, 2013. urtearen hasieran Eusko Jaurlaritzaren X. legegintzaldia hasi ondoren, Eusko Jaurlaritzako ordezkariek ELDI Taldea osatu zuten (Europaren aldeko Liberalen eta Demokraten Ituna).

ELDI Taldez, Europaren aldeko Liberalen eta Demokraten Ituna

Talde politikoak 1998an ezarri ziren EKAN eta, garai horretan, kide liberalak eta demokratak bat egin zuten Liberal Demokraten eta Erreformisten Europako Alderdiaren taldea osatzeko (LDEE). Taldeak 2005ean aldatu zuen izena eta Europaren aldeko Liberalen eta Demokraten Ituna bihurtu zen (ELDI), Europako Parlamentuko talde kidean antzeko aldaketa islatuta eta kide berriak sartuta.

2012tik, Taldeko presidentea EKAN Delft hiriko (Herbehereak) alkate Bas Verkerk jauna da, eta presidenteordea, berriz, Kerryko Konderriko eta Hego-mendebaldeko Eskualdeko Agintaritzako (Irlanda) kide Paul O'Donoghue jauna.

Europaren aldeko Liberalen eta Demokraten Itunak Taldearen helburuak ezartzen dituen Misio Adierazpena onartu du Eskualdeetako Komitean.



Adierazpenak honako hau dio:

Europaren aldeko Liberalen eta Demokraten Itunak Europar Batasunak bere legeria ahalik eta modu deszentralizatuenean garatzen duela bermatzeko konpromisoa hartu du, Europako herritarrekin sistematikoko komunikatuta eta horiek diotena entzunda.

Taldeak helburu horiek bete nahi ditu, honako hauen bidez:

- Erakundea:

- EKak EBko erakunde eraginkor gisa bere garapena jarraitzen duela bermatuta, ikuspegi eta helburu argiekin lan eginda, eta Batasuneko erakunde-esparruari balio erantsia emanda.
- EKak erantzukizun, gardentasun eta eraginkortasun estandar altuenak mantentzen dituela bermatuta, eta Europako herritarren zein bertako tokietako eta eskualdeetako agintaritzen itxaropenei erantzunda.

- Herritarrak:

- EKren txostenek eta jarduerak gizabanako bakoitzaren askatasun eta errealizazio pertsonala errespetatzen eta sustatzen dituztela ziurtatuta, bidezko gizarte oparoa lortzeko modurik onena bezala.
- Gutxiengoaren babesa eta Ekren jarduerak Europako gizartearen konposizioa islatzen dutenaren bermea sustatuta, eta jatorri guztietako herritarrak sartuta, euren jatorri etnikoa, generoa, sexu-joera, erlijioa edo adina kontuan izan gabe.
- Batasuneko herritarren ezaugarria garatuta, EBko Ekren kide sarea herritarrarekin komunikatzeko eta hari kontsultatzeko erabilita.
- EBko beste erakunde batzuekin lan eginda Batasunaren barneko langileen mugikortasun handiagoa sustatzeko; adibidez, herritarrei garapen pertsonalerako eta profesionalerako EBn dauden aukerei buruzko informazioa emanda.
- Nortasun anitzen garapena Europar Batasun arrakastatsua lortzeko oinarri gisa sustatuta.
- Eskualde nortasunaren erabilera askea ziurtatuta.

- Eskualdea:

- EBk Europa mailan hobe tratatzen diren eremuetan bakarrik erabakitzen duela ziurtatuta; hau da, subsidiarioritasun printzipioaren konplimendu egokia bermatuta.
- Europako Parlamentuarekin, Batzordearekin eta Kontseiluarekin modu estuan lan eginda, EBko legeriak tokietako eta eskualdeetako agintaritzen ikuspegiak barne hartzen dituela bermatzeko.
- Europaren hazkunde ekonomikoari laguntzeko eskualdeen gaitasuna eta Europako bidezko gizarte-eredu eraginkorra garatzeko gaitasuna hobetuko dituzten neurriak sustatuta.
- EBko gobernu maila ezberdinen arteko lankidetzaren modu berrien garapenaren alde lan eginda, behar izanez gero, botere legegilea duten eta ez duten agintaritzen espezifikotasunak aitortuta.



- Batasuna:
 - o Europako herrien kulturen eta nortasunen ondarea ez de la galtzen, eta nortasun anitzen garapena bermatzeko erabiltzen dela ziurtatuta.
 - o Europako gobernantza sinplifikatua, arduratsua eta zuzena sustatuta.
 - o EKko txostenek eta jarduerak Batasuneko garapen iraunkorra eta Europako ingurumenaren babesa sustatzen dutela ziurtatuta.
 - o Deszentralizazioaren eta eskualdetzearen garapena sustatuta.
 - o Lehiakortasuna solidaritatean eta justizian oinarritutako ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheresia lortzeko baliabide gisa sustatuta.
 - o Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatuta.
 - o Benetako mugaz bestaldeko lankidetzak aktiboki landuta.

- Estatu ez kideak
 - o Beharrezkoa denean, EKko baliabideekin, demokratikoki legitimatutako tokietako eta eskualdeetako agintaritzen garapenari lagunduta, batez ere, EBko alboko estatuetan.
 - o Nazioarteko bakea eta egonkortasuna bermatzea.

Espainiako delegazioa

EKak kide guztiak euren estatuko ordezkaritzan biltzen dira osoko bilkura bakoitzaren aurretik, Komiteko gaiei buruzko informazioa trukatzeko. Gainera, EKko jarduerari buruzko informazio-koordinazioa eta fluxua dago, maila teknikoan. 2013AN, Espainiako Ordezkaritzaren koordinazioak Extremadurak izan zuen lehenengo, eta Balearrek ondoren.

Eusko Jaurlaritza Osoko Bilkura bakoitzaren aurretik maila politikoa egindako bileretan izan da, eta EKak kide diren Autonomia Erkidegoen eta 4 udalerrien artean gauzatzen den maila teknikoko koordinazio lanean parte hartzen du.

Espainiako Ordezkaritzaren 2013ko berrietasun nabarmenenak honako hauek dira:

Espainiako Ordezkaritzaren Bulegoaren eta burutzaren aldaketa

2013ko urrian, Espainiako Ordezkaritzaren karguak aldatu ziren EKan. Horrela, Espainiako Ordezkaritzaren burutza eta koordinazioa Balearretako Autonomia Erkidegoaren Gobernura pasatu zen, aipatutako Erkidegoko presidente den José Ramón BAUZÁ DÍAZen eskutik; Espainiako Ordezkaritzaren presidenteorde Gaztela eta Leongo presidente Juan Vicente Herrera Campo izendatu zuten eta, Ordezkaritzako kide bezala, berriz, Andaluziako Juntako presidente Susana Díaz Pacheco.



Aldi berean, EKak Mahaia berri zuten 2 urte eta erdiko eperako, Barne Araudiaren 31. Artikuluak ezarri bezala; horren arabera, Espainiako Ordezkaritza zuzentzeko hautatutako Espainiako kideek hartuko dute parte Mahaiaren bileretan.

2013ko urritik aurrera, 2015eko urtarrilera arte:

	Mahaikideak	“Ad personam” ordezkariek
Gaztela eta Leon (Presidenteordetza)	Juan Vicente HERRERA	María de DIEGO
Balear Uharteak	José Ramón BAUZÁ	Esteban MAS
Andaluzia	Susana DIAZ PACHECO	María Sol CALZADO

EKren 20. urteurrena

1994an sortu zenetik 20 urte igaro direla ospatzeko, EKak erakundeari ibilbideari eta etorkizuneko ikuspegiari buruzko hausnarketak islatuko dituen guztien jarrera eskatu zien estatuetako Ordezkaritzei. Euskadik ere bere ikuspegia eman zuen eta zenbait kritika aurkeztu zituen, guztien jarrera biltzeko, Espainiako Ordezkaritzak gauzatutako prozedura jarrairi eta eztabaida-faltari dagokionez.

Dokumentuak Espainiako Ordezkaritzaren jarrera islatzen du eta bere parte-hartze aktiboa zein Komitearen jardueretikiko konpromisoa nabarmentzen da, Ordezkaritza aktiboenetako bat izanda.

Dokumentu horretan, eskakizun nagusi hauek jaso zituzten:

- Europako Batzordeko eta Parlamentuko ordezkariekin kontaktu zuzena sendotzea, EKak emandako Txostenak eta Ondorioak ondoren kontsultatutako dokumentuetan islatu daitezen.
- Europako erakundeak sendotzen aktiboki laguntzea.
- EKren osoko bilkuren funtzionamendua eta edukia aztertzea.
- EKren jarrera kanpo adituekin egindako eztabaida politikoak sartuz nabarmentzea.
- EKren egituraren eta funtzionamenduaren inguruan hausnartzea.
- Batetik, Komiteko kideen eta, bestetik, Komiteko talde politikoaren, ordezkaritza nazionalen eta idazkaritzaren arteko lankidetzak bultzatzea.

- EKren nortasuna eta espezializazioa sendotzea, eta Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena ez den berariazko misioa duen Lurralde Ganbera gisa desberdintzea.
- EKren koherentzia politikoaren beharra azpimarratzea, aurrekontu-herstura dagoen une honetan.
- EKren eskumenen zabalkuntzaren eta Itunaren azterketa probablearen alde lan egitea, Europako Parlamenturako hurrengo hauteskundeen ondoren.



1 Eskualdeetako Komiteko Espainiako Ordezkaritza

PARTE-HARTZE BEREZIAK FOROETAN

Garapenerako lankidetza deszentralizatuari buruzko 3. Kongresua (2013ko apirilak 9 eta 10)

2013ko apirilaren 9an eta 10ean, Lankidetza Deszentralizatuari buruzko 3. Kongresuak Europar Batasuneko zein garapen bidean dauden herrialdeetako eskualdeetako eta tokietako ehunka ordezkari bildu zituen. Urtero egiten den ekitaldi hori Eskualdeetako Komiteak antolatzen du Europako Batzordearekin batera, esperientzien trukea eta garapenerako lankidetzaren arloko erakundeekiko elkarriketa errazteko.



Paul Ortegaren hitzaldia

Alde horretatik, Kongresuan, Europako Batzordeak hartzea aurreikusi duen eta Estatu kideen gobernu deszentralizatuen lana zehaztuko duen Komunikazioari buruz hitz egin zuten. Gainerako, Milurteko Garapen Helburuak kontuan izanda, hurrengo urteetarako Europako Lankidetza Agenda berriaren prestakuntzari buruz eztabaidatu zuten.

Biltzarra 5 mahaitan eta Osoko Bilkura batean antolatu zuten. Mahaietan eztabaidatutako gaiak honako hauek izan ziren:

- Mugaz bestaldeko eta eskualde-arte lankidetza eta lankidetza deszentralizatu, eskualdearen integrazio handiagoaren alde;
- tokietako eta eskualdeetako agintaritzak eta 2015 ondoko aldirako nazioarteko garapen prozesua;
- lankidetza deszentralizatuta, garatzen ari diren herrialdeetako deszentralizazio arazoaren eta erronken aurrean;
- lurralde gizataldeen gaitasunaren indartzea: garapenaren aldeko laguntza;
- tokiko agintaritzari buruzko Europako Batzordearen Komunikazio berrirantz, garapenerako lankidetzaren sektorean: kontsultaren emaitzak;

Eskualdeetako Komiteko idazkari nagusi Gerhard Stahl-en eta Europako Batzordeko EuropeAid Garapenerako eta Lankidetzako alboko zuzendari Klaus Rudischhauses-en parte-hartzeak izan zituen Kongresuaren inaugurazio saioaren ondoren, aldi berean gertatu ziren Mahaiak hasi ziren.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendari Paul Ortegak bosgarren mahaian parte hartu zuen; horren gaia “*Garapenerako Lankidetzaren sektoreko Europako Batzordearen Komunikazio berrirantz: kontsultaren emaitza*” izan zen. Zehazki, euskal ordezkariak Kongresuan emandako hitzaldia Euskadik Lankidetzaren Deszentralizatuaren eremuan izandako 28 urteko esperientzian zentratu zen.

Aldi berean, honako gai hauek landu zituzten lotutako 5 mintegi izan ziren:

- Lankidetzaren deszentralizatuaren inpaktua: eskualde-artearen harremanen ebaluazioa;
- migrazioa, mugikortasuna eta garapena: zein da eskualdeetako eta tokietako agintaritzen tokia?;
- lankidetzaren deszentralizatuaren aktore eta maila anitzak dituen ikuspegi berrirantz;
- Europar Batasunaren garapenerako lankidetzaren deszentralizatuarekiko laguntza;
- mendebaldeko Balkanen EBkiko atxikimendua: lankidetzaren deszentralizatuaren ekarpena,

Paul Ortegak ere Mintegi horietan parte hartu zuen. Zehazki, *lankidetzaren deszentralizatuaren aktore eta maila anitzak dituen ikuspegi berrirantz*. Horretan, Euskadiko ordezkariak uraren arauan izandako esperientzia berritzaileari eta horren parte solidarioari buruz hitz egin zuen.

EuroPCom Biltzarra (2013ko urriak 16 eta 17)

EuroPCom EKak Europako Parlamentuarekin, Batzordearekin, EBko Kontseiluarekin, EBko Lituaniako Presidentetzarekin eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearekin gauzatutako ekimena da. Laugarren Biltzarra 2013ko urriaren 16an eta 17an egin zuten Bruselan, komunikazio arloko Europa mailako zein Europa osoko estatu, eskualde eta udal mailako 800 aditu baino gehiago bilduta.



Urtero egiten duten biltzarraren helburua Europak komunikazio arloan dituen erronken inguruan eztabaidatzea da. Zehazki, 4. Biltzarraren gai nagusia komunikabideek maiatzaren 25eko hauteskunde europarretan izango duten rola eta jarrera izan zen, euroeszeptizismoaren goieneko aldiaren aurrean. Bestela esanda, helburua Europako komunikabideek egindako publizitate kanpainen diseinuaren eta antolakuntzaren ikuspegi kritikoa ematea da.

Biltzarra 2 egunetan egin zuten, eta 14 lantaldeetan banatu zuten. Lehen lanegunean hasiera hitzaldia Barack Obamaren berrautaketa-kanpainaren zuzendari Matthew McGregor-ek egin zuen. Ondoren, eztabaida hasi zen, EKko presidenteorde Mercedes Bresso-ren, Europako Parlamentuko presidenteorde Anni Podimata-ren, Lituaniako Europako Gaietarako ministro Vytautas Leskevicius-en, Ekonomia eta Gizarte Komiteko presidenteorde Jane Morrice-en eta, azkenik, EKko Komunikazioko Zuzendaritza Nagusiko zuzendari Gregory Paulger-en parte-hartzeekin. Arratsaldean, hurrengo egun osoan zehar jarraitu zuten lantaldeen azalpenak hasi ziren.



Luis Petrikorenaren hitzaldia

Euskadi ekitaldian txostengile gisa parte hartzera gonbidatu zuten, arlo horretan izandako jardunbide egokiengatik. Eusko Jaurlaritzako ordezkari gisa, Eusko Jaurlaritzako Irekiaren zuzendari Luis Petrikorena joan zen. Euskadiko ordezkariak lehen egunean egin zuen bere azalpena, “e-government, e-citizens, e-lusions?” izeneko lantaldearen esparruan. Bertan, solaskideek estatuetako zein eskualdeetako erakundeek sare sozialak euren

komunikazio estrategietara nola eramaten dituzten adierazi zuten, bai eta horrek gizarte zibilaren parte-hartzean izandako inpaktua ere. Zehazki, Luis Petrikorenak “7 hitzetan” aurkeztu zuen Irekiaren kasua.

Berrikuntzaren aldeko Batasuna Biltzarra (2013ko azaroak 27)

Europa 2020 Estrategiak Europarako hazkunde adimenduna, iraunkorra eta inklusiboa bermatu nahi du. Hori kontuan izanda, Eskualdeetako Komiteak konferentzia-ziklo bat antolatu zuen 2013an EBren hazkunderako Europa 2020 Estrategia garatzen duten zazpi ekimen enblematikoei lotuta Europan egiten ari diren aurrerapenak sustatzeko eta ebaluatzeko. Ekitaldi hau, bada, ziklo horren barruan dago.

Biltzarraren helburua ekimen enblematikoaren azterketa egitea da, eskualde mailan, Europako erakundeetako, Estatu kideetako eta eskualdeetako ordezkari nagusien iritzien trukearen bidez. Biltzarrak 300 pertsona baino gehiago bildu zituen, Eskualdeetako Komiteko presidentez eta presidenteordez zein Europako beste erakunde batzuek gain.



Aurkezpenek eta eztabaidek 4 gairekin izan zuten zerikusia:

- Espezializazio adimenduneko estrategiak
- Berrikuntza, enpresak eta enplegua
- Mugaz bestaldeko sareak
- Berrikuntza irekia

Goizean garatutako inaugurazio-saioan, parte-hartzaileek Europako eskualdeek eta hiriek berrikuntzaren eremuan egindako ekarpenen inguruko euren iritzia eman zuten.

Arratsaldean, espezializazio adimenduneko estrategien tailerra hasi zen; bertan, parte-hartzaileek eremu horretan izandako aurreko esperientziak azaldu zituzten eta, 2014-2020 eperako, estrategia berrien prestakuntzaren inguruan eztabaidatu zuten.

Tailer horretan hartu zuen parte txostengile gisa Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuorde Estibaliz Hernaezek, espezializazio adimendunaren arloko Euskadiren estrategiak azaltzeko. Era berean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen aurkezpenerako standa ezarri zuten, jardunbide egokiaren adibide gisa.

Ikerkuntzako eta Berrikuntzako Espezializazio Adimenduneko Estrategia, **RIS3** bezala ere ezaguna, eskualde baten ekoizpen/enpresa-fokalizazioari dagokio, esparru globalean lehiakorrek eta garapenaren eragileak izan litezkeen eremuetan.

2014-2020 programazio-epean, espezializazio adimenduna aurretiazko baldintza bihurtu da inbertsioak EGEF Funtsekin bermatzeko, politikaren funtsezko bi helburutan:

- I+G+b sendotzea
- IKTetarako sarbidearen eta euren erabileraren gehikuntza

Era berean, aurretiazko baldintza izango da EGEF Funtsek erabiltzeko, ezagutzen transmisioa eta nekazaritza-, baso- eta landa-eremuetako berrikuntza bultzatzeko helburuarekin.

Eskualde aurreratuenek (Euskadi, besteak beste) ibilbide luzea dute garapen ekonomikoa laguntzeko estrategietan, azken 35 urteetan. Horregatik, bere hitzaldian, sailburuordeak adierazi zuen "RIS 3" espezializazio adimenduneko estrategiak arlo horretako politika historikoen jarraipen naturala zirela. Euskadiko ordezkariaren hitzen arabera, "RIS 3 prozesuaren helburu nagusia produkzio-erlaldaketa laguntzea da, epe ertain eta luzera garapena, enplegua eta ongizatea sortzeko".

Hernáezek ere nabarmendu zuenez, une honetan, Euskadin "RIS 3" estrategiaren lehentasunak definitzen ari gara, gure enpresa-gaitasunak, gaitasun zientifiko eta teknologikoak eta aurreko biak aukera-eremuetan aplikatzeko gaitasuna oinarri hartuta, Euskadiren garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna hobetzeko". Euskal metalehentasunen artean energia, ekoizpen eta biozientziak aurkitzen dira.



Estibaliz Hernaez sailburuordea eta Euskadiren standa

Sailburuordearen hitzetan, "euskal industriaren lehiakortasunaren hobekuntza, horren balio erantsia zein eskaintzaren sofistikazioa handituta, ezinbestekoa da enpresen biziraupenerako baina, batez ere, gure gizartearen aurrerapenerako".

Euskadiko ordezkariaren hitzaldiaren ondoren, berrikuntzari, enpresei eta enpleguari buruzko bigarren tailerra hasi zen; bertan, berrikuntzak enpresa-ustiapenean duen rola landu zen.

Jarraian, mugaz bestaldeko sareei buruzko hirugarren tailerlean, parte-hartzaileek euren esperientziak eta berrikuntza-proiektuak azaldu zituzten, lurralde-lankidetzako helburuaren esparruan.

Azken taldeak berrikuntzaren eremuan aurrendariak diren eskualdeen eta hirien arteko tailer interaktiboa egin zuen eta, bertan, erronka berriak ezarri ziren.

Amaitzeko, amaiera saioan, bertan zeuden agintaritzak nagusiek (horien artean, EKko presidente Ramón Luis Valcárcel, Europako Parlamentuko kide Hermann Winkler eta Barne Merkatuaren eta Zerbitzuen arduradun den Europako Batzordeko kide Michel Barnier) jardunaldiaren azterketa egin zuten.

Open Days. Europako Eskualde eta Hirien XI. Astea

2013ko urrian, Open Days jardunaldiak, Europako Eskualde eta Hirien Asteak, bere hamaikagarren urteurrena ospatu zuten. Open Days jardunaldiak erreferentziazko astea bihurtu dira Europar Batasunaren agendan; izan ere, eskualdeetan zein politikek funtzionatzen duten ikusteko, esperientzia praktikoak zabaltzeko, kontaktu berriak egiteko eta sare berriak eratzeko aukera dira.

Aurten, ekitaldiak 5600 pertsona inguru bildu zituen, eta horiek aktiboki hartu zuten parte 2013ko urriaren 7tik 10era Bruselan antolatutako 100 tailerretan, eztabaidetan eta mintegietan. Horrez gain, Europako hainbat hiritan gertatu ziren, 2013ko ekainaren eta azaroaren artean, Open Days jardunaldiei lotutako tokiko 200 ekintza baino gehiago.

Aurtengo jardunaldi irekietarako lema "Europako eskualdeak eta hiriak 2020ra bidean" izan zen. Horren barnean, hainbat gai landu ziren; hala nola, hazkundea, enplegua sortzea eta lehiakortasuna bultzatzea. Nabarmentzekoa da lehen aldiz 2013an antolatutako Master Class ekimena; horrek 30 herrialde baino gehiagoko doktoregoko ikasleak eta ikerle gazteak biltzen ditu eskualde eta hiri garapenari buruzko etorkizuneko ikerkuntzaren inguruko mintegietan.

Europako sareek eta kideek zein erakundeek Euskadiren parte-hartzea eskatu zuten, egun horietan Bruselan antolatutako foroetan. Euskadik Europako eztabaidara bere esperientzia eta jardunbide

egokiak zein balio erantsia ekarriz parte hartu zuen, hainbat gaitan (hala nola, eskualdeek Europaren eraikuntzan duten parte-hartzea, industria-politika eta klusterren rola, subsidiariorotasuna), bai eta Euskadi krisi ekonomikoaren aurreko eskualde-eredu aurkeztuta ere.

Euskadiren ekimenak

- **Euskadi, krisi ekonomikoaren aurreko eskualde indartsuaren Europako eredu.** European Regions Research and Innovation Network (ERRIN) sareak, Erkidegoko kideekin eta adituekin batera, Euskadi hautatu zuten krisi ekonomikoari hoberen aurre egiten ari den Europako eskualdeetako bat bezala. EBrako Euskadiko ordezkari **Marta MARIN** EBren aurreko Irlandako eskualdeen Ordezkaritza Bulegoan izandako biltzarrean txostengile gisa parte hartzera gonbidatu zuten; bertan, euskal ekonomikoaren gakoak jakinarazi zituen.
- **Euskadiren kanpo-ekintza eta eskualdeko diplomazia.** EBrako Euskadiko ordezkariak Europako Batzordeak antolatutako biltzar/eztabaida batean ere hitz egin zuen. Horren izena: "Eskualdeko krisi diplomatikoa edo eskualde-diplomaziaren krisia? Nola eragin die krisiak EBko eskualdeen harremanei, EBren onena ateratzeko?". Horren helburua EBren aurreko lana sendotu nahi duten EBko hainbat kiderekin eta eskualderekin ikasitako ikasgaiak partekatzea izan zen.
- **Euskadiren kluster-politika.** 2012ko urrian, Batzordeak "Hazkunde eta susperraldi ekonomikorako Europako industria sendoagoa" jakinarazpena hartu zuen. Aipatutako jakinarazpenean, Europako Batzordeak, EBren, bere estatu kideen eta industriaren arteko lankidetzaren proposatzen du, Europari industria-iraultza berriari aurrerapen lehiakorra izango den bultzada emateko. Eredu horretan, klusterrek industriaren arloan duten rolari buruzko biltzarra egin zuten, eta Euskadik klusterren politikan duen 20 urteko esperientzia ekarri zuen Europako eztabaidara.
- **Arauen kalitatearen ebaluazioa Euskadin.** Eusko Jaurlaritzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendari Xabier UNANUEk kalitatearen garrantziari, legeriaren aplikazio egokiari eta EBko lurraldeetan duen inpaktuari buruzko hitzaldia egin zuen, lurralde-koehesiorako tresna gisa, Europako arauen lurralde inpaktuaren ebaluazioari buruzko mintegiaren esparruan. Gai horren inguruko 8/2003 Euskadiko Legea aurrendaria izan zen Estatuan.



EBrako Euskadiko ordezkaria Open Days jardunaldietan



ONDORIOAK

Zor subiranoaren krisiak eta Europar Batasunean izandako jardura ekonomikoaren uzkurdua gogorak eta langabeziaren hazkundeak egungo egoera globalaren protagonista nagusiak izaten jarraitzen dute. Gainera, EBri buruzko eztabaida ,ez soilik horren erakundeen eta bere gobernantzaren inguruan, baizik eta baita gizarteari ekartzen dion balio erantsiaren inguruan ere, izan ziren 2013ko agenda politikoaren guneak.

Gainera, aurrekontu egoera delikatua eta politika ekonomikoek erakundearen funtzionamenduan duten garrantzia direla eta, Hainbat Urtetako Finantza Esparru (HUFÉ) berria onartzeko negoziaketak ere funtsezkoak izan dira 2013ko Europaren agertokian. 2013ko amaieran onartutako eta bi urte eta erdiko negoziaketen emaitza den hitzarmenari esker, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, EBko gastu programen belaunaldia jarriko da martxan.

Eskualdeek eta hiriek ezagutzen dute egoera eta, horregatik, Europak aurrean dituen arazo handien eztabaidan eta konponketan parte hartu dute. Hain zuzen ere, alde horretatik, Europako eskualdeen eta hirien taldea ordezkatzeko Eskualdeetako Komiteak jadanik adierazi zuen berreskurapena garrantzi bera duten bi euskarritan oinarritu behar dela: hazkundera berriz sustatzea eta aurrekontu diziplina bermatzea; horretarako, ezinbestekotzat jotzen du eskualdeetarako kalitatezko finantza ekar dezakeen Europako Esparru Finantzario sendoa izatea.

Ildo horretan, 2013rako EKren lehentasuna Europa 2020 Estrategiaren helburuen konplimenduan aurrera egitea eta, "hobe inbertitzeko" garaian, tokietako zein eskualdeetako erakundearen rola bermatzea izan da, horretarako, merkatu bakarraren aprobetxamendu onena bilatuta.

Hazkundera eta enplegua lortzeko (eta gainera klima-aldaketari, energia-menpekotasunari eta pobreziaren murrizketari zein gizarte-bazterkeriari aurre egiteko) Europar Batasunaren ibilbide-orria den Europa 2020 Estrategiak toki pribilegiatua izan du EKren jardueran.

Horrela, 2013an, Eusko Jaurlaritzak Estrategia oinarritzen duten 7 ekimen enblematikoetako 5en inguruko jarrera adierazi du: industria-politikaren etorkizuna, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka, Europarako agenda digitala, baliabideak modu eraginkorrean erabiliko dituen Europa eta berrikuntzaren aldeko Batasuna. Beste biak 2012an landu ziren. Era berean, Euskadin, eremu horretan gauzatutako jardunbide egokien adibideak aurkeztu ditu.

Era berean, aipatzekoa da Eskualdeetako Komiteak eskualdeetako eta tokietako erakundeek estatu kide bakoitzak aurkeztu beharreko Elkarteko Hitzarmenen parte-hartzeari egindako jarraipena, Hainbat Urtetako Finantza Esparrua hartu ondoren. Hitzarmen hauek eskualdearen eta estatu kide bakoitzaren estrategiak ezartzen dituztea, egitura zein inbertsio funtsak erabiltzeko. Eusko Jaurlaritzak beste Autonomia Erkidego batzuekin batera egin zuen bere ekarpena, Espainiako Elkarteko Akordioan izandako eskualde parte-hartzea ezartzeko.



Era berean, 2013ko Herritarren Europako Urtea ospatzeko, eta horiek Europako Hauteskundeetan parte-hartzea bultzatzeko, hainbat ekitaldi antolatu ziren, EBko lurraldean aske bizitzeko eskubideari buruzko kontzientziazioa handitzeko, Erkidegoko politiketatik onura ateratzeko modu onenaren inguruan informatzeko, horien prestakuntzan parte-hartze aktiboa bultzatzeko, eta Batasuneko herritarren arteko kohesioa eta elkarrekiko adostasuna sendotzeko buruzko eztabaida sustatzeko.

Horren inguruan, Eusko Jaurlaritzak Bruselan parte hartu zuen, IREKIA komunikazio tresna komunikazio publikoaren eta Erkidegoko politiken inguruko informazioaren eremuko EBko profesionala biltzen dituen urteko Biltzarrean. Halaber, Jardunaldi Irekien edo Open Days jardunaldien esparruan antolatutako hainbat mintegitan ere hartu zuen parte, industria-politiken eta klusterren, eskualde-diplomaziaren, legeen kalitatearen eta krisi ekonomikoaren aurreko irtenbideen inguruan Euskadin gauzatutako jardunbide egokien adibideak azalduta.

Europako Parlamentuko presidente Martin SCHUTZek esan bezala, herritarrek euren potentzial osoa zabaltzea lortzeko, komunikazio, parte-hartze eta legeria hobeak behar dira. Alde horretatik, Eskualdeetako Komiteak subsidiarotasun printzipioaren eta maila anitzeko gobernantzaren aplikazioa hobetzearen alde egiten jarraitu du, Europako eremuan legeak egiteari dagokionez, Europako politiken diseinu osoan planteamendu integrala aplikatuta. Horrela, 2014rako lehen lan programaren prestaketarekin, EKak EBren ekimenak lehen faseetatik gainbegiratzeko eginkizuna hartu du bere gain. Eusko Jaurlaritzak parte hartutako gobernantza politikoak eta eskuragarri dauden jarraipen tresnek (Subsidiarotasunaren jarraipen sarea, aditu taldea, REGPEX eta Subsidiarotasunari buruzko Urteko Biltzarra) EKak eginkizun hori arrakastaz gauzatzea ahalbidetu dute. Gainera, Eusko Jaurlaritzak aktiboki lagundu du legegintzaren kalitatea hobetzeko jardueretan, Erkidegoko arauen lurralde-inpaktua aztertzea ahalbidetzen duen sistemaren ebaluazioan aditu gisa parte hartuta, bai eta gaiaren inguruko zuzenketak proposatuta.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak Europako araudiaren prestakuntzan parte hartzen jarraitu du, zuzenketak proposatuz edota, beste eskualde batzuekin batera, hainbat gairen inguruko Europako arauen eta, zehazki, Euskadin gauzatutako politiketan eragin handia duten zirriborroen aldaketa-proposamen zehatzak aurkeztuta. Jarraian zehaztuko dugun eta EKren kontsulta-jarduera deitutakoa da.

EUSKADI EK-REN KONTSULTA JARDUERAN

Erkidegoko arauak aztertzeko lanean parte hartzen du Eusko Jaurlaritzak. Eusko Jaurlaritzak egin dituen zuzenketak adierazten ditu, laburtuta, ondorengo taulak:

Txosten kopurua	Iritzi-eskaerak sailentzako	Jasotako erantzunak	Partaidetza (%)	Txostenarekiko adostasuna duten eskaerak (%)	Jasotako zuzenketen kopurua	Aurkeztutako zuzenketen kopurua	Onartutako zuzenketen kopurua	Onartutako zuzenketak (%)
41	46	41	% 89,1	% 68	76	51	34	% 66,6



Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea

2013an, Eusko Jaurlaritzak EKren 41 txosten proiektu aztertu ditu guztira, iaz baino gutxiago (53); izan ere, urteko lehen osoko bilkuran, Euskadik ezin izan zuen parte hartu, EKra Euskadiko ordezkariak ez zeudelako oraindik izendatuta. Aldiz, Gobernuko Sailen erantzun maila iazkoa baino handiagoa izan da (% 89 2013n, 2012 % 81en aurrean).

Balorazioen kalitatea

Jasotako erantzun-motari dagokionez, 2013an, zuzenketak proposatzen zituzten erantzunen ehunekoa (% 32) murriztu egin da 2012ri dagokionez (% 55). Ondorioz, orokorrean, Eusko Jaurlaritzako Sailek ez dute hain jarrera kritikoa izan aztertutako txosten proiektuei dagokienez.

Nolanahi ere, zuzenketak aurkeztu nahi izan dituen Sail kopuruen aukera txikiagoa bada ere, 2013an aurkeztutako zuzenketen kopurua aurreko urtekoa baino handiagoa izan da: 51 aurten 2012ko 44ren aurrean, eta hori aurkezteko beharrezko laguntzak lortu direlako da, batez ere.

2013an onartutako zuzenketei dagokienez, kopurua 2012koa baino txikiagoa da; izan ere, azken hori % 98koa da, aurten % 66,6ren aurrean.

Txosten proiektuen tipologia

Eusko Jaurlaritzak 2013an aztertutako Txosten proiektuek honako gai hauek landu dituzte: Ingurumena, energia, kontratazio publikoa, eskualde-arteko lankidetzak, hezkuntza, Europako integrazioa eta erakundeak, nekazaritza, barne gaiak, laguntza publikoak, lehiakortasuna eta industria-politika, arauen kontrola eta kalitatea, kirola, enplegua, aukera-berdintasuna, berrikuntza, gutxiengoak, lurralde-antolakuntza, enpresa-politika, eskualde-politika, portuak, telekomunikazioak eta garraioak.

Beste aldetik, txosten horietarako aurkeztutako zuzenketek ere informazio interesgarria ekartzen dute, Eusko Jaurlaritzak Euskadiren interesak defendatzeko modu aktiboenean parte hartutako eremuen inguruan. Honako hauek lirateke: nekazaritza; lehiakortasuna eta industria-politika, eta Europako integrazioa eta erakundeak.

Beste eskualde batzuk egindako zuzenketei emandako babesak

Berriazko zuzenketak egiteaz gain, Eusko Jaurlaritzak beste eskualde batzuek egindako 458 zuzenketa aztertu ditu eta, guztira, horietako 247 bermatu eta aurkeztu ditu. Zuzenketa horiek Estatuko gainontzeko Autonomia Erkidegoek egin dituzte nagusiki, baina baita Europaren aldeko Liberalen eta Demokraten Itunaren Taldeko (ELDI) eskualdeek eta udalek ere. Aipatzekoa da, EKan zuzenketak aurkeztu ahal izateko, egindako pertsonen gain, erakundeko 5 kidek gutxienez sinatu behar dutela proposatutako zuzenketa.



Halaber, komeni da nabarmentzea beste Autonomia Erkidegoek egindako zuzenketen kopurua nabarmen txikitu dela 2013an (458), 2012ri dagokionez (610). Aldiz, ez da gauza bera gertatzen Euskadik babestutako zuzenketa kopuruarekin. 2012an, Autonomia Erkidegoetatik jasotako zuzenketen % 41 babestu zuen; aldiz, 2013an, % 54 babestu ziren.

Kontsulta zehatzak funtsezko gaietan, eta jardunbide egokien aurkezpena

Europako Batzordearekin batera, EKak eskualde eta toki mailan gauzatzen ari diren politikak ezagutzeko, prestatzen ari diren Erkidegoko araudi berriaren ikuspegia zehazteko eta EBko lurralde ezberdinetan nolako inpaktua izan dezakeen zehazteko kontsultak antolatzen ditu.

Kontsulta horietako batzuek zerikusia dute Europa 2000 Estrategiaren ekimen enblematikoekin. Izan ere, estrategia horrek datozen urteetan Europako Batasunak zer erronka dituen eta zer helburu bete behar dituen adierazten ditu, eta 2014an, erdi bidean, berrikusi egingo da. 2013an 8 galdeketa erantzun ziren.

○ **Europa 2020 Estrategiaren inguruko galdeketak:**

- I. Globalizazioaren garairako industria-politika (2013ko martxoa)
- II. Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako Europako plataforma (2013ko maiatza)
- III. Europarako Agenda Digitala (2013ko maiatza)
- IV. Baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa (2013ko ekaina)
- V. Berrikuntzaren aldeko batasuna (2013ko azaroa)

○ **Euskadirako interesgarriak diren beste gai batzuetako galdetegi osoak:**

- I. Barne Araudiaren Berrazterketa (2013ko otsaila)
- II. Elkartzeko akordioak kohesio-politikaren alorrean (2013ko apirila)
- III. Itsas- eta kosta-turismoa Europan (2013ko apirila)

Era berean, EKak Europako beste eskualdeentzako eta udalentsako eredu gisa baliagarriak izan daitezkeen lekuan bertako jardunbide egokien adibideak eskatu zizkien bere kideei.

○ **2013an EKri aurkeztutako Euskadiko jardunbide egokien adibideak:**

Informazioaren gizartearen inguruan:

- Euskadiko 2015 Agenda Digitala.

Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren inguruan:

- SENDOTU proiektua (EAE-EGF programa eragilea)



- BZI – Baliabide Zentro Integrala (Berrikuntza minusbaliotasunaren eta enpleguaren zerbitzura)

Baliabideen erabilera eraginkorraren inguruan:

- Tokiko iraunkortasuneko jardunbide egokiak EAEn, 2012an

Berrikuntzaren inguruan:

- Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sarea, bai eta aipatutako jardunbide egokia proiektatu zuen Standa ere.

Subsidiariorotasunaren azterketa

- Subsidiariorotasun printzipioaren Euskadiko aplikazioari buruz hitz egiteko, Marian Elorzak Berlingo Senatuan egindako subsidiariorotasunari buruzko VI. **Gailurrean** emandako hitzaldia.
- Mikel Antonen parte-hartzea **Subsidiariorotasunaren aditu taldean**. Eztabaidatutako ekimen nagusiak hiri mugikortasun iraunkorra eta hondakinen inguruko Europako politika izan ziren. Halaber, 2014rako lehentasunak hautatu ziren, Europako Batzordeko programa legegilearen subsidiariorotasunaren arloan.

Horrez gain, Subsidiariorotasun eta Proportzionaltasun-printzipioak betetzen diren aztertzeke antolatutako hurrengo kontsultetan parte hartu du Euskadik:

- I. Erkidegoko arauen lurralde-inpaktuaren ebaluazioa (2013ko martxo)
- II. Hondakinei buruzko Europar Batasuneko legeria (2013ko maiatza)
- III. Portuei buruzko paketea (2013ko uztaila)
- IV. Kontratazio publikoaren alorreko fakturazio elektronikoa (2013ko iraila)

Automobilgintzari buruzko eskualde arteko taldea

- Lehen bileran, "CARS2020 Ekintza Planari" buruzko lan dokumentua eztabaidatu zuten, eta garraiorako energia garbiei buruzko Europako neurrien paketea aurkeztu zuten. Bileran, ibilgailu elektrikoaren kargaren kudeaketaz arduratzen den IBIL enpresako zuzendari nagusi Enrique Monasteriok bere kasua aurkeztu zuen, jardunbide egokiaren adibide gisa.
- Urteko bigarren bileran, 2014-2020 automobilgintzaren industriako ikerketaren finantzaketaren, berrikuntzaren eta networkingaren inguruan eztabaidatu zuten. Bertan, Bruselarako Euskadiko ordezkari Marta Marínek EAE-an baliabideak automobilgintzaren industriarekin zerikusia duten proiektuak finantzatzeko modua aurkeztu zuen.



REGLEG-EELB eskualde arteko taldea

- EELBren, REGLEGen eta eskumen legegileak dituzten parlamentuek eta gobernu autonomikoez osatutako Intertaldearen arteko lankidetzaz aztertu zuten.
- REGLEGek eta EELBk EKren osoko bilkuretan toki iraunkorra izatea eta erakunde horren laguntza handiagoa izatea proposatu zuten; gai horiek EKren etorkizunari buruzko eztabaidaren eremuan aztertu beharko dira.

Osasunaren inguruko eskualde arteko taldea

- Bi gai garrantzitsu eztabaidatu ziren: e-osasunari buruzko Ekintza Plana eta tabako-produktuei buruzko Zuzentaraua.
- Bileraren gaia 2012ko irailean Europako Batzordeak prestatutako eta eHealth 2012-2020 Ekintza Planari erantzuteko sortuko den mHealth-ari buruzko Liburu Berdea izan zen.
- ELren eta Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arteko Akordio Memoranduma sinatu litekeela iragarri zuten. Era berean, herritarrek batez beste pertsonako 5 kilo galtzea helburu duen OMErekin batera garatutako proiektu pilotuaren berri eman zuten.

Europako alderdi politikoak eta Espainiaren Ordezkaritza

Europako Talde Politikoa

- Talde Politikoaren aldaketa urte-hasieran. Eusko Jaurlaritzako ordezkari berriak ELDI Taldea osatzera pasatu ziren (Europaren aldeko Liberalen eta Demokratien Ituna).
- ELDI Taldeak antolatutako bileretara bertaratzea

Espainiako delegazioa

- Bulegoaren eta Espainiako Ordezkaritzaren burutzaren aldaketa- 2013an, Espainiako Ordezkaritzaren koordinazioa Extremadurak izan zuen lehenengo, eta Balear Uharteek ondoren.
- EKren 20. urteurrena. Erakundearen ibilbideari eta etorkizuneko ikuspegiei buruzko jarrera komuna lortzeko elkarrekin lan egitea helburu, Espainiako Ordezkaritzak jarrera komuna aurkeztu du.



Garapenerako lankidetzaren deszentralizatuari buruzko 3. Kongresua

- 3. Kongresuan, Europako Batzordea prestatzen ari den eta, garapenerako lankidetzaren esparruan, gobernu deszentralizatuen lana zehaztuko duen Komunikazioari buruz eztabaidatu zuten.
- Halaber, hurrengo urteetarako Europako lankidetzaren agendaren prestakuntza eztabaidatu zuten.
- Lankidetzarako Euskal Agentziaren zuzendari Paul Ortegak Eusko Jaurlaritzaren esperientzia azaldu zuen lankidetzaren arloan, bai eta uraren kanonarekin eta horren alderdi solidarioarekin izandako praktika ere.

Komunikazio Publikoari buruzko Europako Biltzarra (EuroPCom 2013)

- Gai nagusia komunikabideek datorren maiatzaren 25eko hauteskundeetan izango duten rola eta jarrera izan zen, Europako euroeszeptizismoaren goieneko aldiaren aurrean.
- Luis Petrikorenak, Eusko Jaurlaritzako Gobernu irekiaren zuzendariak, Irekiaren kasua aurkeztu zuen "7 hitzetan".

Berrikuntzaren aldeko Batasunari buruzko Biltzarra

- Helburua ekimen enblematiko honen aplikazioaren azterketa egitea izan zen, eskualde mailan, Europako erakundeetako, Estatu kideetako eta eskualdeetako ordezkari nagusien esperientzien trukearen bidez.
- 4 gai eztabaidatu ziren: espezializazio adimenduneko estrategiak; berrikuntza, enpresak eta enplegua; mugaz bestaldeko sareak eta berrikuntza irekia.
- Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun sailburuorde Estibaliz Hernaezek txostengile gisa hartu zuen parte, Euskadiren espezializazio adimendunaren estrategia azaltzeko.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen aurkezpenerako standa ezarri zuten, Euskadiko jardunbide egokiaren adibide gisa.

Open Days: Europako Eskualde eta Hirien XI. Astea

Euskadik aurkeztutako ekimenak

- Euskadi, krisi ekonomikoaren aurreko eskualde indartsuaren Europako eredu. EBrako Euskadiko ordezkari Marta MARINEk biltzarrean hartu zuen parte, euskal ekonomiaren gakoak jakinarazteko, krisi ekonomikoari hoberen aurre egiten ari den Europako eskualdeetako bat bezala.



- "Eskualdeko krisi diplomatikoa edo eskualde-diplomaziaren krisia? Nola eragin die krisiak EBko eskualdeetako harremanei, EBren onena ateratzea helburu?" Halaber, EBrako Euskadiko ordezkariak biltzar/eztabaida horretan hartu zuen parte, eskualde-diplomaziaren eremuan Bruselan izandako euskal esperientzia partekatzeko.
- Europako erakundeek eta kideek aitortutako kluster-politika. Euskadiko ordezkariak Euskadik klusterren politikan izandako 20 urtetik gorako esperientzia luzea ekarri zuen Europako eztabaidara.
- Legeriaren eta horren lurralde inpaktuaren aplikazio hobea. Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendari Xabier UNANUEK aipatutako biltzarrean parte hartu zuen, arauen kalitateari eta legeriaren aplikazio egokiari buruz hitz egiteko.

